



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA - *PhD THESIS*

**“KONTAKTUAREN ZENBAKIZKO  
SIMULAZIOA ARTEZKETAN”**

**“ON THE NUMERICAL MODELLING OF THE  
CONTACT IN GRINDING”**

*Presented in the Mechanical Engineering Department by*

**Juan Luis OSA AMILIBIA Jn.-k**

aurkeztua Ingeniaritza Mekanikoa Sailean

*Zuzendariak / Supervisors:*

**José Antonio SÁNCHEZ GALINDEZ Dr.**

**Naiara ORTEGA RODRÍGUEZ Dr.**

*Eibar, November 2016 Azaroa*



*El sueño de la razón produce monstruos*  
Francisco de Goya (1799)



*Nere aitari*



# Contents

I	Kontaktuaren zenbakizko simulazioa artezketan (EU)	1
II	On the numerical modelling of the contact in grinding (EN)	143





## Part I

# Kontaktuaren zenbakizko simulazioa artezketan



# Gaien Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>9</b>
1.1. Testuingurua . . . . .	9
1.2. Helburuak eta ekarpenak . . . . .	12
1.3. Edukiak . . . . .	13
<b>2. Aurrekariak</b>	<b>15</b>
2.1. Sarrera. Artezketa eragiketa . . . . .	17
2.1.1. Artezketa lauaren zinetika eta indarrak . . . . .	18
2.1.2. Diamantaketa . . . . .	21
2.1.3. Harriaren gainazal topografia . . . . .	25
2.2. Artezketa kontaktu-luzera . . . . .	31
2.2.1. Kontaktu-luzera ereduak . . . . .	32
2.2.2. Kontaktu-luzera neurtzeko metodo esperimentalak . . . . .	37
2.2.3. Kontaktu-luzera seinalearen analisisa . . . . .	41
2.3. Zenbakizko ereduak artezketan . . . . .	43
2.3.1. Harriaren egituraren ereduak . . . . .	44
2.3.2. Topografia-ereduak . . . . .	46
2.4. Ale urratzaile-pieza interakzioa . . . . .	51
2.4.1. Kontaktu-mekanika . . . . .	52
2.4.2. Urraduraren mekanika . . . . .	55
2.4.3. Biskoplastikotasuna . . . . .	66
2.5. Laburpena . . . . .	72
<b>3. Zenbakizko kontaktu-eredua</b>	<b>75</b>
3.1. Sistemen diseinua . . . . .	77
3.1.1. Harria-pieza kontaktuaren zenbakizko ereduak . . . . .	77
3.2. Elementu diskretuen metodoa . . . . .	78
3.2.1. DEMaren moldaketa artezketa kontaktu-eredura . . . . .	80
3.2.2. DEM ereduaren sorkuntza . . . . .	89
3.2.3. DEM ereduaren egitura . . . . .	90
3.3. Harriaren zenbakizko ereduaren eraikuntza . . . . .	91
3.3.1. Harriaren ezaugarriak . . . . .	91
3.3.2. Harriaren zenbakizko ereduak DEM bidez . . . . .	97
3.4. Zenbakizko diamantaketa . . . . .	100

3.5. Mugalde-baldintzak . . . . .	104
3.5.1. Kontaktu estatikoaren eredua . . . . .	105
3.5.2. Ebaki-gabeko txirbil-lodieraren eredua . . . . .	107
3.5.3. Indar zentrifugoa . . . . .	110
3.6. Laburpena . . . . .	110
<b>4. Kontaktuaren simulazioa artezketan</b>	<b>113</b>
4.1. Lan esperimentala . . . . .	115
4.2. DEM ereduaren prestaketa . . . . .	121
4.2.1. Habeen propietateen kalibrazioa . . . . .	121
4.2.2. Sarrera-datuak . . . . .	122
4.3. Simulazioak eta saiakuntzak . . . . .	127
4.4. Esperimentu faktorialak DEM ereduarekin . . . . .	134
4.5. Laburpena . . . . .	138
<b>5. Ondorioak</b>	<b>139</b>
5.1. Etorkizuneko lan-ildoak . . . . .	140

# Irudien Zerrenda

1.1. Indexatutako aldizkarietan <i>grinding, contact, numerical model</i> eta <i>DEM</i> hitz gakoak dituzten argitaratutako artikuluko kopurua .	10
1.2. Zenbakizko eredu termikoan lortutako gainazaleko tenperaturak .	11
2.1. Ale urratzailearen sorbatza materiala harrotzen . . . . .	17
2.2. Artezketa lauaren lan-parametro nagusiak eta indarrak . . . . .	18
2.3. Artezketaren mikro-fresaketa analogia . . . . .	19
2.4. Ebaki-gabeko txirbil-geometria alearen zeharkako profilaren arabera: triangeluarra, errektangeluarra eta zirkularra . . . . .	20
2.5. Diamantaketa finkoaren zinematika; ebaketa-sekzioaren detailea .	22
2.6. Ale haustura eta aglomeratzaile-zubi haustura . . . . .	23
2.7. Diamanteak ondoz ondoko aleetan sortutako profilak . . . . .	23
2.8. Sorbatzen arteko distantzia estatikoa eta dinamikoa . . . . .	27
2.9. Sorbatzen zorrotasunaren karakterizazioa . . . . .	27
2.10. Sorbatzen eta gainazaleko aleen batz besteko profilak; tontorren malda eta kurbatura . . . . .	29
2.11. Ordezko harria eta CBN harri lagina . . . . .	31
2.12. Kontaktu-luzeraren definizioa; deformazioak harria-pieza artean .	32
2.13. Rowe-Qi kontaktu-eredua . . . . .	36
2.14. Termopare polobakarra; isolatzailearen lodieraren eragina . . . .	38
2.15. APS metodoa; harria-pieza eta pieza-pieza aldaerak . . . . .	39
2.16. Gelditze azkarra eta adabaki-artezketa metodoak . . . . .	40
2.17. APS seinaleak kontaktu-zabaleraren arabera; ebaketa-eremuak kontaktu-luzeran; termopare eta APS seinaleak . . . . .	42
2.18. Harriaren malguki-eredu uniformea; aglomeratzaile-zubiak modelatzen dituen habe-sarea; artezketaren simulazioa DEM bidez .	45
2.19. Ale geometria aldaerak; alearen proiektzioak eta forma faktorea .	50
2.20. 3D topografia-ereduen diagrama orokorra . . . . .	52
2.21. Erdi-espazio elastikoan kontaktua esfera eta zilindro zurrunean .	53
2.22. Ale urratzailearen akzioa: igurzketak, goldaketa eta ebaketa . . .	56
2.23. Ale bakarraren frogan aldiuneko energia espezifikoa eta indarra .	58
2.24. Taborren ale higatuen igurzketak-kontaktu ereduak . . . . .	59
2.25. Konoak gainazala urratuz sortutako ildaska . . . . .	60
2.26. Ebakidura labainketa-lerroen ereduak . . . . .	60

2.27. Challengen eta Oxleyen labainketa-lerro ereduak . . . . .	61
2.28. Ebaketa-eremuak; txirbil-sorkuntza hiru dimentsiotan . . . . .	61
2.29. Txirbil-sorkuntzaren gogortasun-froga analogia . . . . .	63
2.30. Ebaketa ortogonal eraso-angelu negatiboetan . . . . .	69
3.1. Sarrerak eta irteerak artezketa-sisteman . . . . .	78
3.2. Harria-pieza kontaktua fluxu-diagrama errealitatean eta zenbakizko ingurunean . . . . .	79
3.3. Proposatutako DEM ereduaren formulazioaren egitura . . . . .	81
3.4. DE-en arteko ohiko interakzio-motak . . . . .	84
3.5. Habe elastikoa atsedenean eta kargatuta . . . . .	86
3.6. Habeen propietateen kalibratzeko prozeduraren fluxu-diagrama . . . . .	88
3.7. Simulazioak jarraitzen duen fluxu-diagrama . . . . .	91
3.8. Ohiko harrien izendapena . . . . .	92
3.9. Osagaien proportzio bolumentrikoen eragina harrien egiturari . . . . .	94
3.10. Harrien osaketa bolumentrikoaren diagrama trigonala . . . . .	95
3.11. Aglomeratzailearen tantaren froga . . . . .	96
3.12. Harriaren eta piezaren DEM ereduak . . . . .	97
3.13. Harriaren DEM ereduaren eraikitze fluxu-diagrama . . . . .	98
3.14. Harriaren DEM ereduaren eraikitze fluxu-diagrama . . . . .	99
3.15. Harriaren DEM ereduari gainazal topografia aplikatzeko pausoak . . . . .	101
3.16. Ale-dentsitate metatua sakonera erradialean . . . . .	102
3.17. Chenen topografia ereduaren aplikazioa era diskretuan . . . . .	103
3.18. Kontaktu-detekzioa KE ereduari . . . . .	106
3.19. ETL ereduaren oinarriak . . . . .	108
3.20. Kontaktu-detekzioa ETL ereduari . . . . .	109
4.1. Diamantearen profilaren zeharkako neurketa . . . . .	116
4.2. Artezketa-endarren neurketa-katea . . . . .	117
4.3. Neurrira egindako ordezkari harria eta lagina . . . . .	117
4.4. Topografia 3D neurketa; zeharkako SEM irudia . . . . .	118
4.5. Sorbatz-erradioaren neurketa 2D profila aztertuz . . . . .	119
4.6. APS saiakuntza prestaketa . . . . .	120
4.7. APS seinale adibideak irtengunearen zabaleraren arabera . . . . .	121
4.8. Habeen elastikotasun moduluen kalibrazioa graduarekiko . . . . .	122
4.9. DEM ereduaren altueraren azterketa FEM bidez . . . . .	124
4.10. Artezketa-endar normal espezifikoa . . . . .	126
4.11. Bermazal-kurba esperimentalak eta DEM ereduari sortutakoak . . . . .	127
4.12. KE eta ETL ereduari aldagaien garapena simulazioan zehar . . . . .	129
4.13. Kontaktu-luzera neurketak eta zenbakizko emaitzak . . . . .	130
4.14. Harriaren deformazioaren adibidea . . . . .	133

# Taulen Zerrenda

2.1. Arteketa kontaktu-luzera eredu nagusien bilduma . . . . .	33
2.2. APS saiakuntza-baldintzak literaturan . . . . .	40
4.1. Saiakuntza-baldintzak eta baliabideak . . . . .	115
4.2. DEM ereduaren sarrera-datuak . . . . .	123
4.3. Kontakto-luzera, sarketa maximo, zimurtasun-faktore eta ale- densitate emaitza esperimentalak eta zenbakizkoak . . . . .	131
4.4. Mailen esleipena eta simulazioetako emaitzak . . . . .	136
4.5. ANOVA taulak: kontaktu-luzera, sarketa maximoa eta ale-den- tsitatea . . . . .	137





# 1. Atala


## Sarrera

### 1.1. Testuingurua

Artezketa dirauten fabrikazio-prozesu zaharretakoa izan arren, gaur egungo elementu mekanikoen fabrikazioan pisu nabarmena izaten jarraitzen du. Bere eraldaketaren arrakasta, akabera eta doitasun handiko piezen ekoizpenean ezinbesteko prozesu bihurtzean datza. Besteak beste, aeronautika eta autogintza sektoreek izan duten garapenaren erantzule izateaz gain, puntako errobotika eta mikro-ekoizpen prozesuetan ere nagusitasunez gailendu da.

Teknologiaren aurrerapenak fenomeno fisikoen oinarritzko ikerketetan oinarritu behar du. Horregatik, ez da harriztekoa azken 30 urteetan ikertzaileen eskutik artezketak jaso duen arreta, batez ere prozesuaren zenbakizko ereduen eraikuntzan eta simulazioan [KBH<sup>+</sup>02, BAG<sup>+</sup>06, DWB09]. Ikerkuntza-arloen artean, harriaren eta piezaren arteko kontaktuaren azterketak hirurogeigarren hamarkadaren hasieran hasi ziren, hurbilketa enpiriko eta erdi-enpirikoen eskutik. Ikertzaile nagusiek azpimarratu dute kontaktu-eremuak artezketan duen garrantzia [Sha96, MRDI04, Mal08]. Kontaktu-eremuaren definizioa prozesuen analisi guztien abiapuntua da. Material harroketa, higadura eta bero-sorkuntza fenomenoak kontaktu-gainazalean gertatzen dira. Harriaren egitura granularrak eta gainazal-topografia konplexuak eragiketaren modelatzea zailtzen du. Horregatik da kontaktua ikertzaile askoren jomuga artezketaren arloan, nahiz eta bere behaketa korapilatsua izan. Azken 56 urteetan *azterketa*, *zenbakizko eredu* eta *kontaktua* hitzak jasotzen dituzten ikerkuntza-artikuluen goranzko kopuruak, gaiak duen garrantzia azpimarratzen du (1.1. Ir.).

Gaur egungo harriak, harroketaz arduratzen diren ale urratzailez osatutako diseinuzko konglomeratu artifizialak dira. Hauskorragoa den aglomeratzaileak eusten ditu aleak, tartetean poroak eratuz. Kontaktu-luzerak eta -zabalerak definitzen dute kontaktu-azalera. Ohiko artezketa eragiketetan harriaren zabalera  $b_s$  konstante mantentzen denez, kontaktu-eremua zuzenean kontaktu-luzerarekin definitu ohi da. Artezketa-indarren eta ale-mailan dauden kontaktu-baldintzen ondorioz, harria eta pieza deformatu, eta beraien arteko kontaktu-luzera geo-




**1.1. Irudia:** Indextatutako aldizkarietan *grinding*, *contact*, *numerical model* eta *discrete element method (DEM)* hitz gakoak dituzten argitaratutako artikulu kopurua 1961. urtetik aurrera (\* 2016-11-01 arte; iturria: Scopus)

metrikoki ondorioztatutakoa baino luzeagoa da. kontaktu-luzeraren neurketa esperimentala zaila da, ia ezinezkoa industria-inguruetan.

Artezketa azterketa denek  $l_c$  kontaktu-luzeraren garrantzia azpimarratzen dute. Harria eta piezaren arteko kontaktu-luzera, alderdi termikotik nahiz mekanikotik aztertuz, arteztutako piezaren gainazalaren kalitatean eragiten duen faktore garrantzitsuenetakoa da. Kontaktuluzerak beroaren eta indarren banaketa-eremua definitzen duenez, zuzenki eragiten du piezara doan energia fluxuaren intentsitatean, lortutako tenperatura maximoan eta harriaren higaduran. Argi dago ale urratzaileen higadurak eta piezaren tenperaturak kontaktu-luzeraren eragina jasaten dutela.

Kontaktu-eremuaren ahalik eta hurbilpen zehatzenak erabiltzea ezinbestekoa da prozesuak simulatzeko orduan. Artezketa eredu termikoak kalte termikoa aurreikusteko erreminta interesgarriak dira. Orain dela gutxi arte, ikerlariek harria zurruntzat hartu dute deformazioak arbuatuz. Hainbat ikerlariek suposizio hori oker dagoela erakutsi dute [QRM01, MRDI04, Mal08, Han06, Row10, Pom10].  $l_g$  kontaktu-luzera geometrikoa (harri zurruna) erabiltzen duten eredu termikoek aurreikusitako tenperaturak altuagoak dira esperimentalki neurtutakoak baino. Adibidez, kontaktu-luzera  $l_g$  halako bi ( $l_c \approx 2 \cdot l_g$ ) den egoera batean,  $l_c$ -ren ordez  $l_g$  erabiliz gero, adierazpen analitikoek % 41 gain-tenperatura aurreikusten dute [MRDI04]. Antzeko emaitzak lortzen dira artezketa eredu termikoetan  $l_g$  sarrera-datu gisa erabiliz. Adibidez, 1.2. Irudiak zenbakizko eredu batek aurreikusitako piezaren gainazaleko tenperaturak aurkezten ditu. Bi kasuetan bero kantitatea berdina izanik, kontaktu-luzerak bero-fluxua edo intentsitatea aldatu eta, ondorioz, tenperatura maximoetan alde agertzen da.

Kontaktu-luzerak higadurarekin ere lotura estua dauka. Adhesio-higadura, kontaktuan dauden bi gorputzen konposaketaren, hozgarriaren eta mugalde-



**1.2. Irudia:** Zenbakizko eredu termikoan lortutako gainazaleko tenperaturak kontaktu-luzeraren funtzioan [Pom10]

baldintzen menpe dagoen fenomeno konplexua da. Archard-en arabera [Arc53], baldintza egonkorrean labaintzen diren material konbinaketa jakinarentzat, erlazioatuta daude adhesio-higadura tasa, indar normala, kontaktu-azalera erreal eta labainketa-distantzia. Verkerk-ek Archarden adierazpena harriaren higadura estimatzeko moldatzen du, indentazio erlazioak kontaktu-azalera erreal ordezkatuz [Ver77]. Nahiz eta Archarden adierazpenak ale-haustura eta -askatzea kontuan ez izan, artezketa-tasaren maldarekin bat egiten du birdiamantatzepuntuaren aurretik dagoen higadura konstanteko fasean.

Artezketa-indarrek ere kontaktu-luzerarekin lotura dute [Ono61]. Kontaktuluzerak indarrarekiko erlazio koadratikoa dauka.

Kontaktuluzera neurtzean lan esperimental arindu eta ezagutza teknologikoan sakondu nahian, zenbakizko simulazioak ikerketa-aukera berriak irekitzen ditu. Oro har, kontaktuaren analisisian hiru faktore nagusitzen dira: kontaktuan dauden gorputzen elastikotasuna, gainazalen prestaketa eta kontaktubaldintzak. Lan hau material metalikoen artezketara mugatuko da. Beraz, pieza homogenea eta isotropoa da. Harriaren ezaugarriak, berriz, guztiz kontrakoak dira: solido ez-jarraitu heterogeneoa da. Ondorioz, harriaren portaera mekanikoa deskribatzeko ingurumen jarraituen mekanikako ohiko zenbakizko erreminten eta hurbilpen analitikoaren erabilera zailtzen da. Piezaren gainazalzimurtasuna harriarena baino askoz ere txikiagoa denez, gainazal leuntzat har daiteke. Harriaren gainazalari dagokionez, topografia oso zimurra du. Ale-dentsitateak gainazalaren irekitasuna definitzen du eta artezketaren eraginkortasunean eragin zuzena dauka. Harriaren gainazala diamantaketa bidez prestatzen da. Ale-haustura eta -askatzea dira diamantaketa-mekanismo nagusiak. Diamantaketa-baldintzek mekanismoen intentsitatean eragiten dute, gainazal ireki bigunak edo itxi zurrinak sortuz.

Gorputzen elastikotasunaz eta zurruntasunaz gain, kontaktu-baldintzek eragin zuzena dute kontaktuan. Ohikoa izan da artezketan harriaren eta piezaren arteko kontaktua elastikotzat jotzea. Hala ere, urratzaileek materiala abiadura bizian eta tenperatura altuetan harrotzen dutenez, benetako fenomenotik urrun dago kontaktu elastikoa.

Teknikaren egoera berrikustean, elementu diskretuen metodoak (*discrete element method*, DEM) artezketaren simulazioan duen potentziala ikusi da. DEM-aren formulazio irekiak simulatu nahi den fenomeno fisikoari moldatzeko malgutasun ikaragarria eskaintzen du. Bere ausazko natura berezitu dela eta, harriaren ezaugarriak erreproduzitzeko erreminta egokia da. Gainazal zimurren arteko kontaktua simulatzeaz gain [JM12], harriaren egituraren eredu bat ere aurkeztu da [LYZW15a, LYZW15b]. 1.1. Irudian, DEM ereduaren erabilerak literaturan izan duen progresio esponontziala ere erakusten da.

Laburbilduz, harriaren morfologiaren eta zurruntasunaren portaera islatu, diamantaketak sortutako gainazal topografia deskribatu eta ale-pieza arteko kontaktu-baldintzak kontuan hartu behar ditu kontaktu-eredu idealak.

## 1.2. Helburuak eta ekarpenak

Tesi honen helburua, artezketa lauan kontaktuak dituen ondorioak aztertzea da, harriaren deflexioan, ale mailako indarretan eta itxurazko kontaktu-luzeran arreta ipiniz. Helburua, harriaren eta piezaren arteko kontaktua modelatuz eramango da aurrera, zehazki harriaren DEM zenbakizko ereduak garatuz. Eredua, beiratzatutako aluminazko harriekin altzairuen artezketa lauaren esparrura mugatuko da; etorkizunean bere erabilera beste harrietara eta artezketa-prozesuetara zabaltzeko aukera izango da. Harriaren DEM ereduak morfologia granular eta zurruntasun ezaugarriak biltzeaz gain, gainazal topografia sortzen du diamantaketa-baldintzen arabera. Tesian bi kontaktu-baldintza aztertzen dira. Alde batetik, Rowe-Qi ereduaren agertzen den harriaren eta planoaren arteko kontaktu estatiko zimurra simulatzen da [RMQZ93]. Gainazal zimurren arteko kontaktu-eredu gisa duen interesaz gain, bi ikertzaile horiek proposatutako kontaktu-arkuaren hurbilpena eta zimurtasun-faktore enpirikoa ebaluatze-ko erabiliko da. Eta bestetik, ebaki-gabeko txirbil-lodiera hurbilpenak, kontaktuan dauden ale urratzaileetako ebaketa-indarra estimatzen du txirbil-lodieraren funtzioan, zuzenean kontaktu-luzera lortuz. Bietan materialaren portaera biskoplastikotzat hartzen da. Mugalde-baldintzek indar zentrifugoaren eragina ere jasotzen dute.

Lan honen helburuak zehaztuz, honako erronka hauei erantzuten zaie tesian:

- harriaren gorputzaren portaera mekanikoa modelatzea, bere morfologia granularra eta elastikotasuna DEM eredu bidez erreproduzitzen,
- harriaren topografia aztertuz, ebaketa-sorbatzak karakterizatzea eta ale-dentsitatea neurtzea,
- harriaren zenbakizko ereduaren gainazal topografia islatzea diamantaketa-baldintzen arabera,

- alearen eta piezaren arteko kontaktu-baldintza bereziak zehaztea,
  - ale-pieza kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat hartzea,
  - ale-pieza kontaktuan piezaren materialaren portaera biskoplastikotzat jotzea,
  - Rowe-Qi kontaktu-ereduan deskribatutako kontaktu zimurraren modelizazioa, harriaren eta planoaren arteko kontaktu estatikoaren ereduak garatuz,
  - alearen aldiuneko txirbil-lodiera kalkulatzeko, artezketa ebaketa-sakonera kontuan hartuz,
- harriaren DEM ereduak, gainazal topografia eta ale-pieza arteko kontaktu-baldintzak konbinatzen dituen artezketa kontaktu-eredua garatzea, eta azkenik,
- zenbakizko ereduak esperimentalki balioztatzea, eta, aldagaiek kontaktuan duten eraginaren azterketa saiakuntzen diseinu faktorial bidez.

### 1.3. Edukiak

Lana bost ataletan banatuta dago. Bigarren atalak tesiak jorratuko dituen gaiei buruz jakintzak biltzen ditu. Arreta berezia ipini da kontaktu-luzera ereduetan, harriaren gainazal topografian eta kontaktu-mekanikan. Ezagutza hauek garatu den ereduaren oinarriak osatzen dituzte. Hirugarren atalak kontaktu-eredua sortzeko metodologia aurkezten du. Atala, harria-pieza kontaktua sistema tribologikoaren aldagaiak identifikatuz hasten da. Ondoren, DEM formulazioa moldatzen da harria eta kontaktu-baldintzak simulatu ahal izateko. Harriaren gorputzaren zenbakizko ereduaren eraikuntza, harriaren izendapenaren eta dimentsioen arabera egiten da. Diamantaketak sortutako topografia, harriaren zenbakizko ereduari nola aplikatzen den ere azaltzen da. Eredua osatzeko, ereduaren mugalde-baldintzak, kontaktu-detekzio algoritmoa eta kontaktu-legea zehazten dira eredu bakoitzarentzat. Laugarren atalak DEM ereduak aplikatzen du aurrez esperimentalki frogatutako baldintzetan. Simulazio emaitzek kontaktu-baldintzei eta harriaren deformazioari buruz informazio interesgarria eskaintzen du. Atalak, DEM ereduarekin egindako saiakuntzen diseinua ere aurkezten du, aldagai bakoitzak kontaktuan dituen eraginak ebaluatzeko. Azkenik, bostgarren atalak garatutako lanaren ondorioak biltzen ditu. Irekitako bidea etorkizunean jarraitzeko lan-ildoak ere proposatzen dira.



## 2. Atala

# Aurrekariak

*Aurreko mende hasieratik gaur arteko artezketarekin erlazionatutako makina ikerketa-lan aurkeztu dira. Atal honek, tesiarekin erlazio zuzena duten lan azpimarragarrienak biltzen ditu, kontaktu-ereduaren oinarri eta abiapuntu izan direnak.*

*Atala artezketa eta eragiketaren zinematika azaltzen hasten da. Diamantaketak sortzen du harriaren gainazala, eta topografiaren ezaugarriek (irekitasuna eta zorrotasuna) prozesuaren emaitzetan eragin zuzena dute. Orain arte proposatu diren kontaktu-luzera estimatzeko ereduak arreta berezia jaso dute. Kontaktu-ereduen berrikusketak kontaktu-eremuan eragiten duten aldagai garrantzitsuenak identifikatzen ditu: harriaren elastikotasuna eta harriaren gainazal topografia. Gehienek ale urratzaile-pieza kontaktua elastikotzat hartzen dute, nahiz eta errealitatean aleak materiala deformatu eta harrotu ere egiten duen. Horien artean ez dago zenbakizko eredurik, enpirikoak edo erdi-analitikoak dira guztiak. Horregatik berrikusi dira beste helburu batekin garatutako harriaren zenbakizko ereduak. Horien artean, interesgarriak dira harriaren morfologia eta elastikotasuna modelatzea helburu duten ereduak. Diamantaketak sortutako topografia deskribatzen duten eredu zinematikoek ere berrikuspen zabala jaso dute. Garatu nahi den kontaktu-eredua bi eredu mota horien arteko konbinaketa da: harriaren morfologiari topografia aplikatzen zaio. Kontaktu-mekanika kontzeptuak ere berrikuspenean sartu dira. Horiek ezinbestekoak dira ale urratzaileen eta piezaren arteko kontaktu-baldintzak definitzerakoan, arreta kontaktu-indarretan ipinita. Ale bakarraren akzioa igurzketa-, urradura- eta harroketa-mekanismoez osatzen da eta, horietan oinarrituz, ale bakarraren indar-ereduak garatu dira. Artezketan sorbatzek materiala abiadura bizian desplazatzen dute aldi berean beroa sortuz. Baldintza horietan metalek portaera biskoplastikoa erakusten dute.*

*Bildutako informazioa harriaren egituraren ereduak eraikitzen, diamantaketak sortutako topografia sortzen eta ale-pieza arteko kontaktu- eta mugaldebaldintzak finkatzen erabili da.*






## 2.1. Sarrera. Artezketa eragiketa

Teknologia mekanikoaren barnean, prozesu urratzaileak txirbil-harroketa familia handiaren parte dira [Klo09]. Prozesu urratzaileak osatzen dituzte besteak beste, azterketa, leunketa, lapeaketa eta lixaketa. Prozesu horien ezaugarri komuna materiala harrotzeko mekanismoa da: urradura. Prozesu urratzaileei buruzko azterketa gehienak deterministak izan dira, zientzian baino esperientzian oinarritutakoak. Prozesu urratzaileak, teknologia ez, artea direla esan ohi da. Hala ere, prozesu hauek gaur egungo doitasun eta akabera fineko piezen ekoizpen mekanikoan giltzarri dira.


Artezketan erreminta harria da, aglomeratzailez eta ale urratzailez osatutako konglomeratu porotsua. Bi osagai horien konbinaketak harri aldaera anitz sortzen ditu. Txirbil-harroketa ale urratzaileen ardura da. Ale bakoitza neurri mikroskopikoa duen ebaketa-sorbatzat har daiteke. 2.1. Irudian ale bat lanean ikusten da. Alearen sorbatzak  $\alpha$  jaulkitze-angelu oso negatiboa dauka,  $-60^\circ$  eta  $-70^\circ$  artean [Sha96]. Horregatik, eragiketaren efizientzia energetikoa txikia da. Sortutako beroak pieza gainazalean tenperatura altuak eragiten ditu, kaltetzera ere irits daitekeelarik. Sorbatzak  $v_s$  ebaketa-abiadura azkarretan egiten du lan ( $> 20$  m/s) eta sakonera txikietan ( $h_{cu} < 10$   $\mu\text{m}$ ), abiadura handiko mekanizazioaren antzeko baldintzetan alegia. Horrela, artezketak gaurdaino bere esparru propioa mantendu du material gogorren eta hauskorren mekanizazioan, torneaketak eta fresaketak aplikazio mugatua duten eremuetan. Abiadura handian mekanizatzeko azken joeren aurrean lehiakortasuna ez galtzeko, artezketaren garapen berriak bultzatu dira. Horrela, *grind hardening*, *creep-feed* eta *quick-point* aldaerak azaldu dira.

Piezaren geometriaren arabera sailkatzen dira oinarritzko artezketa-eragiketak: artezketa lauak gainazal lauak lortzen ditu eta zilindrikoak, berriz, gainazal zilindrikoak. Profil-artezketan harriak piezaren profila hartzen du.

Harriaren gainazalak bi higadura mota jasaten ditu: ebaketa-sorbatzen higadurak sortutako higadura-planoak (*wear flat*) eta aglomeratzaile-zubien apurketek eragindako ale-askatzeak. Diamantaketak berreskuratzen ditu gainazalaren ebaketa gaitasunak, gainazaleko urratzaile geruza finak harrotuz.



2.1. Irudia: Ale urratzailearen sorbatza materiala harrotzen




**2.2. Irudia:** Artezketa lauaren lan-parametro nagusiak eta artezketa-indarrak [MRDI04]

### 2.1.1. Artezketa lauaren zinematika eta indarrak

Ale baten ibilbidea aztertuz, analisi zinematikoak ebaki-gabeko txirbilaren geometria eta interakzio kopurua zehazten ditu. Artezketan, aldi berean, hainbat ale urratzailek parte hartzen dute. Aleek geometria ezberdina dutenez, halakoa izaten da harrotzen duten material kantitatea. Ondorioz, eskala makroskopikoan eta mikroskopikoan egindako azterketak kalkulu estatistikoetan oinarritzen dira.

2.2. Irudiak artezketa lauaren zinematika erakusten du. Harriak  $z$  ardatzaren inguruan biratzen du  $v_s$  ebaketa-abiaduran. Makinaren orgak aurrera eta atzera mugiarazten du pieza  $v_w$  aitzinamendu-abiaduran.  $a_e$  ebaketa-sakonera, harriak piezan harrotzen duen material kantitatea definitzen du.

Harria eta piezaren arteko elkarrekintzan indarra agertzen da. Indarra hiru osagaietan bana daiteke (2.2. Irudia):  $F_t$  ebaketa-indarra edo indar tangentziala,  $F_n$  indar normala eta  $F_a$  indar axiala. Osagai bakoitzak bere eran eragiten du eragiketean.  $F_t$  ebaketa-indarrak harriarekiko tangentean eta piezaren noranzkoan eragiten du. Bera da potentzia xahutzaile nagusia.  $F_n$  indar normala harriaren gainazalarekiko perpendikularra da. Indar normala tangentziala baino handiagoa izan ohi da. Indar normalaren ondorioz, makinaren ardatz nagusia deformatu, eta  $a$  makinaren kontrolean ezarritakoa baino txikiagoa izaten da  $a_e$  ebaketa-sakonera. Bukaeran sakonerarik gabeko txinparta-itxalketa iraganaldi gehigarriek lortzen dute desiratutako material geruza harrotzea.  $k_m$  makina-harria-pieza sistemaren zurruntasunaren portaera linealtzat hartuz, 2.1 Ekuazioak  $a_e$  ebaketa-sakonera eraginkorra estimatzen du. Hala ere, elementu guztiek ez dute portaera lineala lan-baldintza guztietan [MRDI04]. Azkenik, indar axiala  $F_a$  profil-artezketan edo harriak alboko mugimendua duenean agertzen da.



**2.3. Irudia:** Artezketaren mikro-fresaketa analogia: ondoz-ondoko bi aleen ibilbidea eta ebaki-gabeko txirbilaren geometria [Ald1914]

$$a_e = a - \frac{F_n}{k_m} \quad (2.1)$$


Alor energetikoan, material harroketa are eta eraginkorragoa da ahalik eta energia kantitate txikienarekin egiten bada. Eraginkortasuna ebaluatzeko,  $E_s$  energia espezifiko erabiltzen da alderantzizko neurri gisa.  $E_s$ -k harrotutako bolumen unitateko xahututako energia adierazten du. Artezketara ekarriz, mekanizazio-potentziaren eta denbora unitateko harrotutako material bolumenaren arteko zatiketak definitzen du  $E_s$ . 2.2 Ekuazioak  $E_s$  estimatzen du  $F_t$  indar tangentialaren,  $v_s$  ebaketa-abiaduraren,  $b_w$  piezaren zabaleraren,  $a_e$  ebaketa-sakonkeraren eta  $v_w$  aitzinamendu-abiaduraren funtzioan [MRDI04].

$$E_s = \frac{F_t \cdot v_s}{b_w \cdot a_e \cdot v_w} \quad (2.2)$$

Mikro-fresaketaren analogiak artezketa ulertarazten laguntzen du. Mikro-fresaketaren analogiak ale urratzaile bakoitza ebaketa-sorbaztat hartzen du [Ald1914]. Era honetan, sorbatz bati egindako analisia, harri osora estrapolatzen da. 2.3. Irudiak artezketaren mikro-fresaketa analogia aurkezten du. Irudiak bata-bestearen segidan dauden bi ale urratzailek piezaren gainazalean egiten dituzten ibilbide zirkularrak erakusten ditu. Aleak ibilbidean zeharkatzen duen material bolumenaren geometriari ebaki-gabeko txirbil deritzo. Jasaten dituzten deformazio eta tenperatura handien ondorioz, txirbilek errealtatean geometria oso ezberdina dute [Mal08]. Aleak zeharkatzen duen bolumenetik zati bat piezatik askatu ere ez da egiten, alboetara desplazatuz [ÖC12].

Ondoz-ondoko bi aleen zinematikaren azterketak, txirbil ebaki-gabearen geometria eta kontaktu-luzera definitzen ditu. Kontakuzko luzera (edo txirbil-luzera), harria eta pieza, biak zurruntzat hartuz ondorioztatzen da. Lortutako balioari  $l_g$  kontaktu-luzera geometrikoa deritzo eta soilik  $d_s$  harriaren diametroaren eta  $a_e$  ebaketa-sakonkeraren funtzioan dago (2.3 Ek., 2.3.).

$$l_g = \overline{AB} = \sqrt{d_s \cdot a_e} \quad (2.3)$$



**2.4. Irudia:** Ebaki-gabeko txirbil-geometria alearen zeharkako profilaren arabera: triangeluarra, errektangeluarra eta zirkularra [MRDI04]

Txirbil-lodiera aldagai garrantzitsua da ale mailako artezketa-indarrak eta higadura-portaera aztertzean. Ondoz-ondoko bi aleen ibilbidea aztertuz (2.3. Irudia), 2.4 Ekuazioak ale baten  $h_{cu}$  ebaki-gabeko txirbil-lodiera kontaktu-luzerari zehar definitzen du. 2.5 Ekuazioak, berriz, txirbil-lodiera maximoa  $h_{cu,max}$  estimatzen du  $L$  aleen arteko distantziaren funtzioan. Ohiko adierazpen honen inplizituki txirbil-zabalera handia barneratzen du eta, ondorioz, oso txirbil-lodiera finak aurreikusten ditu. [Row10].

Backer *et al.* [BMS52] arazoa gainditzen dute, aleen sorbatzek zeharkako profila triangeluartzat hartuz eta  $L$  gainazaleko  $G$  ale-dentsitatearekin hurbilduz. Horrela,  $r_{cu}$  ratioa definitzen dute, ebaki-gabeko txirbilaren zabalera eta lodieraren arteko erlazioa ( $b_{cu}/h_{cu}$ ) (2.6 Ek.). Ale urratzaileak piezaren gainean utzitako ildasken zeharkako profilak neurtuz, txirbil-zabalera lodiera baino 8-15 aldiz handiagoa dela baieztatzen dute. 2.6) Ekuazioa beste ale profiletara ere molda daiteke, hala nola, txirbil errektangeluarrera [Mal08]. 2.7 Ekuazioak hurbilpen hori aurkezten du,  $r_{cu}$   $b_{cu}$  txirbil-zabalerarekin berdinduz. Era berean, 2.8 Ekuazioak, berriz,  $h_{cu,max}$  adierazpena sorbatz zirkularrentzat egokitzen du [CR96]. Lan honetan, adierazpen horretako ale diametroa, zorrotasuna deskribatzen duen  $\rho_s$  sorbatz-erradioagatik ordezkatu da (ikusi 2.1.3. Atala). 2.4. Irudiak ebaki-gabeko txirbil-geometriak alearen profilaren (triangeluarra, errektangeluarra eta zirkularra) arabera erakusten ditu.

$$h_{cu} = L \frac{v_w}{v_s} \sin \theta \quad (2.4)$$

$$h_{cu,max} = 2L \frac{v_w}{v_s} \sqrt{\frac{a_e}{d_s}} \quad (2.5)$$

$$h_{cu,max} = \sqrt{\frac{6v_w}{Grv_s}} \sqrt{\frac{a_e}{d_s}} \quad (2.6)$$

$$h_{cu,max} = \frac{2v_w}{Gr_{cu}v_s} \sqrt{\frac{a_e}{d_s}} \quad (2.7)$$

$$h_{cu,max} = \left[ \frac{15v_w}{8Grv_s} \sqrt{\frac{a_e}{2\rho_s d_s}} \right]^{\frac{2}{3}} \quad (2.8)$$

Formula hauetan,  $v_w$  eta  $v_s$  aitzinamendu- eta ebaketa-abiadurak dira,  $\theta$  posizio angelua,  $a_e$  ebaketa-sakonera eta  $d_s$  harriaren diametroa. Txirbil-lodieraren aldaketa lineala da kontaktu-luzeran zehar, zerotik balio maximora ( $h_{cu,max}$ ). Ale-profil triangeluarrak zirkularrak baino txirbil lodiagoak aurreikusten ditu.


Rowek bere liburuan [Row10]  $h_{cu}$  adierazpenak moldatzen ditu harriaren deflexioa kontuan hartzeko. Kontaktulu-geometria erabilera zuzentzen du kontaktu-luzera ratioa ( $l_c/l_g$ ) ekuazioetan barneratuz; horrek  $h_{cu}$  murrizten du.

### 2.1.2. Diamantaketa

Azterketa-harria jardunean higituz doa. Gainera, piezatik harrotutako txirbilek harriaren gainazaleko hutsuneak betetzen dituzte, txirbila sortzeko beharrezkoa den lekua murriztuz. Harriaren gainazalaren prestaketa bi eragiketen esku dago, harriaren geometria (*truing*) eta aleen ebakitzeko ahalmena (diamantaketa, *dressing*) berreskuratzeko. Ingelesez bi eragiketa horiek bereizten diren arren, euskarak, ohiko aplikazioetan biak aldi berean egiten direnez, biak diamantaketa izendatzen ditu. Diamantaketa erreminta diamantezkoa izan ohi da, baina boro nitruro kubikoa (CBN), silizio karburoa eta burdinurtua ere erabiltzen dira. Diamanteak naturalak edo sintetikoak, eta, kristal-bakarrak edo kristal-anitzak izan daitezke.

Diamantaketa aldaerak zinematikaren arabera sailkatzen dira: diamantaketa finkoa eta birakaria. Disko birakaria finkoa baino eraginkorragoa da. Diamantaketa birakarian, diamanteek harrian eragindako talka-kopuru handiak aitzinamendu azkarragoak ahalbidetzen ditu. Diamante finkoak punta-bakarrak edo -anitzak izan daitezke. Aurreko arrazoi berdinetatik, aitzinamendu azkarragoak erabili daitezke diamante punta-anitzekin punta-bakarrekin baino. Aldiz, diamante punta-bakarrekin diamantatzean, parametro zinematikoak eta diamantearen geometria ezagunak dira eta kontrolpean daude. Horrek oinarritzko diamantaketa-mekanismoen azterketa ahalbidetzen du, ikertzaileen arreta irabaziz. Gainera, diamante punta-bakarra oso erabilia da industrian. Horregatik tesi honetan garatutako ereduak diamantaketa finko punta-bakarrera mugatu da. Jarrantutako metodologia, aurrerago diamante anitzetara eta birakarietara moldatu ahal dira.

2.5. Irudiak diamante punta-bakarrekin diamantaketa finkoaren zinematika erakusten du. Mugimenduak torneaketaren antzekoak dira: aldagai nagusiak  $a_d$  diamantaketa-sakonera eta  $f_d$  diamantaketa-aitzinamendua dira. 2.9 Ekuazioak  $f_d$  definitzen du, 2.10 Ekuazioak, berriz,  $u_d$  teilakapen-ratioa [Mal08]. Ekuazio hauetan  $d_s$  harriaren diametroa da,  $v_d$  diamantaketa abiadura axiala eta  $b_d$  harriaren eta diamantearen kontaktu-zabalera  $a_d$  sakonera.  $u_d$ -ren eta  $a_d$ -ren konbinaketak diamantaketaren intentsitatea adierazten du, eta intentsitateak, lortutako gainazalaren irekitasuna.  $u_d$  balio txikiek (< 2-3) gainazal irekiak lortzen dituzte; balio altuek, berriz, ( $u_d > 7-10$ ) gainazal itxiak. Nolanahi ere, balio horiek diamantearen erradioaren eta ale-neurriaren menpekoak ere badira.



**2.5. Irudia:** Bi irudiek diamantaketa finkoaren zinematika erakusten dute: (a) harria biratzen eta diamantea zeharka mugitzen; (b) ebaketa-sekzioaren detailea [MRDI04]


$$f_d = \frac{\pi d_s v_d}{v_s} \quad (2.9)$$

$$u_d = \frac{b_d}{f_d} \quad (2.10)$$


### Diamantaketa-mekanismoak

Marruskadura dinamikoak eta urratzaile-aglomeratzaile haustura hauskorrak diamantaketaren analisia zailtzen dute. Literaturan, adostasuna da nagusi diamantaketa-mekanismoak eta honen emaitzak deskribatzean. Egile gehienek [PA54, Vic70, MC71, Bha74, Che95, Hes03, MRDI04, KL08] 2.6. Irudiak azaltzen dituen bi mekanismo nagusiak aipatzen dituzte: eragindako pitzaduren ondorioz urratzaile haustura, eta ale osoak askatzen dituen aglomeratzaile-zubien haustura. Klockek eta Linkek [KL08] bigarrena bitan banatzen dute: alea urratzaile-aglomeratzaile interfazetik askatzea eta aglomeratzaile-zubiaren haustura. Nolanahi ere ondorioa berdina da: alea askatzen da. Diamantearen talka-sekzioak, -kopuruak eta -intentsitateak gainazaleko ale urratzaileen forma eta sorbatzen egoera baldintzatzen dute [BC95].

Pahlitzsch-ek eta Brunswick-ek [PA54], eragiketa sinplifikatu nahian, diamanteak urratzaileak era harikorrean mozten dituela proposatzen dute. Haztagailuz egindako topografia neurketetan, diamantearen ibilbidearen aztarnarik ezin da antzeman. Piezaren gainazalean, berriz, helizearen arrastoak zimurtasunean islatzen dira [BCP72],  $f_d$  diamantaketa-aitzinamenduaren funtzioan. 2.7. Irudiak diamantaketaren ondorioak erakusten ditu. Emaitza, haustura handi eta mailakatze (*levelling*) efektuen konbinaketa da. Oliveira *et al.* [OBF10]



**2.6. Irudia:** Ale haustura eta aglomeratzaile-zubi haustura [Mal08]



**2.7. Irudia:** Diamanteak ondoko ondoko hainbat planotan kokatutako aleetan sortutako profilak [CR96]

fenomeno horretaz baliatzen dira, piezaren gainazalean zimurtasun-testura jakinak lortzeko. Horretarako, diamantea kitzikatzaile elektromekaniko bati lotu, eta zenbakizko kontrolaren seinaleak patroia jakin batzuk sortzen ditu harriaren gainazalean.

Malkin-ek eta Cook-ek, harriaren higaduraren azterketa zabalaren barnean, diamantaketan jasotako partikulen neurri-banaketa aztertu dute [MC71, Mal08]. Partikula denek dute aleak baino neurri txikiagoa eta, pisu proportzioan, tamaina handienekoak dira urratzaile harroketaren erantzule nagusia. Horrela, diamantaketa bi etapetan gertatzen dela ondorioztatzen dute: ale urratzaileak apurtuz doaz eta, neurri kritiko bat lortzean, aglomeratzailetik askatzen dira. Gradu gogorragoko harrietan ale haustura gehiago bultzatzen da, loturak gogorragoak baitira. Ale-neurri txikietan berriz, lotura-zubietatik askatzea ohikoagoa da, urratzaileak zailtasun handiagoa baitauka.

Bi etapen prozesuak inspiratuta, diamantaketan aleak askatzeko duen probabilitate-eredua garatzen dute. Abiapuntua, aglomeratzailetik askatutako urratzaile proportzioa da, hau da, gainazalaren irekitasuna. Ereduak diamantaketak sortutako gainazalaren irekitasuna estimatzen du. Horretarako bi parametro berri proposatzen ditu:  $d_b$  batz besteko askatze ale-neurria eta  $B$  aglomeratzailetik askatutako urratzaile proportzioa pisuan.  $d_b$ -k diamantaketak sortutako kaltearen sakonera islatzen du. 2.11 Ekuazioak bi kontzeptuak erlazionatzen ditu, non  $d_g$  batz besteko ale-neurria den. Erro kubikoa, eredu hiru dimen-

tsiotan garatzen delako azaltzen da.  $G_o$  ale-dentsitate maximoa, plano batek harria moztean zeharkatzen duen ale kopurua da. 2.12 Ekuazioak  $G_o$  estimatzen du  $V_g$  urratzaile frakzioaren funtzioan. Diamantearentzat eskuragarri ez dauden aleak aglomeratzaile hausturagatik askatu direla pentsatuz, 2.13 Ekuazioak  $G_{\text{dyn}}$  ale-dentsitate dinamikoaren eta  $G_o$  maximoaren arteko erlazioa definitzen du. Ekuazioak  $G_{\text{dyn}}/G_o$  erlazioa, dimentsio batean diamantagarria den luzeraren eta ale-neurriaren arteko erlazioarekin estrapolatzen du. 2.11 Ekuazioa 2.13 Ekuazioan ordezkatzuz,  $G_{\text{dyn}}$ ,  $G_o$  eta  $B$  aldagaien arteko erlazioa lortzen da.

$$d_b = B^{1/3} d_g \quad (2.11)$$

$$G_o = \frac{6V_g}{\pi d_g^2} \quad (2.12)$$

$$\frac{G_{\text{dyn}}}{G_o} = \frac{d_g - d_b}{d_g} = 1 - B^{1/3} \quad (2.13)$$

Berez,  $G_{\text{dyn}}$  diamantatzeko eskuragarri dauden aleen sakoneran ( $d_g - d_b$ ) neurtu beharko litzateke. Aldiz, Malkinek eta Cookek  $G_{\text{dyn}}$  balioa arteztean aleen higadura-planoen isla kopurua zenbatuz hurbiltzen dute, nahiz eta harria piezarekin kontaktuan deformatu. Diamantaketa-partikulen neurri banaketaren azterketatik  $d_b$  nola ondorioztatzen den ez dute zehazten. Hala ere, eredia topografia neurketa soilarekin aplikatu daiteke, diamantaketa-partikulen neurri-banaketa azterketen beharrik gabe. Nolanahi ere, diamantaketa-partikulen neurri-banaketa azterketa bereziki interesgarria da diamantaketa-mekanismoen analisirako.

Chen-ek bere tesian [Che95], ale-askatzea diamantaketa-indarren ikuspuntutik aztertzen du. Alea askatzeko, diamantaketa-indarrak lotura-zubien erresistentzia gainditu behar du, harriaren graduarekin lotura duena. Froga esperimentalen bidez ondorioztatzen du  $F_d$  diamantaketa-indarrak bi osagai dituela: haustura-indarra  $F_f$  eta marruskadura-indarra  $F_r$ . 2.14 Ekuazioak Chenen eredia aurkezten du, non  $\sigma_s$  harriaren erresistentzia,  $A_d$  diamantaketa-sekzioa,  $a_d$  sakonera eta  $f_d$  aitzinamendua diren (2.5. Ir.).

$$F_d = F_f + F_r = \sigma_d \cdot A_d + F_r = \sigma_d \cdot a_e \cdot f_d + F_r \quad (2.14)$$

$\sigma_s$  harriaren erresistentzia,  $F_d$  neurketa esperimentalen maldak aztertuz estimatzen da. Aleak iraungo du, baldin eta  $F_d$ -k alearen euste indarra  $F_g$  (2.15 Ek.) gainditzen ez badu.  $A_g$  harriaren irauten duen alearen sekzioa da. Ereduek ale-askatze frakzio txikiak lortzen ditu.  $\sigma_s$  definitzea erraza izan arren, ereduak ez dauka erlazioz gainazal topografiarekin.

$$F_g = \sigma_s \cdot A_g \quad (2.15)$$

Torrance-k eta Badger-rek [TB00] diamantaketa-iraganaldia iraungo duen ale frakzioaren  $f$  eredia garatzen dute ale-dentsitatea  $G_{\text{dyn}}$  estimatzeko (2.16 Ek.). Beraien ereduak diamantaketa-baldintzak ( $a_d$  diamantaketa-sakonera,  $f_d$



aitzinamendua eta  $\rho_d$  diamantearen puntaren erradioa) eta harriaren ezaugarri mekanikoak ( $F_o$  aglomeratzaile-zubien erresistentzia karakteristikoa eta  $\sigma_c$  urratzailearen zapaltze-erresistentzia) erabiltzen ditu. Osoagoa da eta faktore bakoitzaren pisuak diamantaketaren intentsitatea definitzen du. Hala ere, zaila da aglomeratzailearen eta urratzailearen erresistentzia ezaugarriak definitzea. Gainera, eredu honek ere ez dauka gainazal topografiarekin erlaziorik.

$$f = \frac{42\sigma_c d_g f_d}{F_o \sqrt{\rho_d}} \quad (2.16)$$

### 2.1.3. Harriaren gainazal topografia

Harriaren topografia, gainazaleko geometria eta ezaugarriak deskribatzen dituen arloa da. Diamantearen eta geruza urratzailearen arteko interakzioaren ondorio da gainazal topografia.

Makro- eta mikro-topografia, bakoitza bere ikuspuntutik, biak dira garrantzitsuak. Harriaren oinarriko geometriak (normalki zilindrikoa) makro-topografiarekin dauka lotura eta piezan sortutako gainazalaren desbideratzetan eragiten du. Mikro-topografia, berriz, artezketaren eraginkortasunarekin lotzen da; besteak beste, piezaren gainazalaren zimurtasunean, xahututako energian, harroketa-ratioetan, zorrotasunean eta harriaren bizitzan eragiten du. Mikro-topografiak zehazten ditu sorbatzen zorrotasuna eta banaketa (gainazal irekitasuna edo aleen arteko distantzia eta sakonera). Harriaren topografiak honako faktore hauen eragina jasotzen du: ale-neurria, harriaren egitura (urratzaile frakzio bolumetrikoa), diamantaketa-baldintzak eta urratzaileak arteztean jasandako higadura. Harrien ezaugarrien konbinaketak anitzak dira eta, ondorioz, haien gainazalek ere aniztasun hori islatzen dute. Topografia deskribatzen duten aldagaiak eta ezaugarriak 2.3.2. Atalean deskribatzen dira, topografia-ereduekin batera.


### Topografia neurketa teknikak

Neurketa-teknikek lotura zuzena dute neurtu beharreko parametroekin eta karakterizatu nahi den gainazalaren konplexutasunarekin. Aldiro gaiari buruzko berrikusketa-artikuluak argitaratu izanak, harriaren topografia neurtzeko metodoek duten interesa erakusten du [Ver77, Sha96, MRDI04, Dar13]. Gainazalak antzemateko metodoak neurketa zuzenak eta ez-zuzenak multzotan sailkatzen dira [MRDI04]. Metodo zuzenak, harriaren gainazala zuzenean behatzen duten metodo fisikoak dira: haztatze-teknikak, sistema optikoak eta elektronikoak. Metodo ez-zuzenek, topografiaren ondorioak era ez zuzenean aztertzen dituzte, indarrak, potentzia, tenperaturak edo zarata neurtuz. Era berean, neurketa-teknikak estatikoak edo dinamikoak izan daitezke. Estatikoetan, harria geldidagoela egiten da neurketa, profilaren trazak antzemanaz (haztatzea, mikroskopia optikoa edo elektronikoa, ikatz-papera). Dinamikoek, berriz, soilik artezketan parte hartzen duten aleak kontatzen dituzte. Dinamikoetan harria hutsean


biraka (emisio akustikoak), artezten (termoparea, bizar-xafla) edo arteztu ondoren geldi dagoela (argi islatua higadura-planotan) neurtzen da.

Topografia, parametro bakarraren edo hainbat parametroren bidez karakterizatu daiteke, ereduaren dimentsioarekin bat eginez (1D, 2D eta 3D). Parametro bakarrak, adibidez ale-dentsitateak, zorrotasunak edo higadura-plano ehunekoak (*wear flat*), gainazalari buruzko informazio interesgarria eskaintzen du. Neurketa-metodo ez-zuzen dinamikoek gainazalaren irekitasuna ebaluatzen dute, ale-dentsitatea definituz. 2D eta 3D neurketek topografia era deskriptiboagoan azaltzen dute: 2D-ak zeharkako ebaketaren profila atzematen du; 3D-an, berriz, topografia gainazal-funtzio batez erreproduzitzen da, atzemandako datuak interpolatuz. 2D eta 3D gainazal-neurketak 1D parametroak definitzeko erabiltzen dira, hala nola, ale-dentsitatea, sorbatzen sakonera eta zorrotasuna. Dimentsio fraktalen bidez ere deskribatu daitezke harrien gainazalak [Lia95]. Hala ere, dimentsio fraktalak ez dauka erlazio zuzenik urratzaileen ezaugarriekin eta, hortaz, ez du gainazalaren artezteko ahalmena adierazten [HS95].

Verkerk-ek, CIRPek lankidetzan egindako lanean [Ver77], ordura arteko topografia neurketa-metodoak biltzen eta alderatzen ditu. Lan haren ondorioetako bat da, ale berdinari dagozkion sorbatzak edo oso gertu dauden aleen artean daudenak, sorbatz bakartzat har daitezkeela. Ebaketa-sorbatzak hain gertu egotean, beraien artean ez dago txirbila sortzeko beharrezkoa den tartea. Horrela, sorbatz-dentsitatean arreta ipini beharrean, soilik ale-dentsitatea kontuan hartzea gomendatzen du. Era horretan, ale urratzaileak material harroketan duten parte-hartzearen arabera sailkatzen ditu: ale estatikoak eta ale dinamikoak (edo zinematikoak, edo aktiboak). Ale estatikoak, tontorraren sakoneraren arabera definitzen dira. Aldiz, tontor arteko distantziak eta aleen deflexioak baldintzatzen dute ale dinamikoen parte-hartzea harroketan. 2.8. Irudiak ale estatikoen eta dinamikoen arteko aldea agertzen du [Klo09]:  $v_s/v_w$  abiadura-erlazioaren arabera, ale bereko edo oso gertu dauden sorbatzek ez dute lekurik txirbila sortzeko. Irudiak ez du aleen deflexioaren efektua deskribatzen. Haztatze 2D profil neurketak nagusitzen dira  $L_{st}$  aleen arteko bataz besteko distantzia estatikoa definitzean.  $L_{st}$ , eredu enpirikoak aplikatuz,  $G_{st}$  ale-dentsitate estatikoa estimatzeko erabiltzen da. Ikatz-paper teknikak ere  $G_{st}$  neurtzen du, diaman-tatu berria den harria ikatz-paper gainean biratzean utzitako arrasto kopuruak kontatuz. Hala ere, ikatz-paperarekin ezin da  $G_{st}$  sakonerarekiko zehaztasunez atzeman. Bestalde, higadura-planoen kontaketa eta bizar-xafla metodo dinamikoak dira parametro dinamikoak neurtzeko metodo nagusiak. Bizar-xafla metodoan, xafla estu bat arteztean aleek sortutako  $N_c$  indar-tontorrek kontatzen dira. Horrela,  $L_{dyn}$  (2.17 Ek.) eta  $G_{dyn}$  (2.18 Ek.) estimatzen dira  $N_c$  alderatzean  $v_s$  ebaketa-abiadurarekin eta  $t_c$  kontaktu-denborarekin [BS74]. Ekuazio horietan  $b_s$  bizar-xaflaren (edo piezaren) zabalera da. Metodoa, ale-pieza kontaktua detektatzean seinale bat igortzen duen edozein metodorekin aplikatu daiteke, hala nola, aplikatutako potentzial-iturriarekin (*applied power source*, APS). Artezketan sortutako txirbilak bilduz eta kontatuz ere  $G_{dyn}$  estimatu ahalko litzateke, baina piezarekin kontaktuan dauden ale guztiek ez dute materiala harrotzen.



**2.8. Irudia:** Sorbatzen arteko distantzia estatikoaren eta dinamikoaren ( $L_{st}$ ,  $L_{dyn}$ ) definizioa abiadura-erlazioaren ( $v_s/v_w$ ) arabera [Klo09]



**2.9. Irudia:** Sorbatzen zorrotasunaren karakterizazioa: (a) sorbatzaren hurbilpena  $\rho_s$  erradioko zirkunskribatutako zirkunferentziarekin [Mas52], (b) geometria jakina duen sorbatzaren analogia ebaketa-angeluen bidez [Klo09], eta, (c) proiektio horizontalen eta bertikalen arteko erlazioak [DPS02]

$$L_{dyn} = \frac{t_c v_s}{N_c} \quad (2.17)$$

$$G_{dyn} = \frac{N_c}{t_c v_s b_s} \quad (2.18)$$

Zorrotasunak, sorbatzek edo tontorren geometriak materiala harrotzeko duten gaitasuna ebaluatzen du, eta higadurarekin ere lotura du. Tontorrek eta horiek gainazalean duten banaketak urraduran duten ekarpena, artezketaren alderdi iluna, baina interesgarria osatzen dute, nagusiki erakusten duten aldakortasunagatik. Hainbat hurbilpen proposatu dira ebaketa-sorbatzen zorrotasuna karakterizatzeko (2.9. Ir.); besteak beste, biribiltasun gradua edo sorbatzerradioa, ebaketa-angeluak, eta, kono-doikuntza analisisa edo proiektio-ratioa.


Lehen biak literaturan aipatuak izan dira diamantatutako ohiko harrietan zorrotasuna definitzerakoan. Sorbatz-erradioak zorrotasuna, tontorrean zirkunskribatutako zirkuluaren  $\rho_s$  erradioarekin adierazten du (2.9.(a) Ir.) [Mas52].  $\rho_s$ -k higadura islatu dezake ale-neurriarekiko biribiltasun-graduarekin, tontorraren eskalarekin eta urradura-sakonerarekin. Diamantatutako harrietan tontorraren aukeraketa begi bistakoa da, irtenena; baina tontorraren erradioa zehazteko irizpideak lausoak dira. Zorrotasunaren bi definizio proposatu dira: alearen eta sorbatzaren diametro erlazioa ( $d_g/(2\rho_s)$ ) [BT93], eta, ebaki-gabeko txirbilodieraren eta zorrotasun erradioaren arteko zatiketa ( $h_{cu}/\rho_s$ ) [Klo09].

Sorbatza geometria jakina balu bezala ere deskriba daiteke, torneaketan eta fresaketan antzera. Horrela, jaulkitze- eta azpijan-angeluak ebaketa-sorbatza definitzen dute (2.9.(b) Ir.). Arteketa harrietan,  $\alpha$  jaulkitze-angeluren batz besteko balioa [Klo09] edo malda [TB00] nahikoa da zorrotasuna karakterizatzeko. Higaduraren efektua ere eredura gehitu daiteke higadura-planoa gehituz. Ohikoak dira jaulkitze-angelu oso negatiboak arteketan ( $> 60^\circ$ ). Angeluen definizioan ere ez dago adostasunik erreferentzia sakonera aukeratzean.

Kono-doikuntza analisisan, proiektzio horizontalaren eta bertikalaren arteko ratioak ( $\Lambda/\Omega$ ) definitzen du zorrotasuna (2.9.(c) Ir.). Balio hori sakonerarekiko eta alearen orientazioarekiko aldatzen da. Teknika hau arrakastaz erabili da ale urratzaile osoen zorrotasuna karakterizatzeko, CBN eta diamante aleentzat. Aldiz, ez da aplikatu diamantatutako alumina harrietan [DPS02]. Diamantatutako gainazalek patroi jakin bat jarraitzen dutenez, ikerketa-ildo interesgarria izango litzateke kono-doikuntza analisisa beiratzatutako alumina harrietara zabaltzea.

Nahiz eta zorrotasuna arteketa-errendimenduan parametro garrantzitsua izan, bere neurketa esperimentalak gutxi deskribatu da literaturan. Lal-ek eta Shaw-ek [LS75]  $\rho_s$  neurtzen dute, ale bakarrak sortutako arrastoaren zeharkako zabalera-sakonera erlazioa aztertuz.  $\rho_s$ -n sakonerak soilik eragiten duela baieztatzen dute. Bestalde, aitzinamendu- eta ebaketa-abiadurek, pieza materialak eta hozgarriak ez dute eragin nabarmenik  $\rho_s$ -n.  $\rho_s$  balio altuak antzematen dituzte, 75 - 500  $\mu\text{m}$  artean. Ziur aski balio altu horiek, ale bakarraren frogak diamantatutako aleen ezaugarriak erreproduzitzen ez dituelako agertzen dira.

$\rho_s$  eta sorbatz-malda, haztatze 2D profilak aztertuz ere neurtu dira [KL75, BT93]. König-ek eta Lortz-ek [KL75] harriaren perimetroaren bosten bat haztatzen dute, neurketa-luzera adierazgarria lortuz. Ez dute zorrotasuna zuzenean definitzen, baina ebaketa-sorbatzen eta gainazaleko aleen batz besteko profilak aurkezten dituzte (2.10.(a,b) Ir.). Sorbatz-profilek  $\rho_s$  eta  $\alpha$  erraz estimatzea ahalbidetzen dute; ale-profilek, berriz, gainazal laua erakusten dute diamantearekin izandako elkarrekintzaren ondorioz (ikusi 2.1.2. Atala). Brenner-ek eta Torrancek [BT93] gainazalaren hainbat 2D profil aztertuz, sakonerarekiko sorbatzen maldak eta kurbadurak ( $1/\rho_s$ ) neurtzen dituzte. Emaitzak, arteketa-indarretan zorrotasunak duen eragina aztertzeke erabiltzen dira. Indar-frogen ondoren, harria azetonan bustita pasarazten da azetato laminen gainetik gainazal topografia erreplika lortzeko. Ondoren, azetato laminetan profila haztatzen da. Maldaren balioak bermazal-ratioarekin aldatzen dira. Kurbadura maximoak, aldiz, tontorretan antzematen dira, sakoneran barneratzean txikitzen de-



**2.10. Irudia:** (a) Ebaketa-sorbatzen eta (b) gainazaleko aleen batz besteko profilak [KL75]; (c) arteztu ondoren behatutako tontorren malda eta kurbatura bermazal-ratioaren funtzioan [BT93], eta, (d) tontor malda diamantaketa-baldintzen funtzioan [BT00]

larik (2.10.(c) Ir.). Beste lan batzuk ere, malda sakonerarekin erlazionatzen dute haztagailuz 2D profil neurketa zuzenak eginaz [Sha96, BT00, TB00]. 2.10.(d) Irudiak aurkezten ditu maldaren aldaketak sakonerarekiko eta diamantaketa-baldintzekiko [BT00]. Hiru diamantaketa-baldintzek hasieran antzeko malda kamutsa erakusten dute. Baina nahikoa da azaleko sakoneran barneratzea, maldetan hazkuntza bortitzak antzemateko. Diamantaketa larriaren malda zertxobait handiagoa da sakonera txikietan, ale-dentsitatearekin batera, material harroketa errazten duena. Sakonera batetik aurrera ( $12 \mu\text{m}$ ) hiru baldintzek bat egiten dute malda konstantea bihurtuz. Neurketa guzti horiek ausazko 2D profil neurketetatik datoz, haztagailua tontorrekin lerrokatuta egon beharrik gabe.

Inork ez ditu konparatu ale bakarraren frogen arrastoen [LS75] eta 2D profilen [BT93]  $\rho_s$  neurketen emaitzak. Lehenak alearen ondorioak neurtzen ditu arrastoaren zabaleraren arabera, bigarrenak berriz zuzenean gainazaleko 2D profilak ebaketa-noranzkoan.

3D topografia neurketak (mikroskopia optikoa, 3D haztatzea, ekortze mikroskopia elektronikoa (*scanning electron microscope*, SEM), berriz, harriaren gainazal zatiak behatzen ditu, nabardura ia guztiak jasoaz [DWB13]. Eskaintzen duen informazio gordina, batez ere 1D parametroak definitzeko eta 2D zeharkako profilak lortzeko erabiltzen da. Kontaktu-zurruntasunarekin lotura


estua duten gainazalaren bermazal-kurbak ere eskaintzen dituzte. Informazio gordina piezaren gainazal zimurtasuna aurreikusten duten eredu zinematikoen sarrera ere bada [WZ98]. Harriaren gainazaleko hutsuneek eta malda pikoek 3D neurketetan arazoak sortzen dituzte. Gainera, mikroskopia optiko fokukideak argi islatzeekin arazoak ditu, helburu den gainazaletik kanpo dauden puntuak antzemanaz. Datu-tratamendu softwareak konpontzen ditu arazo horiek, interpolazioz 3D gainazala sortuz. Beharrezkoa den lagin tamaina txikiak eta harriaren gainazal irekiak, SEM teknikaren zabalpena mugatzen du artezketa arloan.

Kontaktu-gabeko teknika optikoen artean autofocus sistemak, argi zuriko interferometroak eta mikroskopia fokukideak daude. Inasaki-k [Ina96] objektuan islatutako argiaren intentsitatean oinarritutako autofocus teknika erabiltzen du. Horrela, foku-distantziak sorbatzen altuera definitzen du. Yan-en eta Darafonen lantaldeek [YRJZ11, DWB13] argi zurizko interferometroarekin neurtzen dute harriaren gainazala. Argi zuriaren islapenaren eta erreferentzia mugikorren arteko interferentzia patroia aztertuz zehazten da puntu baten altuera. Zhang-ek *et al.* [ZXF06] mikroskopia optiko fokukidea aplikatzen dute, leku ezberdinetatik hartutako eremu berdinen bi argazki alderatuz. Puntuen altuera triangelaketa bidez kalkulatu da. Gainazalak gutxienez % 15-eko islapena izan behar du, baina gehiegizko islapenak ere arazoak sortzen ditu. Ezaugarri nagusiak bereizmen bikaina (0,1 nm) eta sakonera tarte zabalak dira.

Ohikoa da, kontaktu-gabeko tekniken neurketa-bolumen txikia dela eta, gainazalaren erreplikak edo lagin prestaketa suntsitzaileak behar izatea. Darafonek *et al.* [DWB13] gainazala harriaren diametro osoan neurtzea lortu dute neurri-egindako tresneriarekin. Lagina handia denez, lortutako emaitzak esanguratsuak dira, hala nola, bermazal-kurba, ale-dentsitatea eta ale arteko distantzia fidelki atzemanaz. Teknika ez da sentikorra azaleko sakoneretan, nahiz eta behe-pasuko iragazkia aplikatu. Hala ere, lortutako emaitzek harriaren gainazal-topografiaren ausazko natura islatzen dute.

Gainazalaren erreplikak islatze arazoak saihesten ditu. Baina errepliken erabilera nagusiki neurri arazoek edo gainazal-aldaketak monitorizatzeko harria makinatik askatu ezinak bultzatzen dute [MRDI04]. Erreplikaren materiala konposatu plastikoa edo metal biguna izan ohi da. Erreplika materiala konposatu plastikoa bada, harrian aztertu nahi den eremuan aplikatzen da. Behin onduta, aztertu nahi den gainazalaren negatiboa lortzen da. Negatiboa molde gisa erabiliz, positiboa lortu daiteke antzeko konposatuarekin. Bai erreplika negatiboa, baita positiboa ere, biak haztagailuz edo mikroskopia optikoz aztertu daitezke lagin neurriaren arazoak saihestuz. Harriekin arrakastaz honako konposatu plastikoak aplikatu dira: urean oinarritakoak [Eck96], epoxi erretxinak [Geo79] eta bi kautxuzko konposatuak [CR04]. Erreplika materiala bigunegia bada ezin da haztagailuz neurtu. Ale neurria 80 baino handiagoa bada, gainazaleko hutsuneak ere handiak dira eta erreplika puskatzen da ateratzean. Berun biguna gainazalean kontra sakatuz ere erreplikak lortzen dira [BBR80]. Aplikazio indarraren eta denboraren kontrol zorrotza eskatzen du teknika horrek.

Aacheneko RWTHn diamantatutako CBN harri-laginak lortzeko ordezkoko harria edo *dummy wheel* teknika garatu da. 2.11. Irudiak ordezkoko harriaren ar-



**2.11. Irudia:** Ordezko harria edo *Dummy wheel* eta CBN harri lagina (Iturria: RWTH Aachen)

gazkiak erakusten ditu. Laginen neurria egokia da edozein neurketa-tresnetan behaketa zuzenean egiteko, SEM barne. Teknika honen desabantaila artezten aritu diren laginak ezin direla lortu da, hau da, higadura eta txirbilak ezin dira aztertu. Hala ere, ez dago higadura atzeman dezakeen erreplika teknikarik.


## 2.2. Artezketa kontaktu-luzera

Sarreran azaldu da artezketa lauan,  $b_s$  harriaren zabalerak eta  $l_c$  kontaktu-luzerak definitzen dutela kontaktu-azalera (2.12.(a) Ir.). Ia kasu guztietan  $b_s$  konstante mantentzen denez, kontaktu-eremua zuzenean kontaktu-luzeraren baitan definitzen da. Zinematika berrikustean,  $l_g$  kontaktu-luzera geometrikoa harria eta pieza, gainazalak leuntzat eta solidoak zurruntzat hartuz ondorioztatu da (2.3 Ek.). Hala ere, froga esperimentalek  $l_c$ ,  $l_g$  baino 1,5 eta 3 aldiz luzeagoa dela erakutsi dute.

Artezketan, aleen eta piezaren arteko interakzioan sortutako indarrek harria-pieza bikotea deformatzen dute, kontaktu-luzera handituz. 2.12.(b) Irudiak kontaktu-eremuan biltzen diren efektuak erakusten ditu. Alde batetik, harria eusten duen makinaren burua makurduraren ondorioz deformatu eta, ondorioz,  $a_e$  iraganaldi sakonera eraginkorra  $a$  agindutakoa baino txikiagoa da. Horrek kontaktu-luzera zuzenki murrizten du. Bestalde, jasandako indarren ondorioz harria era elastikoan deformatzen da kontaktu-luzera luzatuz. Brown-ek *et al.* [BSS71] piezaren deformazio elastiko berreskuragarriak eta deformazio plastiko iraunkorrak bereizten dituzte, harriak indar-banaketa berdina jasaten baitu. Hiruen konbinaketak itxurazko kontaktu-luzera handitzen du.

Artezketan kontaktua ez-konformea da, eta gainera, soilik materiala harrotzen duten sorbatzak daude kontaktuan. Beraz, itxurazko kontaktu-azalera da 2.12.(a) Irudiak definitzen duen eremua. Artezketa arloan hainbat egilek itxurazko  $l_c$  kontaktu-luzerari *kontakto-luzera erreala* deritzote, nahiz eta tribologia ikuspuntutik izendapen hori oker egon. Lan honetan  $l_c$  sinpleki *kontakto-luzera* deituko da.

Kontaktu-luzera neurketa esperimentaletatik, honako faktoreak nabarmendu



**2.12. Irudia:** (a) Kontaktu-luzeraren definizioa artezketan [MRDI04]; (b) deformazioak harria-pieza interfasean [BSS71]

dituzte hainbat egilek [GW88, ZV92, QRM97b]:

- artezketa lehorrean kontaktu-luzera motzagoa da hozgarria erabiliz baino, marruskadura jaisten baita,
- aitzinamendu-abiadura azkarragoek kontaktu-luzera handitzen dute indar normalen handitzearen ondorioz,
- ebaketa-abiadura azkarragoek kontaktu-luzera arinki laburtzen dute,
- harriaren diametroa handitzeak kontaktua luzatzen du,
- ebaketa-sakonera, artezketa-indarrak eta tenperatura handitzeak (hirurak erlazionatuak daude)  $l_c/l_g$  ratioa handitzen du, eta,
- harriaren gainazala leuntzean (diamantaketa-baldintza finak, ale-neurri txikia, higadura, kamustea edo kargatzea), indar normala handitu arren, kontaktu-luzera murrizten da.

### 2.2.1. Kontaktu-luzera ereduak

Gaur egun arte argitaratutako kontaktu-luzera ereduak, ikuspuntu enpirikotik eta erdi-analitikotik heldu dute arazoa. Eredu enpirikoak dira sinpleenak [ZV92, STH83, ZV92]. Lindsay-ek [Lin71] malguki-eredua proposatzen du. Eredu erdi-analitikoak [SS74, KS81, ZSNW93a] partzialki Hertzzen mekanikan oinarritzen dira: gainazal leunak eta kontaktu elastikoa. Eredu erdi-analitiko batzuk pausu bat aurrera ematen dute kontaktua bi eskaletan aztertuz [BSS71, RMQZ93, HWCC11]: alea-pieza eta harria-pieza eskalak. 2.1. taulak artezketa kontaktu-luzera eredu nagusiak biltzen ditu.

Maris-ek [Mar77] aurkeztu du lehen eredu enpirikoa,  $l_c$ -ren adierazpena  $a_e$  ebaketa-sakonerearekiko eta  $v_s/v_w$  abiadura-ratioarekiko doituz. Ereduak aplikazio-eremu mugatua dauka, ez baititu topografiaren ezaugarriak eta harriaren zurruntasunak kontuan hartzen. Salje-ren *et al.* [STH83] ereduak, ebaketa-sakonera gain, piezaren  $R_a$  gainazal zimurtasuna erabiltzen du, harriaren topografia ezaugarriak inplizituki barneratuak dituena. Hala ere, eredu horrek harriaren elastikotasuna arbuatzen du. Zhou-k eta Van Lutterwelt-ek [ZV92]



2.1. Taula: Artezketa kontaktu-luzera eredu nagusien bilduma

Eredua	$l_c/l_g$	Kontaktu-luzera $l_c$	Oharrak
Maris [Mar77]	2	$\left(\frac{v_s}{v_w}\right)^{C_1} e^{C_2 \ln a_e} \sqrt{a_e d_s}$	Empirikoa
Zhou, Van Lutter-welt [ZV92]	2 - 3	$C_1 + \sqrt{a_e d_s}$	Empirikoa
Salje <i>et al.</i> [STH83]	1,1 - 1,4	$\sqrt{1 + \frac{R_a}{a_e}}$	Gainazal zimurtasuna
Lindsay, Hahn [Lin71]	1,33	$10^{-6} \sqrt[3]{\frac{d_s^2 F_n}{d_g^2 (1,33HL + 2,25L - 8)}}$	Malguki elastikoen eredua
Sauer, Shaw [SS74]	1,3 - 1,7	$\sqrt{1 + 4 \cdot \frac{E^* F_n + (\delta - h_{cu})}{a_e}} = \sqrt{a + C_1 \frac{F_n^{C_2}}{a_e^{C_3}}}$	Hertz, $h_{cu}$ txiribil-lodiera eta $\delta$ indentazioa
Kumar, Shaw [KS81]	1,1 - 1,2	$\left(1 + \frac{C_1 (1 + \nu_s) d_e F_n}{E_s l_g a_e}\right)^{1/2} \cdot \left(1 + \frac{2 F_n l_n \ln(l_g/2)}{\pi E_s a_e}\right)^{-1/2}$	Hertzen mekanika
Zhang <i>et al.</i> [ZSNW93a]	1,5 - 2,7	$R_d \arccos\left(1 - \frac{a_e}{R_d}\right)$ non $R_d = d_e \left(1 + C_1 \cdot \frac{(1 - \nu_s^2) F_n}{E_s a_e}\right)$	Hertzen mekanika, emaitza iteratiboa
Brown <i>et al.</i> [BSS71]	2 - 2,9	$2 \left(\frac{9(E^*)^2}{8d_g}\right)^{1/3} \left(\frac{F_n}{C_{stat} l_c}\right)^{1/3} + 1,6 \left(\frac{E^* F_n}{a_e}\right)^{1/2}$	Hertzen mekanika, kontaktua bi eskaletan
Rowe <i>et al.</i> [RMQZ93]	1,5 - 3	$\left(a_e d_s + \frac{8 F_n F_r d_s}{\pi E^*}\right)^{1/2}$	Kontaktua bi eskaletan, GT eredua
Horn <i>et al.</i> [HWCC11]	1,4 - 2,2	$\left(a_e d_s + \frac{8 F_n d_s}{\pi C_1 E^*}\right)^{1/2}$	Rowe-Qi eredua kontaktu elastoplastikoarekin

oraindik ere eredu sinpleagoa proposatzen dute: kontaktu-luzera konstante esperimental baten eta kontaktu-luzera geometrikoaren arteko batura da. Ereduaren emaitzak neurketetan lortutakoekin ongi doitzen dira eta interesgarria gertatzen da makina-harri-pieza konbinazio jakinarekin erabiltzeko. Kontaktuluzeraren neurketan dagoen ziurgabetasunari buruzko gogoeta interesgarria gehitzen dute haien lanean.

Lindsay-ek [Lin71] malguki eredu aurkezten du. Gainazaleko ale bakoitzari malguki bat dagokio, eta, horien zurruntasuna  $HL$  harriaren graduaren eta  $SL$  harriaren egituraren funtzioan dago. Ereduak ale-neurria eta indar normala hartzen ditu kontuan, baina ebaketa-sakonera arbuatzen du. Lindsayen ereduak harriaren elastikotasunak eta topografiak kontaktuan duten garrantzia azpimarratzen du.

Literaturan hainbat eredu analitiko-enpiriko aurkitu dira. Zhang-ek *et al.* [ZSNW93a] kontaktu-azaleraren handitzearen ardura bereziki harriaren deformazio elastikoari esleitzen diote. Deformazio-kurba eliptikotzat hartuz, deflexio-kurbaren funtzioa bitan diferentziatzen dute kontaktu-luzera lortzeko. Parametro esperimental bakar batek topografia eta beste parametroen eragina doitzen du, froga bakarrarekin definitzen dena.

Shawek, Sauer-rekin [SS74] eta Kumar-rekin [KS81] batera, Hertzen kontaktumekanika oinarritzen diren adierazpenak proposatu dituzte. Haientzat, harria gainazal leuna duen zilindro homogeneo jarraitua da eta kontaktua elastikotzat jotzen dute. Biak koefiziente enpirikoez baliatzen dira ereduaren emaitzak neurketekin doitzeko. Biek harriaren elastikotasun modulua, indar normala eta ebaketa-sakonera barneratzen dituzte adierazpenetan. Aipagarria da Sauerrek batz besteko  $h_{cu}$  txirbil-lodiera eta  $\delta$  alea piezan barneratutako sakonera erabiltzea bere ereduaren, nahiz eta hiru konstante esperimental behar dituen horien balioak hurbiltzeko. Kumarren ereduarekin lortutako emaitzak kontaktu-luzera geometrikoa baino % 15 luzeagoak dira, motzegiak emaitza esperimentalekin konparatuz.

Brownek *et al.* [BSS71] eta Rowe eta Qi bikoteak [RMQZ93] kontaktua bi eskaletan aztertzen dute efektuak konbinatuz: alde batetik, banako ale urratzailearen eta piezaren arteko kontaktua eta, bestetik, harriaren eta piezaren arteko deflexioa. Era horretan, harriaren eta piezaren zurruntasunak kontuan hartzeaz gain, harriaren topografiaren eragina ere barneratzen du. Brownek [BSS71] harriaren elastikotasun modulua, ale-neurriak, ebaketa-sakonera eta ale-dentsitateak osatzen duten iteratu beharreko adierazpen konplexua garatzen du. Ez du koefiziente enpirikorik behar baina lortzen dituen emaitzak neurketa esperimentaletan lortutakoak baino motzagoak dira, ziur aski kontaktua elastikotzat hartzearen ondorioz. Rowek eta Qik [RMQZ93] Brownen eredu moldatzen dute, Greenwood-en eta Tripp-en (GT) [GT67] gainazal zimurren arteko kontaktu-eredua inplementatuz eta kontaktu-arkuen azterketa geometrikoa gehituz. Harriaren topografia  $R_r$  zimurtasun faktorean barneratzen da, esperimentalki neurtzen dena.

Roweren eta Qiren formulazioan oinarrituz, Horng-ek *et al.* [HWCC11] haiek garatutako mikro-kontaktua analisia aplikatzen dute. Ereduak zimur esferikoak eta gainazalaren arteko kontaktua elastoplastikotzat hartzen dute. Nahiz eta

Hornen eredia gaurdainoko osotuena izan,  $R_r$  zimurtasun faktore esperimentalaren neurketaren beharra mantentzen du eta lortzen duen adierazpena konplexuegia bere erabilpena zabaltzeko.

Laburbilduz, honako ezaugarri hauek dira kontaktuan garrantzitsuenak, hau da, gehien errepikatzen direnak berrikusitako eredueta: topografia parametroak [BSS71, RMQZ93, HWCC11], ebaketa-sakonera [BSS71, SS74, Mar77, KS81, STH83, ZSNW93a, RMQZ93, HWCC11], indar normala [Lin71, BSS71, SS74, KS81, ZSNW93a, RMQZ93, HWCC11], eta, harriaren eta piezaren elastikotasuna [Lin71, BSS71, SS74, KS81, ZSNW93a, RMQZ93, HWCC11]. Horietaz gain, abiadura erlazioa [Mar77], piezaren zimurtasuna [STH83] eta ebaki-gabeko txirbil-lodiera [SS74] ere agertu dira. Kontuan hartu ez diren faktoreak koefiziente enpirikoetan barneratzen dira eredu guztietan, [BSS71, Lin71] salbu.


### Rowe-ren eta Qi-ren kontaktu-luzera eredia

Ziur aski, Rowek eta Qik (RQ) aurkeztutako eredia da arteketa kontaktu-eredurik onartuena eta zabalduena. Eredua hainbat argitalpenetan aurkezten dute, tartean [RMQZ93, QRM97b]. Abiapuntua Brownen eredia da [BSS71]: kontaktu-luzera, kontaktu-luzera geometrikoaren eta harria-planoa kontaktu estatikoaren arteko batura koadratikoa da. Baina kontaktu estatikoaren terminoa, Greendwood-Tripp (GT) gainazal zimurren arteko kontaktu-ereduarekin kalkulatu dute [GT67]. GT ereduak zimur esferikoen eta planoaren arteko kontaktu elastikoak estatistikoki lantzen ditu. RQ ereduak, arkuen azterketa geometrikoaren bidez hartzen du kontuan ebaketa-sakonerearen eragina. Horrela, kontaktu-luzeraren kalkulua hiru zati ditu (2.13.(a) Ir.): harria zurruntzat hartuz ebaketa-sakonera sortutako kontaktu-luzera geometrikoa, harriaren eta pieza planoaren arteko kontaktu elastiko leuna, eta, aleen eta piezaren arteko mikro-kontaktu elastikoak.

2.13.(b) Irudiak kontaktu-arkuen azterketa geometrikoa aurkezten du. Kontaktua elastikotzat eta gainazalak leuntzat hartuz, harriak  $d_s$  eta piezak  $d_2$  diametroak dituzte karga gabe daudenean. Biak kontaktuan jartzean, kontaktukurbak  $d_3$  diametroa hartzen du. Karga pean  $l_c$  kontaktu-luzerak  $ABC$  kurbarekin bat egiten du. Arteketa bat-batean etenez gero, piezak atzera bere  $d_2$  kurba berreskuratuko luke. Orduan,  $A$  puntua  $ADC$  kurbarekiko tangentea da eta  $a_e$  ebaketa-sakonera eraginkorra. Alde batetik, Hertzen kontaktu-mekanikaren arabera [Her1882], zilindroen arteko kontaktu-luzera  $l_c$  (2.19 Ek.), non  $F'_n$  luzera unitateko indar normala eta  $E^*$  elastikotasun modulu baliokidea diren. 2.20 Ekuazioak  $E^*$ -ren kalkulua azaltzen du harria eta piezaren Poissonen moduluen ( $\nu_s$ ,  $\nu_w$ ) eta elastikotasun moduluen ( $E_s$ ,  $E_w$ ) funtzioan.

$$l_c = \sqrt{\frac{8F'_n d_s}{E^*}} \quad (2.19)$$

$$\frac{1}{E^*} = \frac{1 - \nu_s}{E_s} + \frac{1 - \nu_w}{E_w} \quad (2.20)$$



**2.13. Irudia:** Harriaren eta piezaren arteko deflexio elastikoaren azterketa: (a) hiru efektuen konbinaketa eta (b) kontaktu-arkuen azterketa geometrikoa [RMQZ93]

Artezketaindarrak harriaren diametroa  $d_s$ -tik  $d_3$ -ra handitzen du. 2.21 Ekuazioak harria-pieza bikotearen diametro erlazioa adierazten du, Herten gainazal zilindriko ahurren erlazioan oinarrituz. 2.13.(b) Irudia aztertuz, kontaktu-luzera piezaren  $d_2$ -rekiko denez, honako balioa hartzen du (2.22 Ek.):

$$d_3 = \frac{d_2 d_s}{d_2 - d_s} \quad (2.21)$$

$$d_2 = \frac{l_c^2}{a_e} \quad (2.22)$$

2.19, 2.21 eta 2.22 Ekuazioak konbinatuz, eta, deflexioa elastikotzat eta gainazala leuntzat hartuz, harriaren eta piezaren arteko kontaktu-luzeraren adierazpena lortzen da (2.23 Ek.):

$$l_c = \left( a_e d_s + \frac{8 F_n' d_s}{\pi E^*} \right)^{1/2} \quad (2.23)$$

2.23 Ekuazioa berriidatziz 2.24 Ekuazioa lortzen da.  $l_g$  ebaketa-sakoneraren geometriarekin erlazionatutako kontaktu-luzera da eta  $l_f$ , berriz, indarraren ondorioz sortutako deformazioarekin.

$$l_c^2 = l_g^2 + l_f^2 \quad (2.24)$$

Indar tangentialaren eragina arbuaitzen dute Johnsonen liburuan oinarrituz [Joh87]. Lortzen duten adierazpenak Brownek [BSS71] garatutakoarekin bat

egiten du; aldaketa  $l_f$  terminoaren tratamenduan dator.  $l_f$ -k, Hertzen kontaktu-mekanikan oinarrituz, bi gainazal leun zilindrikoen arteko kontaktu elastikoa adierazten du. Rowek eta Qik  $l_f$  terminoa GT ereduaren gainazal zimurren arteko kontaktu elastikoagatik ordezkatzeko dute. GT ereduak gainazal zimurren arteko kontaktu elastikoa bi eskaletan aztertzen du: alde batetik, bi gorputzen kontaktu elastikoa gainazalak leuntzat hartuz (makro-eskala) eta, bestetik, laztasun esferikoaren arteko kontaktua (mikro-eskala). Bietan Hertzen kontaktu-mekanika aplikatzen da. GT ereduak laztasunen sakoneraren banaketa normalizatutaz jotzen du, arazoa estatistikoki landuz. GT ereduak lortzen duen adierazpenak,  $l_f$  gorputzen makro-eskalako deformazioa  $R_r$  zimurtasun faktoreaz biderkatzen du.  $R_r$  faktoreak gainazaleko topografiaren ezaugarriak barneratzen ditu. Horrela, RQ ereduak honako adierazpen trinkoa hartzen du (2.25 Ek.):

$$l_c^2 = l_g^2 + (R_r l_f)^2 = a_e d_s + \frac{8R_r^2 F_n' d_s}{\pi E^*} \quad (2.25)$$


Praktikan,  $R_r$  zimurtasun faktorea esperimentalki definitzen da harri, diamantaketa-baldintza eta pieza konbinazio bakoitzarentzat. Eta hor dago gakoa: bere abantaila nagusia adierazpenaren aplikazio erraza bada ere, bere emaitzen zehaztasuna neurtzen zaila den  $R_r$  faktore enpirikoaren menpe dago. Egileen arabera,  $R_r$ -ren balioa 7 eta 23 artean aurkitzen da [QRM97b]. RQ ereduak GT eredu aplikazio-eremutik kanpo aplikatzen du, harriaren gainazala zimurregia baita. Gainera, RQ ereduak alea-pieza artean kontaktua elastikotzat jotzen du, errealitatean kontaktu-presioek plastikotasun-baldintzak sortzen dituztenean [MRDI04]. Hala ere, RQ ereduak neurketa esperimentalekin korrelazio onak lortzen ditu, harriaren gorputzaren deformazioa proportzionala baita eremu elastikoan eta plastikoan, eta, topografiaren ziurgabetasunak  $R_r$  zimurtasun parametroak biltzen dituelako.

Hasieratik, tesi honen lan-ildoetako bat RQ ereduaren  $l_f$  kontaktu-luzera zimurra zenbakiz simulatzea izan da.

### 2.2.2. Kontakto-luzera neurtzeko metodo esperimentalak

Artezketa kontaktu-luzera neurtzea eta interpretatzea benetan da konplexua. Gaurdaino, bost teknika aurkeztu dira literaturan: termoparea [Pek57], aplikatutako tentsio-iturria (*applied power source*, APS) [ZV92], bat-bateko gelditzea (*quick-stop*) [SS74, BWW77], adabaki-artezketa (*patch grinding*) [BSS71, KS81] eta, azkena, emisio akustikoak (*acoustic emissions*, AE) [BKW13]. Teknika guztiek dute berezko ziurgabetasun maila bat, neurketen dispertsioari (< % 11) eta emaitzen interpretazioaren zailtasunari lotua [GW88, ZV92, QRM97b, QRM01].


Termopare konbentzionalek, bi eroaleen lotunean tenperatura aldaketak sortutako potentzial elektrikoan oinarritzen dira. Tentsio-tenperatura erlazioa kalibratuz, tenperatura era ez zuzenean atzematen da. Ohiko termopareak ezin dira arteztu eta, beraz, ezin dute tenperatura zuzenean gainazalean neurtu. Gainera, duten inertzia termikoa dela eta, erantzuna ez da behar bezain azkarra eta ohiko lan-abiadura baino mantsoago egin behar da froga [PSO<sup>+</sup>12].



**2.14. Irudia:** (a) Termopare polobakarra: platinozko hari eroalea piezan barneratuta dago eta ale urratzailea zeharkatzean piezarekin lotura beroa sortzen da [Pek57]; (b) isolatzailearen lodierak neurketetan eragiten du: Pekleniken metodoa eta kontaktu egoera kritikoa (CCS) aldaera [GW88, ZV92]

Peklenik-ek [Pek57] konpontzen du termopareen arazoa, termopare polobakar artezgarria garatuz. Piezan zeharka zulatu eta bertatik isolatutako titaniozko haria pasaratzen da. Elektrodoek pieza eta haria anplifikadorearekin konektatzen dute, era berean osziloskopio bati konektatua dagoena. Zirkuitua irekia dago, arik eta ale urratzaile bat gaineratik pasatzean lotura beroa (*hot junction*) sortzen duen arte (2.14.(a) Ir.). Temperatura igoerak eragindako indar elektromagnetikoaren ondorioz (*induced electromagnetic force, EMF*), ale bakoitzaren urratze- eta harrotze-akzioei tentsio-pultsu bat dagokio osziloskopioan. Gaur egun titanioa isolatutako harian ez ezik, xafra eran ere erabiltzen da. Pieza eta platinozko elektrodoaren prestaketaz gain, desabantaila nagusia termoparearen kalibrazio konplexua da. Platinozko elektrodoaren eta isolatzailearen lodierak eragina dute termoparearen erantzunean. Lan-baldintzen arabera, neurketa desorekatza ere iris daiteke. Platinozko hariaren eta piezaren arteko kontaktua sakonegi zabalduz gero, lotura beroaren sekzioa handiegia da, ale bakanen antzematea temperatura-tontor eran galaraziz. Horregatik, isolatzaile lodiera txikiegiak lotura bero iraunkorra sortzea ekar dezake neurketa izorratuz.

Verkerkek eta Pekelharingek [VP75] alde batetik, Gu-k eta Wager-ek [GW88] bestetik, isolatzailearen lodierak EMF seinalean duen eragina aztertu dute. Lotura beroaren jarraitasuna aztertuz, isolatzailearen bi egoera definitzen dira [GW88]: kontaktu egoera kritikoa (*critical contact state, CCS*) eta kontaktu eza egoera (*no contact state, NCS*) (2.14.(b) Ir.). Lotura beroa muga baliora edo CCS egoerara doitzen da, isolatzailearen lodierarekin jokaturik. Horrela, aleek sortutako kontaktu-seinalea erregulatzen da, kontaktu-eremuaren ikuspegi garbiagoa eskainiz. Hala ere, NCS aldaerak kontaktu-luzerarekin erlazioa duen lotura berorik gabeko seinalea lortzen du, nahiz eta tenperaturak neurtzeko baliagarria ez izan. CCS eta NCS teknikekin neurtutako kontaktu-luzerak



**2.15. Irudia:** (a) APS metodoaren zirkuitu elektrikoa: potenzial-iturria eta osziloskopioa elektrodoei konektatuak; APS metodoaren bi aldaerak: (b) potenzial-iturria piezari eta hari isolatuari konektatua, eta (c) potenzial-iturria bi pieza zatiei konektatua, mika xaflak isolatzen dituenak [ZV92]

antzekoak dira.

Termopare polobakarrean inspiratuta, Zhouk *et al.* [ZV92] aplikatutako potenzial-iturriaren metodoa edo *applied power source* (APS) garatu dute. Termoparearen efektu termoelektikoaz baliatu beharrean, zuzenean potenzial elektriko bati konektatzen da zirkuitua. Arteztean zirkuitua itxi eta osziloskopio batek potenzial aldaketa monitorizatzen du denboran zehar. Seinalearen iraupena aztertuz kontaktu-luzera lortzen da. Metodo honen bidez lortutako kontaktu-luzerak, kontaktu-luzera geometrikoa baino 1,4 - 3 aldiz handiagoak dira. [GW88, ZV92] metodoaren bi aldaera aurkeztu dituzte: lehenengoan, isolatutako hari eroale batek pieza zeharkatzen du; bigarrenagoan, berriz, mika xaflak isolatzen du bitan zatitako pieza. 2.15. Irudiak APS metodoaren eske-ma eta bi aldaerak erakusten ditu. APS-ren tentsio-denbora seinalea aztertuz kontaktu-denbora  $t_c$  zehazten da. 2.26 Ekuazioak bi aldaerarako kontaktu-luzera kalkulatzeko adierazpena azaltzen du, aitzinamendu-abiaduraren  $v_w$  eta kontaktu-denboraren  $t_c$  funtzioan. Era berean,  $G_{dyn}$  ale-dentsitate dinamikoa (2.18 Ek.) eta  $L_{dyn}$  aleen arteko batz besteko distantzia (2.17 Ek.) estimatzeko ere gai da,  $N_c$  kontaktu-kopurua,  $v_s$  ebaketa-abiadura eta  $t_c$  erlazioatuz.


$$l_c = v_w \cdot t_c \quad (2.26)$$

2.2. Taulak literaturan argitaratu diren APS saiakuntza-baldintzak eta emaitzak biltzen ditu. Besteak beste,  $b$  elektrodo zabalera,  $s$  isolatzaile lodiera,  $v_s$  ebaketa-abiadura,  $v_w$  aitzinamendu-abiadura,  $V$  tentsioa eta lortutako  $l_c/l_g$  kontaktu-luzera arrazoa aurkezten dira.

Kontaktu-luzera neurketa metodoen bigarren familiak neurketa-printzipioak partekatzen ditu: harria artezten dagoenean, bat-batean pieza bat-batean erretiratzeko datza. Alde batetik, Sauerrek eta Shawek [SS74] gailu mekaniko bidez eta, bestetik, Brownnek *et al.* [BWW77] leherketa bidez, gelditze azkarra edo *quick-stop* metodoa garatu dute. Piezak, deformatutako harriaren profilarrekin geratzen da. Piezaren gainazalean harriak utzitako aztarnak aztertuz, kontaktu-

## 2.2. Taula: APS saiakuntza-baldintzak literaturan

	$b$ ( $\mu\text{m}$ )	$s$ ( $\mu\text{m}$ )	$v_s$ (m/s)	$v_w$ (m/s)	$V$ (V)	$l_c/l_g$
Gu, Wager [GW88]	100	10 - 40	10	0,17 - 0,25	6	2 - 2,5
Zhou, Van Lutterwelt [ZV92]	-	(wire, sheet)	22	0,25	-	1,4 - 2,2
Qi <i>et al.</i> [QRM97a, QRM97b]	200	10 - 40	30	0,17 - 0,25	1,2	1,7 - 3 (5,5)



**2.16. Irudia:** (a) *Quick-stop* metodoaren bidez lortutako harriaren arrastoak piezaren gainazalean; kontaktu-luzera maximoaren  $l_{\max}$  eta bataz bestekoaren  $l_a$  definizioa [ZV92]; (b) Brownek, Saitok eta Shawek erabilitako *patch grinding* metodoan erabilitako harria [BSS71]; (c) Kumarrek eta Shawek *patch grinding* metodoaren bigarren aldaeran erabilitako harria [KS81]

luzera zuzenean neurtzen da (2.16.(a) Ir.). Egileek piezaren berreskuratze elastikoa kontuan hartzen dute aztarnaren kurba aztertzean. Metodoak sinpleak badirudite ere, neurketen interpretazioa zaila da, kontaktu-hasiera atzematea ez baita erraza.

Neurketa metodoen hirugarren familia, adabaki edo *patch grinding* metodoa da. Harriaren gainazalean sortutako adabakiak piezaren gainazalean egindako aztarnak aztertzen dira kontaktu-luzera definitzeko. Adabakiaren geometriaren arabera, metodoaren bi aldaera proposatu dira. Shawek, oraingoan Brownekin eta Saitorekin batera [BSS71] garatutako metodoan, harriari bi irtengune egiten zaizkio: batek perimetro osoa biltzen du eta bigarrenak berriz erdia (2.16.(b) Ir.). Harri horrekin artztean piezaren gainazalean sortutako sarrera-irteera aztarnen profilak ibilbide trokoidal teorikoakin alderatzen dira. Atzemandako kurbatura-erradio handiagoek, harriak deformazio elastikoa jasaten duela frogatzen dute. Kontaktuzuzera, deflexio eta indar balioak Hertzzen kontaktu teoriarekin ondorioztatzen dituzte. Metodo horrekin neurtutako kontaktu-luzerak, kontaktu-luzera geometrikoa baino 1,9 eta 3 aldiz luzeagoak dira. Metodoak adabakiaren sarrera-irteeran errealitatean gertatzen ez diren baldintza latza-goak jasateaz gain, auto-eragindako bibrazioak ere sortarazten ditu. Deformazio aldaketaren neurketa aldiz erraza da haztatze bidez.

Berriz ere Shawek, oraingoan Kumarrekin batera, adabaki metodoari beste buelta bat ematen dio [KS81]. 2.16.(c) Irudian agertzen den adabakia sor-



tzen eta diamantatzen da. Hemen ere, harria artezterakoan sortutako aztarnen profila neurtzen da. *Quick-stop* metodoarekin lortutako emaitzekin alderatuz kontaktu-luzerak % 25 luzeagoak dira. Aurrekoak bezala, metodoak zalantzak sortzen ditu, sarrerako eta irteerako aleen lan-baldintzak ohikoak baino gogorragoak baitira eta horiek utzitako aztarna da justu neurtzen dena.

Babel-ek *et al.* proposatu dute metodo berritzaileena, emisio akustikoak (AE) baliatuz [BKW13]. Horretarako pieza artezten da, sarreran eta irteeran piezaren ertzak txafanekin eta gabe prestatuz. Sarrera-irteeretan agertzen diren zaraten tontorrak konparatuz, horien luzera kontaktu-luzerarekin bat egiten duela aurkitu dute. Nahiz eta metodoa sinplea iruditu, bere konplexutasuna zarata-uhinen iraztean eta interpretazioan dago.


Termopare polobakar eta APS teknikak gailendu dira kontaktu-luzeran neurketetan. *Quick-stop* eta *patch grinding* teknikak ez dira literaturan gehiago agertu, ziur aski beraien prestaketa konplexuak eta interpretazio subjektiboak eraginda. Agertu berri den AE metodoa oraindik ez da literaturan aipatua izan  $l_c$ -n neurketetan, baina etorkizun itxaropentsua dauka prozesuaren monitorizazioan.

### 2.2.3. Kontakto-luzera seinalearen analisisa

Egile denek eztabaidatzen dute kontaktu-luzera neurtzean dauden ziurgabetasunei buruz, erabilitako neurketa-teknika edozein dela ere. Neurketa-baldintza egonkorretan ere, harriaren gainazaleko aleen ausazko banaketak kontaktu-luzeran % 11-arterko aldaketak sortzen ditu.

Zhouek eta Van Lutterweltek [ZV92] kontaktu-luzeraren neurketa esperimentalei buruzko gogoeta interesgarria gehitzen dute haien lanean. Neurketa-baldintzen arabera,  $l_a$  batz besteko kontaktu-luzeraren eta  $l_{max}$  kontaktu-luzera maximoaren artean bereizten dituzte emaitzak (2.16.(a) Ir.). APS bi aldaerek, pieza-pieza eta haria-pieza (2.15. Ir.), elektrodoen zabalera baldintzatzen dute, eta horiek lortutako seinaleak  $l_a$ -rekin eta  $l_{max}$ -rekin erlazionatzen dituzte. Kontakto-zabalera handitzeak (pieza, pieza) ale gehiago eskuragarri jartzen ditu. 2.17.(a) Irudiak bi aldaerekin baldintza berdinetan lortutako tentsiodenbora seinaleak erakusten ditu: beranzko seinaleak (haria-pieza, 2.15.(b) Ir.)  $l_a$ -rekin bat egiten du, eta goranzkoak (pieza-pieza, 2.15.(c) Ir.)  $l_{max}$ -rekin. Horrela, kontakto-luzera neurketa puntualak motzagoak dira esposizio zabalak erabiltzean baino.  $l_{max}$ -ren eta  $l_a$ -ren arteko aldea % 22 - % 55 artean dago. Fenomeno horrek egileen artean kontakto-luzera neurketetan dauden aldeak azal ditzake, neurketak irakurtzean egindako interpretazio ezberdinen ondorioz. Qirrentzat *et al.* [QRM97b] berriz, igurzketa-eremuak erdiko puntua da  $l_a$ , tontor kontzentrazio eremuaren bukaera eta muturreko tontorraren artean. Irizpide horrekin,  $l_{max}$   $l_a$  baino % 20 luzeagoa da gutxi gorabehera.

Egile batzuk igurzketa-, uradura- eta ebaketa-eremuak identifikatzen dituzte (ikus 2.4.2. Atala) neurketa-seinaletan eta artezketa arrastoetan. Guk eta Wagerrek [GW88] CCS egoeran polo bakarreko termoparearen seinalean hiru eremuak identifikatzen dituzte, Kops-en eta Shawen ondorioekin bat egiten dutenak [KS82]. 2.17.(b) Irudiak hiru eremuak erakusten ditu. Igurzketa eremuan,



**2.17. Irudia:** (a) Kontakto-zabaleraren arabera APS seinaleak [ZV92]: kontakto-luzera maximoa  $l_{\max}$  (goranzko uhina) eta batz bestekoa  $l_a$  (beheranzko uhina); (b) eremuak kontakto-luzeran (CCS) [GW88]; (c) APS eta termopare polobakar seinaleen konparaketa [QRM97a]

alea piezarekin kontaktuan jartzean, alearen lehen erreakzioa piezaren gainazalean makurtzea, biratzea eta labaintzea da egileen arabera. Indar normala behar-beste baliore iristean eta metala nahikoa biguntzean, alea piezari barneratu, eta materiala desplazatzen eta harrotzen hasten da. Ebaketa-eremuan, tontorren magnitudea eta dentsitatea aipagarriak dira. Horrek piezaren gainazaleko gogortasuna erorarazten du, ale asko sakon sartuta materiala harrotzen dutelarik. Bigarren igurzketaren eremuan, temperatura seinalearen amaierako tontorrak desagertzen jotzen dute. Aleak ateratzen doaz eta tontor irtenenak soilik sortzen dute lotura beroa.

Qik *et al.* [QRM97a, QRM97b] APS seinalea beste ikuspuntu batetik irakurtzen dute. Hiru eremuak identifikatzen dituzte baina gainjarriak daude, errealitatean bezala. 2.17.(c) Irudiak haien interpretazioa aurkezten du APS seinalearentzat (goiko grafikoa): harroketa-eremua ( $l_1$ ) goldaketa-eremuaren ( $l_2$ ) barnean dago, eta beraz igurzketaren eremuaren barnean ( $l_3$ ). Eremuen artean seinalearen intentsitatearen murrizketa txirbil-lodiera eta ale-dentsitate txikiagoek eragiten dutela ondorioztatzen dute.

Hainbat taldek [ZFG85, GW88, QRM97a] termopare polobakar eta APS metodoak konparatu dituzte. Bi metodoek ez-kontaktu egoera partekatzen dute, baina seinalearen iturrian ezberdintzen dira: alearen akzioak EMF seinalea eragiten du termopare polobakarrean, eta APSan, berriz, aleak isolatzailea zeharkatzean zirkuitua itxi, eta aplikatutako tentsioa antzematen du. CCS eta NCS seinaleak lausoak dira, zarata baino zerbait handiagoak. APSak, berriz, seinale indartsuak lortzen ditu. [GW88] arabera, APS eta CCS bidez lortutako emaitzak antzekoak dira, [ZFG85] berriz % 10-eko aldeak antzematen ditu. Bestalde, [QRM97a] polo bakarreko seinalea lausoa dela eta igurzketaren eremua ( $l'_3$ ) sumatzeko ezgai dela deritzo. Era horretan, termoparearen seinaleak APSrenak baino hiru aldiz txikiagoak direla baieztatzen du (2.17.(c) Ir.).

## 2.3. Zenbakizko ereduak artezketan

Orain arte ez da artezketa kontaktu-luzera modelizatzeko helburua duen zenbakizko eredurik aurkeztu. Hala ere, beste helburu batzuk dituzten hainbat zenbakizko eredu sortu dira. Horien artean eredu termikoek kalte termikoa aurreikusten dute, harriaren egitura ereduak bere zurruntasuna aztertzen dute eta, azkenik, gainazal topografia-ereduek harri-pieza arteko mugimendu erlatiboak aplikatuz, piezaren gainazal zimurtasuna eta indarrak aurreikusten dituzte.

Eredu termikoetan elementu finituen (FEM) eta diferentzia finituen metodoak (FDM) nagusitzen dira [BAG<sup>+</sup>06, DWB09]. Lan gutxi batzuk harriaren bibrazio moduak aztertzen dituzten FEM bidez. FEM gorputz heterogeneoen portaera mekanikoa simulatzeko ere gai bada. Bere desabantaila nagusia harriaren egitura porotsua fidelki deskribatzeko zailtasunak dira. Gainera, materialen propietateen erlazio eratzailen doitzea eta kontaktu-baldintzak zehaztea konplexua izango litzateke. Modelatze eskala-anitzak (*multi-scale modelling*) ereduaren neurria murriztuko luke [KBCS09]. Hala ere, gaurdaino ez da harriaren egituraren FEM egiturarik aurkeztu.

Aacheneko RWTHk [BMKW11] eta Zhangek *et al.* [ZGS<sup>+</sup>11], talde bakoitzak bere aldetik oso antzeko zenbakizko ereduak sortu dituzte. Bien helburua berdina da: era fidelean harriaren morfologiaren, egituraren eta topografiaren 3D marrazketa-eredua sortzea. Zehazki, beiratzatutako CBN harrietan ipini dute arreta. Aleen geometria eta dimentsioak parametrizatuak daude eta, astintze teknikaren bidez, uniformeki banatuak dauden elementuak ausazko posizioan eta orientazioan kokatzen dira. Aleak bolumenean homogeneoki banatuak daudela ziurtatzen dira, aleen arteko distantziak [BMKW11] edo dentsitate pilatua [ZGS<sup>+</sup>11] aztertuz. Aglomeratzailea, harriaren egitura erreferentziatzen hartuz, aleen ingurua estaltzen duen geruza borobildua da. Horrela, poro borobilduak lortzen dira errealitatean bezala. [BMKW11] ez da gainazal topografia garatzera iritsi. Zhangek bere horretan uzten du gainazala eta berarekin egiten dituzten simulazio zinematikoak. Diamantaketa kontuan ez hartzearen erabakia CBN urratzaileen erabilerak justifikatzen du. Etorkizunean, sortzen duten 3D geometria FEM bidez harriaren zurruntasuna simulatzeko lan-ildoak aipatzen dute biek, baina aukera hori ez dute aurrera eraman. Sortu dituzten aglomeratzaile-poro geometria borobildu konplexuak eta homogeneizazio arazoak, FEMaren aplikazioa zailtzen dute. Edonola ere, bi marrazketa-eredu horiek harriaren egitura heterogeneoa fidelki deskribatzen dute. Zhangen eredu matematikoak, Li-k *et al.* [LYZW15a, LYZW15b] aurkeztutako elementu diskretuen ereduaren garapena bultzatu du.

Tungsteno karburoaren artezketa simulatzeko, Zhangek *et al.* [ZYF<sup>+</sup>15] diamanteko harri elektroestaldua ez-porotsuaren FEM ereduak garatu dute *DEFORM* softwarearekin. Ale urratzaileek eta aglomeratzaileak pieza bakarra osatzen dute ereduaren, diamantearen propietate elastikoak soilik kontuan hartuz. Aldiz, piezaren portaera biskoplastikotzat jotzen dute.

Atal honek harriaren egitura eta topografia-ereduetan ipini du arreta. Ideia bi eredu motak konbinatzea da kontaktu-luzeraren zenbakizko ereduak eraikitze-ko.


### 2.3.1. Harriaren egituraren ereduak

Harriaren egiturak eta morfologiak eragin zuzena daukate arteztean harriak duen portaeran. Harriaren egitura ereduaren erroka harriaren natura granularra deskribatzea da. Ale urratzaileek, aglomeratzaile-zubiek eta poroek gorputz heterogeneo ez-jarraitua osatzen dute. Osatzen duten mikro-egituraren eta haien arteko interakzioen arabera, eskala batetik aurrera konbinaketak material bakarra balitz bezala lan egiten du. Horrela, materialen propietate mekanikoak eskala makroskopikoan azaleratzen dira, gorputz homogeen eta isotropo osatuz [CJR13]. Harriaren egitura ereduaren helburua, ale urratzaileek eta aglomeratzaile-zubiek osatzen duten 3D sarearen portaera mekanikoa erreproduzitzea da.

Besteak beste, sinplifikazio geometriko nabarmenak dituzten ereduak proposatu dira harriak modelatzeko. Moser-ek [Mos80] proposatu du mota honetako lehen ereduak, ondorengoak inspiratuz. Berak harriaren egitura idealizatzen du, ale urratzailez eta barra zilindrikoz osatutako egitura kubiko erregularra erabiliz. Hessel-ek [Hes03], antzeko planteamendua jarraituz, diamantezko beiratzatutako harrien diamantaketa eta bere ondorioak simulatzen ditu. Aglomeratzaile-zubiek jasandako tentsio maximoak kalkulatu eta askatzen diren ale frakzioa kalkulatzeko erabiltzen du. Yamada-k *et al.* [YMLM11] makina-harria-pieza sistemaren zurruntasuna aztertzen dute erretxinazko harrientzat (2.18.(a) Ir.). Akats larria egiten dute, gainazaleko ale-dentsitatea, aleen arteko distantzia aldatuz doitzen baitute.

Oro har, Moserren ereduaren oinarritutako harriaren egituraren eredu uniformeek antzeko gabeziak dituzte. Morfologiari dagokionez, harriei eginiko hiru dimentsioko mikro-tomografia analisisiek, eredu uniformeak errealtatetik oso urrun daudela erakusten dute [BMKW11]. Haien konfigurazio erregularrak gorputz anisotropoak sortzen ditu. Gainera, aleak lotzeko malgukien erabilerak ez du bat egiten errealtatean aglomeratzaile-zubiek duten portaerarekin. Aglomeratzaile-zubiek aleen artean biraketa erlatiboa ere eragozten dute, hau da, karga axialez gain, makurdura- eta bihurtura-momentuak ere jasaten dituzte.

Lik *et al.* [LYZW15a, LYZW15b] elementu diskretuen metodoan (*discrete element method*, DEM) oinarritutako harriaren lehen ereduak aurkeztu dute bi artikuluetan. Ereduak, alde batetik, harriaren zurruntasuna, erresistentzia eta aleen arteko indar-kateak aztertzen ditu; eta, bestetik, harria-pieza arteko mugimendu erlatiboa kontuan hartuz, piezan lortutako gainazal-zimurtasuna aurreikusten du. Oktaedro geometria duten elementu diskretuek (*discrete element*, DE) ordezkatzeko erabiltzen dituzte ale urratzaileak. Ereduak, uniformeki banatutako DEak ausaz posizioz eta orientazioz astinduz eraikitzen da, besteak beste [CR96, KJL97, Dar13] antzera. Aglomeratzaile-zubiak geometrikoki eta frakzio bolumetrikoan fidelki erreproduzitzen saiatzen dira. Horretarako, paraleloan antolatutako habe elastiko sare konplexu erredundantea garatzen dute. Horretarako, hainbat aglomeratzaile DE esferiko kokatzen dituzte urratzailea modelatzen duten DE oktaedroen artean (2.18.(b) Ir.). Konektatzen dituzten DE-en arabera, urratzaile-aglomeratzaile habeak eta aglomeratzaile-aglomeratzaile habeak daude. Habeen erradioa arbitrarioki aplikatzen da: lotzen dituen DE-en



**2.18. Irudia:** (a) Harriaren malguki-eredu uniformea [YMLM11]; (b) aglomeratzaile-zubiak geometrikoki modelatzen dituen habe-sistema paralelo erredundantea [LYZW15a]; (c) artezketaren zenbakizko simulazioa oktaedro eta pieza elementuz osatutako DEM ereduarekin [LYZW15a]

erradioen frakzioaren eta dispersio osagai normalaren batura.

Makurdura- eta konpresio-saiakuntza esperimentalak eta zenbakizko simulazioak alderatuz egin da habeen propietate mekanikoen kalibrazioa. Saiakuntzetan lortutako karga maximoa eta zurruntasuna izan dira erreferentziak konparaketetan. Habeen haustura parametroak eta habea sortzeko DE-en arteko distantzia maximoa (koordinazio zenbakia edo DEko habe kopurua (*coordination number*, CN)) izan dira kalibrazio-aldagai nagusiak. Eredua, konpresioan harriaren haustura hauskorra simulatzeko erabiltzen da. Saiakuntzan emisio akustikoen (EA) seinalea ere monitorizatzen dute. Habea sortzeko luzera maximoa zehazteko, zarata-pultsu kopurua DEM simulazioan apurtutako habe kopururekin alderatzen dute. Konparaketa hori oso ausarta da, zarata-tontor bakoitzaren esanahiak ez baitu bat egiten aglomeratzaile-zubi bat osatzen duten hainbat habeetako baten hausturarekin. Gainera, material hauskorren konpresio erresistentzia deformazio-abiadura handiagoan erresistentzia handitzen da. Zurruntasuna (edo elastikotasuna) saiakuntzetako konpresio karga-denbora kurbekin doitu da. Denbora adierazgarria da erresistentziarekiko, baina ez zurruntasunarekiko, deformazioarekin lotura duena. Harriek ebaketa-abiadura azkarretan egiten dute lan, urratzaile-aglomeratzaile konposatuaren erresistentzia nabarmenki handituz. Habe-sare erredundantean sortzen diren indar-kateak ere aztertzen dituzte. Emaitzek tentsioek norabide tangenzialean jokatzen papera azpimarratzen dute.

Habiez gain, ereduak Hertz-Mindlin kontaktu-algoritmoa erabiltzen du eredu sortzeko. Algoritmo hori, partikula askeak edo solido trinkoak modelatzeko erabili ohi da. Eredua sortzeko erabilitako astintze-metodoaren ondorioz, DE-en arteko distantziak handiak dira eta, beraz, algoritmoak apenas egiten du lan oktaedro-elementuen artean, bai ordea aglomeratzaile-elementuetan. Octaedro-DEak ikutzen ez direnez, geometria horren erabilera estetikoa da, ez dauka

zurruntasunean edo egituran eraginik. Hala ere, interesgarria litzateke elementu horien erabilera harriaren fabrikazioan egiten den ale trinkotzearen simulazioan. Hala ere, eredia sortzeko astintze teknikak ez du horretarako balio. DE esferikoen multzoen edo *cluster*ren erabilera ere proposatzen dute ausazko ale-geometria modelatzeko. Horrela, aleen aspektu-erlazioa ere kontuan hartuko litzateke, trinkotzean garrantzizko faktorea dena.

Eredu zinematikoak piezaren gainazal-zimurtasuna simulatzen du. Horretarako, diamantaketa mespretxatzen dute, nahiz eta beiratzatutako silizio karburo harria modelatu. Horregatik, zenbakizko emaitzek eta neurketa esperimentalek ez dute guztiz bat egiten. 2.18.(c) Irudiak simulazioaren istant bat harrapatzen du, non habe inguratutako DE urratzaile batek DE esferikoz osatutako piezaren gainazala zeharkatzen duen. Ale bakoitzak jasandako ebaketa-indarra indarren neurketa esperimentaletako tontorretako balioak aztertuz estimatzen dira. Horrela, alearen piezarekiko posizioa (edo txirbil-lodiera) mespretxatzen da, gainjarritako indar-tontorrez gain. Pieza DE esferikoz osatutako prisma errektangeluar bat da. DE horien arteko baldintzak ez dira azaltzen. Egileek ereduak materialaren goldaketa modelatzen duela baieztatzen dute, baina ez dute argitzen materiala harrotzen den ala ez.

Nakayama-k [NBS71] gainazaleko aleen zurruntasuna aztertzeko lan esperimental nekeza aurrera eramaten du. Hertzen mekanikan oinarrituz, alearen deflexioa estimatzeko adierazpena garatzen du jasaten duen indarraren arabera. Chenek eta Rowek [CR96] eta Hecker-ek *et al.* [HRL03] bere topografia-ereduetan aplikatu dute. Horrela, eredu hauek harriaren gainazalaren zurruntasuna kontuan hartzen dute, baina ez harriaren gorputzarena. Hala ere hurbilpen sinplifikatzaile interesgarria da.

Zhangek *et al.* [ZSNW93b] zaila ikusten dute ale bakarraren frogen eredu analitikoaren aplikazioa artezketa-ereduetan (ikusi 2.4.2. Atala), alearen deskripzio zehatza behar baita aleak zenbat urratzen, goldatzen eta harrotzen duen zehazteko. Horregatik, malguki elastikoz osatutako eredu iteratiboa proposatzen dute, artezketa-indarren eta deformazio elastikoen arteko oreka bilatuz. Ebaketa-indarren banaketa kontaktu-ereduan zehar da ereduaren emaitza. Ereduak topografiaren eragina mespretxatzen du, kontaktu-zurruntasunean garrantzizko faktorea dena.

### 2.3.2. Topografia-ereduak

Diamantaketa bidez sortutako topografiak eragin zuzena dauka artezketan. Topografia-ereduek, 2.1.3. Atalean deskribatutako harriaren gainazalaren zenbait ezaugarri erabiltzen dituzte gainazal birtuala eraikitzeko. Eredu zinematikoek gainazal horri harriaren eta piezaren arteko mugimendu erlatiboak aplikatzen dizkie, horrela, piezaren gainazal zimurtasuna, indarrak edo ebaki-gabeko txirbil-lodiera aurreikusi ahal dute. Eredu zinematiko gehienek gainazala zurruntzat hartzen dute. Ondorioz, ez dira artezketa kontaktu-azalera simulatzeko gai.

Doman-en *et al.* berrikusketan [DWB06], harriaren topografia-ereduak bat, bi eta hiru dimentsiotakoetan (1D, 2D, 3D) sailkatzen dituzte. 1D ereduak zimurtasuna edo ale-dentsitatea gisako parametroen bidez karakterizatzen dute

harriaren gainazala. 2D eredueta, harriaren profila geometrikoki deskribatzen da. Horrela, diamantaketaren ondorioz lortutako ale-neurri posizioa eta tontor-altuera banaketak aztertzeke gai dira. 3D ereduak, berriz, ale-kokapena eta geometria 3D gainazal eran deskribatzen dute.

1D topografia-ereduek nagusiki, gainazaleko ale-dentsitatea aurreikusi ohi dute. 2.1.3. Atalean azaldu da, gainazaleko aleak estatikoak eta dinamikoak (edo zinematikoak, edo aktiboak) izan daitezkeela material harroketan duten parte-hartzearen arabera. Tönshoff *et al.* [TPIP92] ohartzen dira gainazaleko ale-dentsitate estatikoa eta dinamikoa aurreikusten dituzten 1D eredu enpirikoek lau aldagai komun dituztela: ebaketa-sorbatzaren forma, abiadura-ratioa, ebaketa-sakonera eta ale-neurria. Aldagai horiek beste artezketa-parametro batzuen adierazpenetan agertzeak (ebaki-gabeko txirbil-lodiera, artezketa-indar, piezaren gainazal akabera), duten garrantzia azpimarratzen du.

Zenbakizko eredu topografikoak gero eta sofistikatuagoak dira, eta harriaren ausazko topografia islatzeke gai dira. Berrikusketak 2D eta 3D eredueta ipini du arreta, harriaren gainazala geometrikoki deskribatzen baitute. Eredu hauek hiru familia nagusitan sailkatzen dira: eredu mekanizistak (ezaugarri fisikoetan oinarrituak) [CR96, KJL97, WZ98, WZ98, Heg00, CL00, GWW02, NB05, CP08, BMKW11, ZGS<sup>+</sup>11, AK12, CGL<sup>+</sup>13, Dar13, LWBG13, ZYF<sup>+</sup>15], eredu enpirikoak (ereduaren koefizienteak datu esperimentalekin doitzen dira) [Ina96] eta eredu probabilitistikoak (gertatzeko probabilitatea ebaluatzen da) [McA64, YA84, TB00, HK03, NB05, AR05, JGB<sup>+</sup>13]. Eredu mekanistikoek eta enpirikoek harriaren gainazalaren zenbait ezaugarrietatik abiatuz, harriaren gainazal birtuala sortzen dute. Parametro geometrikoak, hala nola ale-neurria eta posizioa, ausaz edo estatistikoki tratatzen dira. Aldiz, hurbilpen probabilitistikoek ikuspuntu determinista hau alboratzen dute, eta ale-pieza interakzioa harriaren gainazalaren karakterizazio estatistikoa landuz aztertzen da. Ebaki-gabeko txirbil-lodiera ereduak probabilitate dentsitate-funtzio normala edo Rayleigh-en funtzioa aplikatzen dute artezketa-indarrak eta piezaren gainazal-akabera aurreikusteko. Rayleighen funtzioa  $\beta$  parametro bakarrekin definitzen da, zehazteke zaila dena eta zentzu fisiko argirik ez duena [YA84, HL03, AR10].

2.1.2. Atalean azaldu da, ale- eta lotura-hausturak direla diamantaketa-mekanismo nagusiak. Diamantaketa-baldintzek mekanismoen intentsitatea doitzen dute, gainazal ireki-bigunak edo itxi-zurrinak sortuz. Topografia-ereduek gai izan behar du diamantaketa-baldintzen arabera harriaren gainazala erreproduzitzeko. Diamantaketak, espazioan ale-posizioarekin batera, definitzen ditu tontor-posizioa eta sorbatzen zorrotasuna.

Topografia-eredu denek ez dute diamantaketa kontuan hartzen. Kasu batzuetan arrazoitua dago, super-urratzaileak modelatzen baitituzte. Ale-dentsitatea harriaren morfologiatik azaleratzen da [ZGS<sup>+</sup>11], edo topografia-parametroak zuzenean inplementatzen dira, hala nola, ale-dentsitatea [KJL97, ZYF<sup>+</sup>15]. Badira neurketa esperimentaletan lortutako topografia zuzenean ereduak aplikatzen dutenak [Ina96, WZ98]. Beste batzuk, diamantaketa alboratzen dute harriaren morfologian oinarrituz, akats nabarmena dena [AR05, LYZW15b].

Koshy-ren *et al.* [KJL97] ekarpen nagusia gainazal parametroen tratamendu estatistikoa izan da, 1D parametroetatik abiatuz 2D eredia eraikiz. Horretarako astintze edo *shaking* teknika erabiltzen dute eremu granular birtual bat sortzeko. Aleak ordezkatzeko dituzten esferak, disposizio uniformetik abiatuz mugiarazten dira ausazko posizio parametroak aplikatuz. Esferen artean elkar-sartzerik ez dagoela ziurtatu arte errepikatzen da prozesua. Diamantaketaren eraginik ez dauka, soilik aleen kokapenaren probabilitatea aztertzen da. Zhouek eta Xi-k [ZX02] eta Cao-k *et al.* [CGL<sup>+</sup>13] 3D eredu sinpleak eraikitzen dituzte, plano batean sare uniforme bateko puntuetan banaketa normala jarraitzen duten altuerak esleituz. Horrela piramidez osatutako gainazal zimurra lortzen dute. Ale-askatzea eta diamanteak utzitako helizea arbuiatzen dute. Nguyen-ek eta Butler-ek [NB05] zenbakizko gainazala sortzen dute, ausazko eremua Johnsonen transformatuaz ordezkatzuz. Neurketa esperimentaletatik doitzen dira funtzioaren parametroak, ale-dentsitate edo protrusio-altuera antzeko parametro fisikoen beharrik gabe.

Jiang-en *et al.* [JGB<sup>+</sup>13] eredu probabilistikoak, diamante punta-bakarraren mugimenduak eta urratzaileen higadura barneratzen ditu era sinplean, ale-haustura eta askatzea arbuiatuz. Diamantaketa uniforme ale bakoitzean bere posizioarekiko aplikatzen denez, ez harriaren diametroarekiko, ereduak ausazko emaitza onak lortzen ditu. Aurich-ek eta Kirsch-ek [AK12] tontorrek harriaren erreferentziazko diametroan moztu dituzte, diamantaketa eta higadura modelatzeko CBN geruza-bakar harrian.

Chenen eta Roweren [CR96] eta Torrancen eta Badgerren [TB00] ereduak dira diamantaketaren efektua barneratzen dituzten artean osatuenak. Chenen 2D ereduak diamantaketa aplikatzen du, esferaz osatutako gainazala ausazko funtzio sinusoidal batekin moztuz. Funtzio sinusoidal jarraituak  $y_p$  bi osagai dauzka: diamantearen ibilbide helikoidala gainazala era harikorrean mozten duena  $y_d$ , eta aleen haustura hauskorra jasotzen duen ausazko funtzio osagarria  $y_f$ . 2.27 Ekuazioak aurkezten du diamantaketaren funtzio sinusoidala.  $y_d$  osagaiaren funtzioa ( $f(x)$ ), diamantearen profilarren eta  $x$  posizio axialaren menpe dago.  $h_f$  haustura osagaiaren anplitudea da,  $\omega$  ausazko maiztasuna eta  $\alpha$  ausazko hasierako angelua.  $h_f$  haustura anplitudea diamante-alearen intersektzio-azalerarekiko  $A_d$  eta teilakapen-ratioarekiko  $u_d$  proportzionala da, eta aitzinamenduarekiko  $f_d$  alderantziz proportzionala (2.28 Ek.). Hegeman-ek [Heg00] antzeko funtzio sinusoidala erabiltzen du ale elipsoidalen parametroak definitzeko, eta Darafonek [Dar13] Chenen eredia 3D domeinura zabaltzen du.

$$y_p = y_d + y_f = f(x) + h_f[\sin(\omega x + \alpha) + 1] \quad (2.27)$$

$$h_f = \frac{A_d \cdot u_d}{4f_d} \quad (2.28)$$

Torrancek eta Badgerrek [TB00] gainazala diamantatzen dute, aleak iraganaldia irauteko duen probabilitatea kontuan hartuz. Eredu probabilistikoa da eta ez du gainazal birtualik preseski sortzen. Inklinatutako hainbat segmentu zuzenek ordezkatzeko dituzte ale eta aglomeratzaile hausturak. Horien maldak




ausaz banatzen dira balio maximoaren eta minimoaren artean, mendizerra itxurako profila lortuz. Gong-ek *et al.* [GWW02] Chenen diamantaketa-eredua moldatzen dute, zuzenez osatutako ausazko funtzio jarraitua arbitrarioki definitutako tartean aplikatuz. Hala ere, diamantaketa alearen posizioarekiko aplikatzen dute, [JGB<sup>+</sup>13]-ek bezala.

Tontor-altuerak lantzeko hainbat banaketa agertu dira literaturan, besteak beste, Gaussiarra [WZ98, ZX02, HK03, CP08, AK12, CGL<sup>+</sup>13], Weibull [TB00] eta ausazkoa [CR96, KJL97, GWW02, NB05, Dar13, LWBG13, ZYF<sup>+</sup>15]. Zhou-ek, Houek eta Caok zuzenean alearen diametroaren  $d_g$  desbiderapen estandarra erabiltzen dute tontor-altuera definitzeko, inongo zerikusirik ez duen parameetroa. Koshiren ereduari tontor-altuera  $0,1d_g$  tarte arbitrarioan dago. Nguyenek, topografia-neurketa esperimentaletatik ondorioztatzen du, gainazaleko tontor-altuerak banaketa Gaussiarra ez duela jarraitzen.

2.1.2. Atalean ikusi da, diamantaketa-baldintzek eragiketaren intentsitatean eragiten dutela eta, ondorioz, askatutako ale frakzioan. Chenek eta Torrancek [CR96, TB00] soilik hartzen dute kontuan ale-askatzea. Alearen iraupena erabakitzen da esperimentalki zehaztutako indar mugaren arabera (2.1.2. Atala). Inork ez du Malkinen ale-askatze ereduak aplikatu (2.11, 2.12 eta 2.13 Ek.), baina topografia-eredu batean ezartzeak ez luke arazorik izango.

Ebaketa-sorbatzen zorrotasunaren analisia ale urratzaileen morfologia analisiarekin hasten da [JD11]. 2.19.(a) Irudiak oinarritzko hiru ale geometriak aurkezten ditu: kuboak, oktaedroak eta amorfoak. Urratzaileek hiru horien arteko geometria izan ohi dute. Diamanteak eta CBNak oktaedro-kubo arteko geometria hartzen dute, parametrizazioa errazten duena [WZ98, BMKW11, ZGS<sup>+</sup>11, AK12, LYZW15b, ZYF<sup>+</sup>15]. Aluminak egitura kristal-bakarra edo -anitza har dezake, fabrikatzean gehitutako gehigarrien eta labe-baldintzen arabera [MRDI04]. Zapaltze-prozesuak eta kristal-egiturak aleen geometria eta eragindako kaltea definitzen dute. Alumina kristal-bakarretatik abiatuz, aurpegidun edo lamina itxurako kristalak lortzen dira; alumina kristal-anitzetik, berriaz, geometria kubiko (*blocky*), angeluarra (tetraedro) eta puntadunak (luzeak). Nahiz eta egitura eta konposizioa partekatatu, alearen geometriak bere portaera (birrinkortasuna, zorrotasuna, higadura) aldatzen du. Ale urratzaileen zorrotasuna ebaluatzeko, alearen proiektzioaren ganbiltasuna eta aspektu-erlazioa aztertzen dira (2.19.(b) Ir.). Hala ere, parametro hauek duten esanahia galtzen dute diamantatu ondoren beiratzatutako harri konbentzionaletan. Ondorioz, super-urratzaileetan eta aleak era askean erabiltzen dituzten prozesu urratzaileetan aplikatzen dira nagusiki [DPS02, JD11]. Ale geometriak harriaren fabrikazioan aleen trinkotzean edo egituraren irekitasunean eragiten du: aspektu-erlazio handiagoko aleen erabilerak, arteztean auto-zorrotzketak bultzatzeaz gain, harriaren egituraren muga teknologikoak zabaltzen ditu.

Hiru eredu mota identifikatu dira ale urratzaileen eta ebaketa-sorbatzen errepresentazioaren arabera: (1) ale urratzaile ereduak [KJL97, WZ98, HK03, CP08, BMKW11, ZGS<sup>+</sup>11, AK12, LYZW15b, ZYF<sup>+</sup>15], (2) ebaketa-sorbatz ereduak [Ina96, Heg00, CL00, ZX02, CGL<sup>+</sup>13], eta (3) ale urratzaile-sorbatz eredu konbinatuak [CR96, TB00, GWW02, AR05, JGB<sup>+</sup>13, Dar13, LWBG13]. Ale urratzaile ereduak (1) ebaki-gabeko elementuz osatzen dira, ebaketa-sorbatzen pa-



**2.19. Irudia:** (a) Aleen geometria aldaerak [JD11]; (b) alearen proiektzioak eta forma faktorea, bere geometria eta ebakitzeko gaitasunak aztertzeko [DPS02]

pera hartzen dutenak. Beraz, diamantaketaren ondorioak arbuizaten dituzte. Aleek hainbat geometria har dezakete, hala nola esfera [KJL97, HK03], piramidea [CP08], tetraedroa [BMKW11, AK12], hexaedroa [ZYP<sup>+</sup>15] eta oktaedroa [BMKW11, ZGS<sup>+</sup>11, AK12, LYZW15b]. Guztiek kontuan hartzen dute aleen orientazioa, esferikoek ezik. Ebaketa-sorbatzen ereduek (2) sorbatza besterik ez dute modelatzen, aleak mesprextatuz. Konoa eta kono-enborra [Ina96, CL00], piramidea [ZX02, CGL<sup>+</sup>13] edo elipsoidea [Heg00] dira erabiltzen dituzten geometriak. Azkenik, (3) eredu batzuk lehenik harriaren egitura granularra esferaz sortzen dute, ondoren sorbatzak diamantaketaren arabera kokatuz. Batzuk aleaskatzea ere kontuan hartzen dute. [CR96, LWBG13, Dar13] sorbatz esferikoak, [TB00, GWW02, JGB<sup>+</sup>13] piramidalak eta [LWBG13] konoak erabili dira. Sorbatz eta ale-sorbatz ereduek harriaren zorrotasuna islatzen dute, ale ereduetan, berriz, erlazioa ez da hain zuzena, ale-geometriarekin ere jokatu baitaiteke. Ale-sorbatz eredu konbinatuek, topografiaz gain, harriaren egitura ere modelatzen dute (geruza bat edo hainbat).

Sorbatzen geometriak zorrotasuna islatzen du. 2.1.3. Atalean azaldu dira zorrotasuna adierazteko erak (2.9. Ir.): sorbatzaren malda eta sorbatzaren erradioa  $\rho_s$ . Sorbatzaren maldari dagokionez, Badgerrek eta Torrancek [BT00, TB00] jaulkitze-angelua piramideen malda definitzeko erabiltzen dute; Inasakik eta Cooper-rek [Ina96, CL00], berriz, konoen malda zehazteko. Higadura, tontorra moztuz [AK12, JGB<sup>+</sup>13] edo malda handituz modelatzen da.

Bestalde, sorbatza  $\rho_s$  erradioko zirkunskribatutako zirkulu batez ere karakterizatu daiteke. Aleen jaulkitze-angelua oso negatiboa denez, sorbatza esferatzen hartzea onargarria da. Gainera, alearen geometria etengabe aldatuz doa higaduraren eta ale-hausturen ondorioz, eta  $\rho_s$  moldatu daiteke gainazaleko aleen higadura-maila adierazteko. Besteak beste, [CR96, Dar13]  $\rho_s$  erabiltzen dute sorbatzen zorrotasuna adierazteko. Egile batzuk zuzenean alearen batz beste-ko diametroa  $d_g$  erabiltzen dute, akats nabarmena dena [KJL97, HK03, HRL03]. Ebaki-gabeko txirbil-lodiera eta  $\rho_s$  berdintzea ere zalantzazkoa da [AR05].

Eredu zinematikoak oro har, zurrinak dira, [CR96, HRL03] ezik. Azken bi horiek, Nakayamaren lana ere duan barneratzen dute, gainazaleko aleetan malgukiak ezarriz. Horrela, gainazal-zurruntasuna simulatzen dute, baina ez harriaren gorputzaren zurruntasun erreala. Aurichek eta Kirschek [AK12] FEM-zinematika eredu akoplatua garatzen dute CBN harri geruza-bakarrarentzat, harriaren deflexioa eta tenperatura kontuan hartzen dituen.

### 3D Topografia-ereduen egitura orokorra

Domanek *et al.* [DWB06] topografia-ereduen berrikuspenean, ordura arteko eredu ezaugarri komunak bilduz, 3D topografia-eredu orokorrak izan behar dituen ezaugarriak eta egitura deskribatzen ditu. 2.20. Irudiak topografia-ereduek jarraitu beharreko diagrama aurkeztzen du. Egiturak bi adar nagusi ditu: lehengoak diamantatu gabeko harriaren topologia eraikitzen du eta, bigarrenean, diamantaketa aplikatzen zaio.


Diamantatu gabeko topologiak aleen geometria, neurria eta posizioa lantzen ditu. Normalki aleek geometria esferikoa dute, geometria sinpleena baita; ondoren, diamantaketak sorbatzak sortuko dizkie aleei. Nolanahi ere, ale-geometria konplexuagoak ere erabil daitezke, hala nola elipsoideak edota parametrizaturako poliedroak. Aleak uniformeki banatu ondoren, ausazko posizio aldaketa batek topologia egokia lortzen du. Harriaren dentsitatearen arabera, banaketa uniformeak *bcc* edo *fcc* zelula-egiturak erabil ditzake.

Bigarren zatiak gainazal-topografiaren sorrerarekin erlazionatua dago. Diamantaketa-mekanismoek emaitza baldintzatzen dute: ale-haustura eta ale-askatzea. Diamanteak deskribatzen duen mugimendu helikoidala gainazalean islatzen da, zeharkatzen dituen aleak moztzen baititu. Horrez gain, aleek haustura hauskorra jasaten dute diamantaketa-baldintzen funtzioan. Eta ale-askatzea, berriz, alearen iraupena erresistentzia edo tamaina irizpideak aplikatuz erabakitzen da.

## 2.4. Ale urratzaile-pieza interakzioa

Harria-piezaren kontaktua modelatzeko, beharrezkoa da kontaktu-baldintzak definitzea. Kontaktua erreala harriaren gainazaleko tontorren eta piezaren artean gertatzen da. Kontaktua hain puntualak izanik, indar intentsitatea handia da eta aleak materiala goldatzen eta harrotzen du abiadura bizian. Banako kontaktuetan sortutako indarren baturak artezketa-indarren erresultantea osatzen du. Indar erresultantea itxurazko kontaktu-azaleran banatua dagoela dirudi.

Atal honek, kontaktu-mekanikaren oinarriak eta material harroketaren teoria berrikusten ditu, gainazaleko aleen eta piezaren arteko interakzioan sortutako indarrak definitzeko. Berrikusketak ebaketa-baldintzetan materialaren propietate aldaketak ere jasotzen ditu, deformazio-abiadura eta tenperatura handitan harrotzen baita materiala. Baldintza hauetan, metalek portaera biskoplastikoa erakusten dute. Berrikusketak altzairuen artezketara mugatu da.




2.20. Irudia: 3D topografia-ereduen diagrama orokorra [DWB06]

### 2.4.1. Kontaktu-mekanika

Kontaktu-mekanikaren sorrera Heimrich Rudolf Hertz gazteari sor zaio. 1881ean neguko oporretan Alpeetan zela, elur-ekaitz batek etxean sartuta egotera behartu, eta kontaktu-mekanikaren oinarri den *'On the contact of elastic solids'* artikulua idatzi zuen [Her1882]. Lan horretan, eremu magnetikoen eta kontaktu elastikoan sortzen diren tentsioen artean analogia proposatzen du, azken hauen adierazpen analitikoak ondorioztatuz. Hertzek deblauki egindako ekarpenek, harrabots handia sortu zuten ordura arte gogortasuna ikuspuntu mekanizistatik lantzen zuten ingeniari komunitatean. Hortik aurrera, kontaktu-mekanikak kasu konplexuagoak (adhesioa, absortzioa, marruskadura...) aztertu ditu hainbat ikuspuntutatik, eredu enpirikoak, grafikoak, analitikoak eta zenbakizkoak proposatuz. Gaur egun, kontaktu-mekanika tribologia jakintza-arlo zabalaren parte da.

Adhesio, marruskadura, lubrifikazio edo higadura fenomenoak aztertzean, ezinbestekoa da gainazalen definizio eta modelaketa zuzena planteatzea. Adibidez, bi gorputzen artean sortzen diren adhesio eta marruskadura indarrak, haien arteko kontaktu-eremuan atomoek duten gertutasunak sortzen ditu. Kontaktua azalerak eta geometriak tarteko gainazalaren zurruntasunean, konduktibitate termikoan eta elektrikoetan eragina dauka, eta azpi-gainazalean zabalduko deformazio elastoplastikoen menpe daude [PHMR05].

Gainazal ez-konformeak dituzten gorputzen artean, lehen kontaktua puntu edo lerro batean gertatzen da [Joh87]. Kontaktua oso txikia da gorputzen dimentsioekin konparatuz. Egoera horietan, kontaktu-tentsioa eremu txikian kontzentratzen da, gorputzek jasandako kanpo indarrek sortutako tentsioekiko independentea delarik. Hertzek fenomeno hori deskribatu zuen, hona-



**2.21. Irudia:** Erdi-espazio elastikoan kontaktua: (a) esfera zurruna eta (b) zilindro zurruna [Joh87]

koa baieztatuz: *'Gure arreta kontaktu ingurura muga dezakegu, bertan tentsioak nabarmenki handiagoak baitira beste edozein puntutan baino eta, ondorioz, gorputzen beste puntuetan aplikatutako indarren ondorio txikiak dira'*. Kontrako muturrean, kontaktu konformeetan, kontaktu-eremua bi gorputzen dimentsioen antzekoa izanik, kontaktu tentsioak gorputzek jasaten dituztenen parekoak dira.

Bi gainazal leun adhesio eta marruskadurarik gabe kontaktuan ipintzean, aplikatutako indar normalaren arabera aldatuz doa egoera. Arazoa indentadorea zurruntzat edo plano zurruntzat hartuz aztertu daiteke. Lehenengo kasua aztertuen bihurtu dute gogortasun-saiakuntzarekin dituen antzekotasunek. Hertzek [Her1882] egoera elastikoan kontaktuaren garapen analitikoak garatzen du beirazko lentine leunketarako. Besteak beste, erdi-espazio elastikoan indarpenetrazio erlazioa ( $F - \delta$ ) definitu du esferarentzat (2.29 Ek.) eta zilindroarentzat (2.30 Ek.). 2.21. Irudiak bi kasuak aurkezten ditu.

$$F = \frac{4}{3} E^* R^{1/2} \delta^{3/2} \quad (2.29)$$

$$F = \frac{\pi}{4} E^* L \delta \quad (2.30)$$

Errealitatean indentadorea ere elastikoa da eta horren eragina  $E^*$  elastikotasun-modulu baliokidea erabiliz konpontzen da (ikusi 2.20 Ek.). Ekuaziotan  $R$  erradioa da eta  $L$  zilindroaren luzera da. Zilindroaren kasuan  $F - \delta$  erlazioa lineala da, zilindroaren  $R$  erradioa edozein dela ere.

Indar normala handitzean, bietako gorputz bat plastikoki deformatzen hasten da. Esfera adibidetzat hartuz, Hertz araber tentsio ebakitzailer maximoa erdi-espazioan gainazaletik  $0,47a_1$  distantziara dago,  $a_1$  kontaktu-azaleraren erradioa izanik. Isurpen-irizpidea betetzean  $\sigma > \sigma_y$ , deformazio plastikoa puntu horretan hasten da. Horrela, gainazaleko bataz besteko presioa  $1,1\sigma_y$  denean, gainazaletik  $0,47a_1$  distantziara materiala egoera plastikoan sartzen da. Esperimentalki frogatu da, deformazio plastikoan bolumena konstante mantentzen dela [PW72]. Praktikan, bi gainazalen arteko kontaktua, deformazio elastiko eta plastikoaren arteko konbinaketa da.

Karga normala handitzean, deformazio plastiko pean dagoen eremua zabalduz doa gainazalera iritsi arte [Joh87]. Puntu horretan kontaktu-azalera orain-

dik txikia da:  $a_1$  kontaktu-erradioa esferaren erradioaren % 1-era ez da iristen. Kontaktu-presioa  $3\sigma_y$  igo da eta, karga gehituz gero ere, konstante mantentzen da. Plastikotasun kontaktu-presioak osatzen du gogortasun-saiakuntzaren oinarria. Indentadorearen geometria aldatuz antzeko emaitzak lortzen dira, eta plastikoki deformatzen den solidoa (erdi-espazioa edo indentadorea) zein den ere berdin du. Horrela, kontaktu-azalera kargarekiko proportzionala dela ondorioztatzen da. Kontaktu egoera honi kontaktu *zurrun-plastiko-perfektua* deritzo, eta deformazio elastikoa arbuatzen du. Artezketan, ale-pieza artean kontaktu-presioek erraz gainditzen dute isurpen-tentsioa, eta kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat har daiteke. 2.2.1. Atalean ikusitako ia kontaktu-eredu denek deformazio plastikoa arbuatzen dute.

Gainazal zimurren arteko kontaktua aztertzean, orain arteko ondorioak laztasun (*asperity*) eskalan aplika daitezke: bai portaera elastikoa, baita kontaktu zurrun-plastiko-perfektua ere [Joh87]. Nolanahi ere, gainazal errealak ez daude uniformeki banatutako laztasunez osatuta. Laztasunen erradioa, altuera eta posizioa banaketa estatistiko jakin bat jarraitzen dute. Gainazal errealetan karga handituz doan heinean, laztasun bakoitzeko kontaktu-azalera handitzeaz gain, laztasun berriak ipintzen dira kontaktuan.

Archard [Arc57] eta Greenwood-Williamson (GW) bikotea [GW66] gainazal zimurren kontaktu eredu aitzindariak izan dira. Archardek gainazal zimurren arteko marruskadura aztertzean, kontaktu-azalera errealak indar normalarekiko erlazio lineala mantentzen duela ohartzen da, bietan, eremu elastikoan nahiz plastikoa. GW eredu ezagunak laztasunak esferikotzat hartzen ditu, horien altuerak banaketa normala jarraitzen dutelarik. Laztasun bakoitzean Hertzten teoria eremu elastikoan aplikatzen da era independentean. Greenwoodek eta Tripp-ek (GT) [GT67], GW eredu moldatzen dute gainazal zimur kurbatuen arteko kontaktu elastikoa aztertzeko. GT eredu ere laztasun esferikoen altuerak banaketa normala dute. Hain zuzen ere, GT eredu da Rowek eta Qik aukuratu dutena harria eta planoaren arteko kontaktu zimurra estimatzeko. Bush *et al.* [BGT75] GW eredu osotu dute, altuera aldaketaz gain, laztasunen erradio eta eliptikotasun aldakorrak barneratuz.

GWn oinarritutako izaera elastoplastikoa duten eredu berriagoak ere proposatu dira. Chang-ek *et al.* [CEB87], gainazal-zimurtasuna esferik osatutako laztasunak eta bolumen kontserbazioa kontuan hartuz, eredu eremu elastoplastikora zabaltzen dute. Zhao-k *et al.* [ZMC00], berriz, aurrekoen akatsa zuzentzen du, propietate direkzionalak dauzkan zimurtasuna modelatuz. Gainera, ereduak deformazio elastikotik guztiz plastikorako trantsizioa leuntzen du. Bere laztasunak ere esferikoak dira. Horngen eredu [Hor98], laztasunak eliptikoak dira eta kontaktua, berriz, elastoplastikoa. Horrela, ereduak gainazal zimur anisotropoak sortzen ditu elipseekin. Eredu guzti horietan laztasunen arteko interakzioak arbuatzen dira, laztasunak bata bestearengandik urrun daudela argudiatuz. Hipotesi hori motz gera daiteke, kontaktu plastikoen ondorioz, deformazio handiek laztasunak biltzen badituzte.

Edozein geometriatako azalera laztasunen arteko kontaktua 3Dn aztertzeko metodorik errazena, dimentsio murrizpen metodoa (*method of dimensionality reduction*, MDR) edo oinarri elastikoen metodoa (*elastic foundation model*) da

[Joh87]. Teknika horrek, gainazaletako bat era diskretuan malguki elastikoz, elastoplastikoz edo biskoelastikoz ordezkatzeko du. Bi gainazalen posizio funtzioak alderatuz malguki bakoitzaren desplazamendua zehazten da eta, desplazamenduarekin, puntu horretako indarra. Metodo sinplea bai, baina malgukietako zurruntasuna zehaztean agertzen dira zailtasunak. Tesi honek proposatzen duen etorkizuneko ikerketa-ildoetako bat, kontaktu-luzera eta harriaren deflexioa aurreikusten duen artezketaren MDR ereduaren garatzea da. Malgukien zurruntasuna garatu den DEM ereduarekin estima daiteke, eta gainazal topografia, berriz, harriaren bermazal-kurbarekin kontaktu probabilitatea ebaluatuz.

Elementu finituen bidezko analisiak aurreko ereduaren desabantailak gainditzeko hurbilpen sendoa da. Francis [Fra82] izan da FEM gainazal zimur planoen arteko kontaktu elastikoa aztertzeke erabiltzen aurrena. Kucharski-k *et al.* [KKPK94] pausu bat aurrera ematen dute, kontaktua elastoplastikotzat hartuz. Kogut-ek eta Etsion-ek [KE02] kontaktu elastoplastikoa esfera zimur eta planoaren artean simulatzen dute.

Bestalde, Mandelbrot-en [Man83] azterketa esperimentalek gainazalen izaera fraktala azalatu du. Laztasun bakoitzak laztasun txikiagoak barneratzen ditu behatutako eskala aldatzean. Eredu hibridoak proposatu dira gainazal fraktalak kontaktuan aplikatzeko. Komvopoulos-en eta Ye-n [KY01] FEM ereduak, eskala fraktal bateragarria duten gainazal zimur elastikoen kontaktua aztertzen dute. Hala ere, FEM eredu horiek solido jarraituen mekanikarentzat daude formulatuak, eta zaila da harriaren heterogenotasunera moldatzen. Jerier-ek eta Molinari-k [JM12], bi gainazal lauen arteko kontaktu zimurra modelatzen dute, elementu diskretuz osatutako gainazal fraktalaren eta gainazal lauaren artean.


Interesgarria da orain arte gainazal zimurretarako aipatu diren teoriak eta ereduak ere, Archarden kontaktu karga-azalera erlazio lineala betetzen dutela.

### 2.4.2. Urraduraren mekanika

Harriaren mikroegitura konplexuak sorbatzen definizio geometrikoa zailtzen du. Artezketak, aldiunear piezarekin kontaktuan dagoen ale bakoitzak harrotutako materialaren batura da. Hainbat ikertzaile jardun dira interakzioak ale eskalan aztertzen, ikuspuntu esperimentalak, analitikoak eta zenbakizkoak landuz. Atal honek lehenik, lan esperimentalek lortu dituzten ondorioak biltzen ditu. Ondoren, ale bakarraren frogak modelatzen duten eredu analitikoak eta zenbakizkoak aurkezten ditu.

#### Sorbatzaren ekintza. Ale bakarraren frogak

*Material harroketaren mikro-mekanika* jakintza-arloa, ohiko metal-ebaketa arlotik eratorri da. Geometria jakineko sorbatzak dituzten prozesuekin alderatzean jada ohartu ziren artezketan harroketa-mekanismoak ezberdinak direla [BMS52]. Arteztean, txirbil txikiak ebaketa-abiadura azkarragoetan sortzen dira. Jaulkitze-angelu negatiboek eta txirbil-lodiera finek, gainera, energiaren banaketan aldaketak dakartzate.



**2.22. Irudia:** Ale urratzailearen akzioa: (I) igurzketa, deformazio elastikoa; (II) goldaketa (urradura), deformazio elastikoa eta plastikoa; (III) goldaketa eta material harroketa, deformazio elastikoa eta plastikoa, eta txirbil sorrera [Hah62, Klo09] (eskalaz kanpo)

Literaturan, ale urratzailearen akzioa sarritan aztertu da ale bakarraren frogaren bidez. Artezketan, harriaren eta piezaren arteko mugimendu erlatiboaren ondorioz, alearen ekintza ibilbidearekiko baldintzatua dago. Sorbatzaren geometria kamutsagatik, txirbila nekez sortzen da hasieran. Sorbatzaren  $\delta$  sartzea (edo  $h_{cu}$  ebaki-gabeko txirbil-lodiera) aldatuz doa aleak kontaktu-arkuan duen posizioarekiko; era berean, kontaktu-baldintzak aldatuz doaz.  $\delta$ -ren aldaketak Hahn-en ale bakarraren material harroketa eredu inspiratu du [Hah62], ondorengo egileek onartua izan dena [MRDI04, Mal08, Klo09]. Eredu horrek hiru fase bereizten ditu: igurzketa, goldaketa (edo urradura) eta ebaketa, eta 2.22. Irudiak aurkezten ditu. Jiangek *et al.* [JGB<sup>+</sup>13] laugarren bat gehitzen ere dute, hasierako ez-kontaktu egoera, sorbatzen altuera eta posizio irregularren ondorioz.

Hahnek artezketan agertzen diren energia espezifikoko balio altuak, ale-pieza arteko igurzketa faseari egosten dizkio. Igurzketa, alea eta piezaren gainazalaren artean deformazio iraunkorrik gabeko kontaktu elastikoa da.  $\delta$  penetrazioa,  $\delta_p$  goldaketa sakonera-muga baino txikiagoa da igurzketan (2.22.(I) Ir.). Marruskaduraren ondorioz sortutako beroa energia galeratzat hartzen da. Kopsek eta Shawek [KS82], argi infragorriarekin, ale urratzaileak silize-beira urratzean duen erreakzioa aztertzen dute. Labaintza eta astintze faseak identifikatzen dituzte alea beiran sartzen hasi aurretik. Altzairua adina gogorra den beiran behatutakoak, artezketan agertzea ere espero da. Orduan, harriaren gainazaleko alearen ibilbide zirkularrean piezarekin kontaktu egitean, bere lehen erreakzioak deflexioa, biraketa eta labaintzea dira; piezaren materiala nahikoa biguntzean



eta alean eragindako indar normalak beharrezko balioa gainditzean, alea piezan sartzen hasten da.


Behin alea piezan barneratuta,  $\delta_p < \delta \leq \delta_c$  sakonera tartean goldaketa gertatzen da, deformazio elastikoen eta plastikoen konbinaketa (2.22.(II) Ir.). Fase honetan, piezaren materialak alearen aurrean pilatzeko joera dauka; alboetarantz desplazatzen denak, berriz, gandorrak sortzen ditu. Berreskuratze elastikoa arbuigarria da, sortzen den ildaska nagusiki aleak alboetarantz goldatutako materialaren emaitza da. Hala ere, goldaketa ez da eraginkorra, materialik ez baita harrotzen.

Marruskadura-indarra handia izanik ere, txirbila ez da sortzen hasten arik eta sorbatzak  $\delta_c$  sakonera gainditu duen arte. Puntu horretatik aurrera, deformazio elastikoaz eta plastikoaz gain, txirbila sortzen da (2.22.(III) Ir.).

Klockek [Klo09]  $\delta$ -k eta  $\delta_c$ -k materialaren harroketan jokatzan duten papera nabarmentzen du. Txirbila soilik  $\delta$ -ren frakzio batek sortzen duela proposatzen du, eta  $h_{cu,eff}$  txirbil-lodiera eraginkorra definitzen du. Baieztapen honek ez du bat egiten eredu zinematikoez [DWB06] eta ale bakarraren froga esperimentalez [LS75, ÖC12, TFX<sup>+</sup>15] deskribatutakoarekin. Horien arabera, aleak bere ibilbidean zeharkatzen duen material dena garbitzen du: frakzio bat txirbila bidez harrotzen da, gainontzekoa alboetarantz desplazatzen delarik.

Marruskadura-baldintzek,  $v_s$  ebaketa-abiadurak eta materialaren isurpen-baldintzek eragin zuzena dute txirbil-sorkuntzan eta  $\delta_c$ -n. Marruskadurak materialak sorbatzaren azpitik isurtzeko duen gaitasuna definitzen du, beraz, marruskadura handitzeak  $\delta_c$  txikitzen du. Alderantziz, lubrifikazioa hobetuz, kontaktua luzatu eta, ondorioz, materiala plastikoki deformatzeko joera bultzatzen da  $\delta_c$  handituz. Beraz, lubrifikazio hobekuntzek harroketa eraginkortasuna murrizten dute. Sorbatzen zorrotasunak ere  $\delta_c$ -n eragiten du. Normalki, zorrotasun-parametro eskasek eta jaulkitze-angelu negatiboez materialaren deformazioa bultzatzen dute,  $\delta_c$  sakonera handituz [MTOO89]. Temperatura igoez materiala harikorra bihurtzen dute,  $\delta_c$  handituz. Deformazio plastikoez eta deformazio-abiadura handiek, berriz,  $\delta_c$  murrizten dute deformaziotatikogogortze efektuaren ondorioz.

Königek eta Lortzek [KL75]  $\delta_c$  sakonera-ren balioa 1 eta 1,6  $\mu\text{m}$  artean kuantifikatzen dute harriaren gainazaleko 2D profil-neurketak aztertuz (ale-neurria 54) eta soilik parametro zinematikoak kontuan hartuz. Txirbila sortu ahal izateko aleen arteko distantzia minimoa  $L_c$  ere estimatzen dute, 400 - 500  $\mu\text{m}$  artean, bataz besteko ale-diametroa baino handiagoa dena ( $d_g = 280 \mu\text{m}$ ). Beraz, ale berdineko sorbatzek ez dute txirbilik sortzen, eta piezarekin kontaktuan dauden sorbatz gehienek ezta ere. 10  $\mu\text{m}$  arteko txirbil-lodiera maximoak  $h_{cu,max}$  aurreikusten dituzte, analitikoki estimatutakoa baino ia 30 aldiz lodiagoa (2.5 Ek.). Tian-ek *et al.* [TFX<sup>+</sup>15] neurria diseinatutako ale bakarraren froga garatzen dute harroketa-mekanismoak aztertzeko ebaketa-abiaduraren  $v_s$  eta  $h_{cu}$ -ren funtzioan. Emaitzek harroketa-mekanismoetan aldaketa nabaritzen dute 100 m/s-tan:  $\delta_c v_s$ -rekiko aldatzen da, 1,4  $\mu\text{m}$  20 m/s-tan, 0,6  $\mu\text{m}$  minimoa 100 m/s-tan, eta 1,6  $\mu\text{m}$  165 m/s-tan. Hau da, 100 m/s azpitik  $v_s$  handitzean, deformazio-abiaduraren pisuak temperatura igoez baino garrantzia gehiago hartuz doa, materialaren plastikotasuna eta  $\delta_c$  murriztuz, eta txirbilaren sorrera erraztuz.



**2.23. Irudia:** Ale bakarraren froga:  $e_s$  aldiuneko energia espezifikoa eta  $f_g$  ebaketa-indarra kontaktu-luzeran zehar [RMK15, RKM15]


Bestalde,  $v_s$  100 m/s-tik 165 m/s-ra igotzean temperaturagatiko biguntzea indar-tzen da. Antzeko inflexio-puntuak aurkitu dituzte indar eta pilatze-ratioetan. Caik *et al.* [CFJG02]  $v_s$ -k  $\mu$  indar-arrazoian duen eragina aztertzen dute ale bakarraren frogarekin:  $v_s$  azkartzean  $\mu$  murrizten da. Urratzaile materialak ere  $\mu$ -rengan eragiten du.

Rasim-ek *et al.* [RMK15, RKM15] ale bakarraren frogan  $e_s$  aldiuneko energia espezifikoa eta  $f_g$  indarrak neurtzen dituzte. Txirbila sortzeko momentua abiadura handiko bideo-kameraz zehazten dute. 2.23. Irudiak aurkezten ditu haien emaitzak:  $f_g$  ia linealki handituz doa;  $e_s$ , berriz, balio maximoarekin hasten da, eta bere balioa azkar erortzen da bere balioaren seiren batera.  $e_s$  maximoaren iturria igurzketa-eraginkortasun eza da. Igurzketa-eremua motza da, eta goldaketa hastean erorketaren malda leuntzen da. Behin txirbila sortuta,  $e_s$ -ren balioa konstante mantentzen da.

2.2.2. Atalean ikusi da, termoparez eginiko temperatura-neurketetan ebaketa-eremuak ere bereizten direla [Pek57, KS82, GW88, ZV92, QRM97b]. Lehendabizi, tontor gutxi batzuk nabaritzen dira, igurzketa-eremuarekin bat egiten duena. Goldaketa- eta ebaketa-eremuak batera agertzen dira, temperatura eta tontor-dentsitatea biziki handituz (ikusi 2.17.(c) Ir.). Puntu honetan, piezaren materiala azkar biguntzen da materiala erraz harrotuz. Bukaeran, tontorrak desagertuz doaz, finagoak dira eta, irtenen dauden aleek, materiala beroa eta ahulduta topatzen dute. Azken ale horien lan-baldintzak ezin dira ale bakarraren frogarekin aztertu.

Kannapan-ek eta Malkinek [KM72] igurzketa, goldaketa eta ebaketa mekanismoei dagokien energia aztertu dute. Artezketan xahututako energia, hiru osagai horien batura da. Igurzketa higadurarekiko erlazonatuta dago, eta higadura indar tangenzialarekin. Ebaketa-energia txirbilak fusio-temperatura lortzeko energiarekin estimatzen dute. Gainontzeko energia goldaketari esleitzen zaio. Energia banaketak energia minimoaren printzipioa jarraitzen du: uneoro energia minimoa behar duen mekanismoa gailentzen da. Ebaketak, goldaketak eta igurzketa bako bako energia gutxiago behar du, beraz sakonera muga gainditzen denean txirbila sortuko da. Alearen sakonera  $\delta_p$  ebaketa-sakonera minimoa baino txikiagoa bada, txirbila sortzeko energia infinitua da. Artezketaren energia espezifikoa neurri efektua, goldaketarekin estuki lotuta dago.

Malkinek eta Cookek [MC71], aleen higadura aztertzean, ebaketa eta labain-



**2.24. Irudia:** Taborren ale higatuen igurzketakontaktuko ereduak (a) alearen puntan material pilaketa gabe [BT39] eta (b) alearen puntan material pilaketarekin (*junction growth*) [Tab59]


keta osagaietan banatzen dute indar tangenziala. Labainketa osagaia marruskadura eta higadura-planoen (*wear flats*) funtzioan dago. Aleak jasandako indar tangenzialekin eta normalekin aglomeratzaileko tentsioak estimatzen ditu. Horrela, alea askatzeko probabilitatea zehazten duen ereduak aurkezten du.

### Eredu analitikoak


Urradura-eredu analitikoek oinarritzko mekanismoak aztertzen dituzte: igurzketak, urradura eta ebaketa. Oinarritzko hiru mekanismoak artezketan urratzaile-pieza interakzioan agertzen direnekin bat egiten dute, urradura goldaketaren baliokidea baita. Artezketan, material harroketak urradura prozesuetan gertatzen diren marruskadura eta higadura fenomenoaren antz handia dauka. Aleko ebaketa-sakonera txikiak dira eta ale askok piezaren gainazala urratzen dute txirbilik sortu gabe. Oinarritzko urradura-eredu bakoitzak hipotesi ezberdinetatik abiatzen da, hala nola, Von Misesen isurpen-irizpidea, ebakidura labainketa-lerroak edo ebaketa ortogonalaren teoria. Oinarritzko hurbilpen horiek, urraduran parte hartzen duten aldagaiak identifikatu eta bakoitzaren ekarpena zehazten dute. Bestalde, gogortasun-saiakuntzarekin eta mikro-fresaketarekin analogiak ere proposatu dira ale urratzailearen akzioa deskribatzeko.

Igurzketa kontaktua hurbilpena Tabor-ren lan klasikoetan oinarritzen da. Oinarritzko adhesioan [BT39], ale azalean sakonera txikian eta horizontalean desplazatzen da (2.24.(a) Ir.). Isurpen-baldintzak Mohr-en zirkulua erabiliz definitzen dira eta muturrean tentsio ebakitzailak ez dute isurpen-tentsioa gaintzen. Taborrek ereduak moldatzen du [Tab59], errealitatean muturrean agertzen den pilatze efektua (*junction growth*) barneratzeko (2.24.(b) Ir.). Alearen puntan pilatutako materialaren erruz, indar tangenziala handitzen dela konturatu da, indar normalean aldaketarik sumatu gabe. Horrela, pilatze eremuan konpresio tentsio normalak azpian baino txikiagoak dira. Bigarren ereduak  $\mu$  marruskadura koefiziente handiagoak estimatzen ditu, balio errealek gehiago hurbilduz.

Urradura-kontaktuari dagokionez (goldaketa), Rabinobitz-ek [Rab65] 2.25. Irudiko konoak gainazala urratzean indarrak aztertzen ditu. Arazoa bi ikuspuntutatik lantzen du: piezaren gogortasuna eta tentsio ebakitzailak. Emaitzak antzekoak dira: marruskadura koefizientea konoaren maldaren funtzioan dago. Kono angelu handiek marruskadura murrizten dute, higatutako aleetan



**2.25. Irudia:** Konoak sortutako ildaska goldaketaren ondorioz [Rab65]




**2.26. Irudia:** (a) Indentazioaren analisia ebakidura labainketa-lerroen bidez [Joh87]; (b) ale urratzaileak arteztean sortutako labainketa-lerroen eremu sinplifikatua [Lor79]


gertatzen den antzera. Hau da, ale zorrotzetan ezik, goldaketa gailentzen da deformazio mekanismoen artean.

Ebakidura labainketa-lerroek (*shear slip-lines*) materialen isurpena era grafikoan azaltzen dute. Labainketa-lerroak soilik tentsio lauko kasuetan aplikatu daitezke, baina baldintza hori betetzen ez den kasuetan ere lagungarriak dira fenomeno fisikoa azaltzeko. Morhen zirkuluan oinarritzen dira. Labainketa-lerroek tentsio ebakitzailerdinak dituzten puntuak lotzen dituzte. Isurpen plastikoan gainazal librearekin  $45^\circ$ tan ebakitzen dira; alearen gainazalekin berriz  $\gamma$  marruskadura-angeluarekin mozten dira. Tomlenov-en indentazio soluzioak [Joh87], azpialdean *D-E-F* eremu hila aurreikusten du (2.26.(a) Ir.). Eremu horrek indentadorearekin batera lan egiten du.

Lortzek [Lor79] esferaren urradura-eredua (goldaketa) aurkezten du. Materiala alearen aurrean pilatu egiten da eta azpian, berriz, deformatu (2.26.(b) Ir.). Challen-ek eta Oxley-k [CO79] artezketarako baliagarriak diren hiru labainketa-lerro eredu aurkeztu dituzte. Lehena, higadura gabeko urradura uhin-eredua da (2.27.(a) Ir.), bigarrena urradura uhin-eredua higadurarekin (2.27.(b) Ir.) eta hirugarrena, berriz, txirbil sorkuntza (2.27.(c) Ir.). Lehenengoak marruskadura koefizienteak estimatzeko erreminta baliagarria dela frogatu du. Bigarrenean, materiala etengabe pilatzen da alearen puntan, jarraitasun baldintzak hautsiz. Txirbil-sorkuntza ereduak energia minimoaren printzipioa jarraitzen du. Horren arabera, txirbil-sorkuntza urradurari beti gailenduko zaio gutxieneko baldintzak betetzean. *D* erpinaren azpian konpresio tentsioak uzten ditu marruskadura koefiziente altuak. *AD* labainketa-lerroan zehar, talka-uhin bat barreiatzen da



**2.27. Irudia:** Challengen eta Oxleyen labainketa-lerro ereduak: (a) urradura uhin-eredua higadura gabe, (b) urradura uhin-eredua higadurarekin, eta, (c) txirbil-sorkuntza ereduak [CO79]



**2.28. Irudia:** (a) Ebaketa-eremuak [MRDI04], (b) txirbil-sorkuntza hiru dimentsiotan [WX92]

txirbila askatuz. Urraduran lubrikazioa hobetzeak indar tangenziala murrizten du; txirbil-sorkuntzan, berriz, alderantzizkoa gertatzen dela erakusten du ereduak.

Alearen material harroketa metalen ebaketaren teoriarekin ere aztertu daiteke. Artezketa-indarrak, aleak materialean sortzen dituen tentsio ebakitzailen menpe daude. Metalen ebaketaren teorian hiru ebaketa-eremu deskribatzen dira (2.28.(a) Ir.). Ebaketa-eremu nagusia ebakidura-eremuari dagokio, alearen puntaren eta piezaren gainazalaren artean. Ideialki, eremu hau planotzat hartzen da eta  $\phi$  ebakidura-angeluaz definitzen da. Bigarren ebaketa-eremua txirbila eta alearen jaulkitze-aurregiaren artean agertzen da. Marruskadura da hor nagusi. Hirugarren eremua, berriz, alearen azpian kokatzen da, azpijan-aurregian. Bertan urradura nagusitzen da. Bigarren eremuan, ebakidura deformazio-abiadura eremu nagusian baino azkarragoa da, temperatura lokal handiak sortuz eta higaduran zuzenki eraginez. Aleek jaulkitze-angelu oso negatiboak dituzte, konpresio-eremu plastikoak sortuz alearen aurrean. Alea behin pasata, trakzio tentsioetara trantsizio azkarra gertatzen da materialean.

Williams-ek eta Xie-k [WX92] piramide geometria duen alearen ebaketa zeiharra aztertzen dute. Aleak  $\alpha$  jaulkitze-angelua dauka, eta  $2\beta$  angelu die-droa oinarrian. Ebaketa zeiharra baimenduz gero, txirbila  $\alpha$  txikietan sortzen

da. 2.28.(b) Irudiak erakusten du alearen aurrealdean materiala pilatu, alboetara bultzatu eta txirbila sortzen dela. Gandorrez inguratutako ildaska uzten du aleak bere atzean. Goldaketa eta harroketa arteko trantsizioa  $\alpha = 6^\circ - 12^\circ$  artean aurreikusten du ereduak, 2D azterketetan lortutakoak baino balio txikiagoak.


Torrancek, Brener-rekin eta Badgerrekin batera [TB96, BT00], labainketa-lerroen [CO79] eta ebaketa zeharraren [WX92] ereduak alderatzen ditu sarrera datu berdinar erabiliz. Topografia-neurketen bidez lortzen dira malda eta alentsitate sarrera-datuak. Bien emaitzak neurketa esperimentaletan neurtutakoekin bat egiten dute, ebaketa zeharrarekin lortutakoak zerbait hobeagoak direlarik.

Oinarrizko eredu analitikoek gain, ale urratzaileen akzioa gogortasun-saiakuntzarekin eta mikro-fresaketarekin alderatu da. Ale mailan, txirbil harroketa mekanismoak mikro-estrusioarekin antzekotasunak ditu. Mekanismo horrek material bolumen handi bat plastikotasunera eramatea dakar, material kantitate txiki bat txirbil eran ihesten delarik. Fenomeno honetan inspiratuta, Shawek [Sha71, Sha96], artezketan alearen akzioa indentazioaren analogiarekin deskribatzea proposatzen du. Bere esanetan, aleak jasandako indarrak gogortasun-saiakuntzan agertzen direnen natura berekoak dira. 2.29.(a) Irudiak Brinell frogaren eskema erakusten du, non piezak  $\mathbf{f}_{\text{HB}}^i$  indarra eusten duen  $\pi a_1^2$  azaleran,  $a_1$  kontaktu-azaleraren erradioa izanik. Bestalde, 2.29.(b) Irudiak Shawen txirbil-sorkuntzaren gogortasun-frogaren eredu aurkezten du. Ale urratzailearen sorbatza  $\rho_s$  erradioko esferak ordezkutzen du (ikus 2.3.2. Atala). Gogortasun-frogan indentadorearen azpiko eremu plastikoa guztiz konfinatua dagoen bitartean, sorbatzaren azpiko eremu plastikoa aske da inklinatutako kargaren ondorioz. Alea horizontalki desplazatzean materiala eremu plastikotik gorantz ihesten da, aurrean pilatuz.  $\delta_i$  sakonera nahikoa bada, txirbila sortzen da. Horrela, Shawek txirbil-sorkuntza baldintza horiek estrusioarekin alderatzen ditu.

2.31 Ekuazioak Brinell frogan  $\mathbf{f}^i$  indarra estimatzen du (2.29.(a) Ir.).  $H$  piezaren Brinell gogortasuna da.  $C'$  murrizketa-faktorea, bataz besteko kontaktu-presioaren eta piezaren isurpen-tentsioaren arteko ratioa da. Kasu gehienetan  $C'$ -ren balioa 3 inguruan dabil. Indentazio-indarra ale bakarraren analogiara ekartzean (2.29.(b) Ir.), Shawek  $2a_1$  kontaktu-azaleraren diametroa  $b_{\text{cu}}^i$  ale-pieza arteko kontaktu-zabaleragatik ordezkutzen du, eta,  $H$  Brinell gogortasuna kontaktu zurrun-plastiko-perfektuko presioagatik, hau da, hiru aldiz isurpen-tentsioa ( $3\sigma_y$ ). Horrela, bi adierazpenek 2.4.1. Atalean ikusitako kontaktu zurrun-plastiko-perfektuaren baldintzak ere betetzen ditu.

$$\mathbf{f}^i = \frac{1}{4} \pi a_1^2 H \frac{C'}{3} \quad (2.31)$$

Chenek eta Rowek [CR96] eta Heckerrek [HRL03], Shawen indentazioaren analogia barneratzen dute haien eredu zinematikoetan. Horrela, piezaren gainazal zimurtasuna simulatzeaz gain, indarrak ere aurreikusten dituzte. Gogortasun-frogaren analogiaren abantaila nagusia bere sinpletasunean datza:



**2.29. Irudia:** Txirbil-sorkuntzaren gogortasun-froga analogia: (a) gogortasun froga indentadore esferikoarekin; (b)  $\rho_s$  erradioko sorbatzaren indentazioa eta indar erresultantea  $\mathbf{f}^i$  [Sha71, Sha96]

indarraren adierazpena soilik sorbatzaren erradioaren eta ebaketa-sakoneraren funtzioan dago, eta ongi deskribatzen du ale urratzailearen akzioa.

Ebaki-gabeko txirbil-lodierak  $h_{cu}$  eta sorbatz-erradioak  $\rho_s$  artezketan magnitude orden berekoak dira. Horrela, jaulkitze-angelu eraginkorrak oso negatiboak dira eta esferaren hipotesia onargarria da. Shawen arabera, materialaren desplazamendu- eta ebakidura-baldintzek artezketan energia espezifiko bereziki altuak eragiten dituzte. Gogortasun- eta ale bakarraren frogetan, bietan ez dute antzik ez deformazio plastikoek, ez deformazio-abiadurek, ezta tenperatura-baldintzek ere. Hau da, isurpen-baldintzak gogortasun-frogan giro-tenperaturan eta baldintza ia-estatikoetan gertatzen dira, eta, ale urratzaileak, aldiz, abiadura bizian materiala urratzean. Heckerrek, tenperaturaren eta abiaduraren eraginak kontuan hartzeko, indarren adierazpenari  $C_1$  faktore zuzentzailea biderkatzen dio.  $C_1$  emaitza esperimentalekin doitzen du. Beste konponbidea, isurpen-tentsioa definitzeko materialaren portaera biskoplastikotzat jotzea da. Ale bakarraren froga simulatzen duten zenbakizko ereduaren antzera, aldiuneko isurpen-tentsio eraginkorra eredu eratzaile batez estima daiteke. Analogiak beste arazo bat du: igurzketa-, goldaketa- eta ebaketa-mekanismoak ez ditu bereizten. Beraz, gogortasun-frogaren analogiak artezketaren neurri efektua arbuiatzen du, energia espezifikoa handiagoa baita azaleko sakoneretan igurzketa- eta goldaketa-aren ondorioz.

Artezketa fresaketarekin alderatu dutenak ere badaude. Aldenen analisi zinematikoan inspiratuta [Ald1914], egile batzuk mikro-fresaketaren analogia haratago eramanez ale mailako indarrak aztertzeko [Ono61, Rub72]. Hurbilpen hauek ale urratzaile bakoitzaren akzioa sorbatzat hartzen dute. Bestalde, alean indarra estimatzeko Kienzle-k eta Victorrek [KV54] torneaketarako garatutako indar-eredua erabiltzen dutenak ere badaude [Wer78, AK12]. Changek eta Wang-ek [CW08], Wang-ek fresaketarentzat aurrez garatutako eredu analitikoak

[WZ02] ale bakoiztean aplikatzen dute energia espezifikoa funtzioan.

2.32 Ekuazioak Ono-k alean eragiten den aldiuneko indar tangenziala  $\mathbf{f}_t^i$  estimatzeko proposatzen duen adierazpena aurkezten du. Ekuazioan,  $k_s$  indar espezifikoa da,  $A_c$  aldiuneko ebaketa-sekzioa eta  $\theta$  alearen posizio-angelua.  $A_c$  aldiuneko ebaketa-sakonerarekiko eta sorbatzaren geometriarekiko aldatzen da. Onok  $k_s$  enpirikoki definitzen du 2.33 Ekuazioaren potentzia-funtzioarekin, non  $C_1$  eta  $C_2$  konstanteak diren. Horrela,  $k_s$ -k bat egiten du  $e_s$  artezketa energia espezifikoarekin.

$$\mathbf{f}_t^i(\theta) = k_s A_c(\theta) \quad (2.32)$$

$$k_s = C_1 A_c^{-C_2} \quad (2.33)$$

Aldiz, Kienzle-Werner hurbilpenak (2.34 Ek.) antzeko adierazpena proposatzen du,  $C_3$  esponentea  $A_c$ -n aplikatuz. Bi egileek adierazpenak garatzen dituzte, lan-abiaduren eta ebaketa-sakoneraren eta harriaren diametroaren menpeko funtzioak lortuz. Bi adierazpenak oso antzekoak dira. Chenek [Che95] bi ereduak konbinatzen ditu esponenteen eragina aztertzeko. Alde batetik, indarra ale-dentsitatearen eta kontaktu-luzeraren menpe dago eta, bestetik, sakonera nagusitzen da. Horrela ondorioztatzen du artezketa-indarra marruskadura- eta ebaketa-indarren konbinaketa dela, neurri-efektuarekin bat datorren deskripzioa.

$$\mathbf{f}_t^i(\theta) = k_s A_c(\theta)^{C_3} \quad (2.34)$$

Changek eta Wangek [CW08] indar tangenziala eta ebaketa-sekzioa linealki erlazionatzen dute artezketa energia espezifikoarekin (2.32 Ekuazioan  $k_s \rightarrow e_s$ ). Hurbilpen honek urradura-mekanismoak eta neurri-efektua guztiz arbuizatzen ditu.

Laburbilduz, aleak piezarekin duen interakzioan igurzketa, goldaketa eta ebaketa gertatzen dira baldintzen arabera. Igurzketa, urradura eta ebaketa oinarrizko mekanismoen eredu analitikoak erabili dira artezketan ale bakarrak duen portaera aztertzeko. Horiek fenomeno errealarekin antzekotasun erlatiboa erakutsi dute. Nahiz eta hiru mekanismoak aldi berean deskribatzeko gai ez izan, bakoitzari buruz informazio interesgarria eskaintzen dute. Horietako bi, topografia-ereduekin konbinatuz, artezketa-indarrak aurreikusteko erabili dira; ebakidura labainketa-lerroak eta zeharkako ebaketa. Neurketa esperimentalekin konparatuz, biek emaitza onargarriak lortzen dituzte, nahiz eta alearen geometriaren eta marruskadura parametroen definizioa zaila izan. Ale bakarraren akzioa deskribatzeko analogiak ere proposatu dira gogortasun-frogarekin eta mikro-fresaketarekin. Biak errazak dira indar-ereduetan inplementatzen. Gogortasun-frogaren analogiak deformazio-abiadura eta tenperatura altuak arbuizatzen ditu, beraz, isurpen-tentsioak zuzenketa behar du. Mikro-fresaketa eredu, berriz, sinplea da, baina beharrezkoa da aurrez konstante enpirikoak esperimentalki definitzea.



### Zenbakizko ereduak

Txirbil-sorkuntza, ez soilik kualitatiboki, kuantitatiboki ere deskribatzeko, hainbat zenbakizko eredu proposatu dira. Eredu analitikoek ez dituzte kontuan hartzen parametro garrantzitsu guztiak, hala nola, deformazio-abiadura, tenperatura banaketa, edo higadura-portaera. Zenbakizko erremintek ikuspuntu osoagoa eskaintzen dute. Hainbat FEM hurbilpen daude, gehienak 2D, idealizatutako ale-geometriak modelatzen dituztenak [DWB09]. Era berean, dinamika molekularra (*molecular dynamics*, MD) gisako eredu atomistikoaren erabilerak azaleratu egin du materialaren portaera eta harroketa-mekanismoak eskala mikroskopikoan [MRDI04, DWB06, BAG<sup>+</sup>06]. Ale bakarraren zenbakizko eredu gehienak ohiko metalen ebaketa ortogonalaren kontzeptuetan oinarritzen dira.

Domanek *et al.* [DWB09] ale bakarraren FEM ereduak, erabilitako materialaren eredu eratzailearen arabera sailkatzen dituzte. Horrela, materialaren portaera elastikoa, elastoplastikoa, termoplastikoa edo hauskorra (zeraamika) izan daiteke. Eredu eratzaile elastikoak, pieza materiala Hookeartzat hartzen du; eredu elastoplastikoak, berriz, elastikotasunaz gain, plastikotasuna ere kontuan hartzen du. Material termoplastikoak, aurrekoari tenperaturaren efektua gehitzen dio. Azkenik, material zeraamikoaren ereduak mikro-pitzaduren sorkuntza, batura eta zabalkuntza deskribatzen ditu, eta kaltearen pilaketak erresistentzian duen eragina simulatzeko gai da.

Erroketako bat txirbil-sorkuntzaren modelaketa izan da. Klockek *et al.* [KBH<sup>+</sup>02], formulazio esplizitua duen *DEFORM* software komertzialean oinarrituz, 2D FEM ereduak sortzen dute. Ereduak txirbil-sorkuntza simulatzen du sarrera-datuaren artezketa-parametro errealek erabiliz, hala nola, ebaketa-sakonera, -abiadura eta ale-geometria. 1700 °C tenperatura maximoak lortzen dira, baina ereduak ez du deformazio-abiaduraren eragina jasotzen. Ondorengo ereduak gabezia hori konpontzen dute, piezaren portaera biskoplastikoa modelatuz. Ohbuchi-ren eta Obikawa-ren [OO05] 2D ereduak txirbil jarraitu zerrera-erakoak simulatzen ditu. Ereduak deformazio plastikoaren, deformazio-abiaduren, tenperaturen eta isurpen-tentsioen eremuak marrazten ditu, sakoneraren eta jaulkitze-angeluaren funtzioan. Ereduak txirbila sortzeko  $\delta_c$  sakonera minimoa ere kalkulatu du isurpen-baldintzen arabera (ebaketa-sakonera, isurpen-tentsioak, tenperatura). Park-ek eta Liang-ek [PL09] ere ale bakarraren frogak modelatzen dute. Materialaren portaera biskoplastikoa modelatzeko Johnson-Cook (JC) eredu eratzailea erabiltzen dute (2.4.3. Atala). 2D eredu honek harri osoaren deflexioa eta bero iturria ere kontuan hartzen ditu.

Domanek *et al.* [DBW09] ale bakarraren frogaren lehen 3D FEM ereduak garatu dute. 2 mm diametroa duen esferak modelatzen du ale urratzailea. Igurzketa-urradura arteko trantsizioa erosio teknikaz bereizten dute, deformazio plastiko handiak jasan dituzten elementuak ezabatuz. Materialaren propietate biskoplastikoak JC ereduak aplikatuz deskribatzen dira. Nodo-nodo zigor algoritmoa erabili beharrean, segmentuetan oinarritutako kontaktu-algoritmoa garatzen dute simulazioaren egonkortasuna hobetuz. Ereduak igurzketa eta urradura faseak modelatzen ditu, eta bien arteko  $\delta_c$  trantsizio-sakonera 3  $\mu\text{m}$ -tan zehazten du. Sakonera horrek zentzua du, esferaren erradio handiaren ondorioz.

Eredua esperimentalki balioztatzen dute, zenbakizko emaitzekin korrelazio onak lortuz. Anderson-ek *et al.* [AWB11] Domanen lana jarraitzen dute, 0,5 mm diametroa duen esferaren akzioa modelatuz eta frogatuz. Ereduak formulazio Lagrangearra eta Eulertarra nahasten ditu 3D eredu berean, JC ereduaz gain. simulatzean. Emaitzak neurketa esperimentalekin alderatzen dituzte. Besteak beste, ereduak  $\delta_p$  goldaketa- eta  $\delta_c$  ebaketa-sakonera kritikoak zehazten ditu, eta baita fase bakoitzari dagokion energia espezifikoak ere.  $\delta_p$  balioak 0,06 - 1  $\mu\text{m}$  artean daude eta  $\delta_c$  balioak, berriz, 3 - 5,3  $\mu\text{m}$  artean. Balio horiek altuak dira, ziur aski alearen diametro handiagatik.

Rasimen *et al.* [RKM15] ereduak perfekzioa urratzen du, esperimentalki neurtutako ale-geometria amorfoa zenbakizko ereduari modelatuz, eta emaitzak ale berdinarekin egindako neurketa esperimentalekin alderatuz. Korrelazio onak lortzen dira pilatutako eta harrotutako material frakzioen artean, baina simulatutako indarrak behatutakoen erdiak dira. Tenperaturak termopare polobakarrarekin neurtzen dituzte. Ebaketa-sekzioa handituz doan heinean tenperatura igoerak nabaritzen dituzte. Akbari-k *et al.* [ABW16] ale bakarraren froga modelatzen dute diamante-titanio bikotearentzat eta hauek ere eredu esperimentalki balioztatzen dute. Ebaketa-abiadura mantsok dira (0,8 m/s), tenperaturak kamera infragorri bidez neurtzen baitituzte. Hala ere, tenperatura maximoak ebakidura-eremuan agertzen dira, termografia bidez behatu ezin direnak.

Bestalde, artezketarekin erlazioatutako MD ereduak material harroketa eskala nanometrikoan (< 4 nm) simulatzen dute, ohiko artezketa-sakonera mikrometrikoetatik urrun. MDren arazoak azaleratzen dira mikro-topografia, materialaren portaera eta interakzioak deskribatzeko potentzial-funtzioen definitzerakoan eta beharrezko CPU-kostua 3D eredu txikiena ere ebazterakoan. FEM-MD eredu hibridoek aukera ematen dute neurri handiagoko ereduak simulatzeko. FEM domeinu jarraituak energia elastikoa soilik pilatzen du, eta DEM domeinu diskretuan, berriz, aztertutako diren interakzio atomistikoak simulatzen dira. Eredu hauetan, zailtasunak bien arteko interfazeko baldintzak definitzean agertzen dira. Ereduen neurria murrizteko beste aukera, partikula mesoskopikoak edo atomo multzoak erabiltzea da [KD08, JDCI16].

### 2.4.3. Biskoplastikotasuna

Artezketan, ebaketa-sorbatzak abiadura ia-balistikoetan (20 - 40 - 60 m/s eta gehiago) zeharkatzen du pieza. Abiadura horietan deformazio plastikoak eta deformazio-abiadurak materiala zurruntzen dute; ebakidura-eremuan, aldiz, materiala ahultzen duen bero itzela sortzen da [Mal08]. Baldintza hauetan materialaren portaera mekanikoa guztiz aldatzen da, aldi berean erresistentzia handituz eta isurpena erraztuz. Baldintza hauetan, piezak portaera biskoplastiatikoa erakusten du.

Biskoplastikotasunaren teoria eremu jarraituen mekanikaren parte da eta soldoan abiadurarekiko menpeko portaera inelastikoa deskribatzen du. Abiadurarekiko menpekotasunak, materialaren deformazioa kargen aplikazio abiaduraren menpekoko dela esan nahi du [LC94]. Deformazio-abiaduraren funtzioan dagoen

tentsio-maila gaindituz gero, materialak deformazio iraunkorrak jasaten ditu. Metaletan biskoplastikotasuna, ale eskalan behatutako dislokazioen ondorio da. Mekanismoa fusio-tenperaturaren herena gainditzean nagusitzen da.

Materialen propietate biskoplastikoak karakterizatzeko honako frogak egiten dira: gogortze-frogak tentsio edo deformazio konstantean, *creep* frogak karga konstantean eta tentsio-lasaitzea luzapen konstantean. Materialaren isurpen-muga gainditzean, isurpen-egoera mantentzeko tentsioa handitu behar da, hau da, erresistentzia handitzen doa. Fenomeno horri deformaziogatikiko gogortzea edo *strain hardening* deritzo. Abiadurarekiko menpekoak ez diren materialen gogortze-kurben (tentsio-deformazio diagramak) antzekoak dira, baina deformazio berdinarekin abiadura handiagoan, tentsioak handiagoak dira. Isurpena edo *creep* solido batek tentsio eta temperatura konstante pean erakusten duen deformazio-portaera da. Deformazioak iraunkorrak dira. Lasaitze-frogetan deformazioa konstante mantenduz, tentsioa neurtzen da denboran zehar. Froga hauek biskositatea karakterizatzen dute, tentsioaren eta deformazio-abiaduraren artean dagoen erlazioa definituz.

Biskoplastikotasuna modelizatzeko bi hurbilpen mota daude [LC94]. Gaintentsio edo deformazio-abiadura plastikotasun ereduetan, tentsioak gaindi dezake abiadurarekiko menpeko ez den isurpen-tentsioaren eta denboraren funtzioan lasaitzen da. Deformazio-abiadura aldaketak simulatzeko gai dira. Perzyna-ren formulazioa da ezagunena [Per66].

Bigarren eredu familiak isurpen-tentsioa definitzean, deformazio-abiadura ere kontuan hartzen du. Isurpen-tentsio ereduaren helburua, Von Mises edo Tresca hutsegite-irizpideen antzera, temperatura eta deformazio-abiadura jakin batzuetarako  $\sigma_y$  isurpen-tentsio eraginkorra estimatzea da. Hainbat isurpen-tentsio eredu enpiriko eta erdi-enpiriko proposatu dira. Azken hauek dislokazioen dinamikan oinarritzen dira eta talken azterketa da nagusiki haien erabilpen arloa. Hurrengo Atalak aurkezten duen Johnson-Cook eredu eratzailea eredu-talde honen partaide da.

### Johnson-Cook eredu eratzailea

Jonhsonek eta Cookek [JC83] Estatu Batuetako armadarentzat garatutako eredu 1983an ezagutzera eman zuten kongresu batean Holandan. Ordudanik eredu eratzaileen artean erreferentzia bihurtu da, parametroak definitzeko dituen erraztasunagatik eta zenbakizko konputazioan inplementatzeko eskaintzen dituen abantailengatik. Johnson-Cook (JC) eredu guztiz enpirikoa da. 2.35 Ekuazioak  $\sigma_y$  isurpen-tentsio efektiboa estimatzeko adierazpena aurkezten du,

$$\sigma_y(\varepsilon_p, \dot{\varepsilon}_p, T) = [A + B\varepsilon_p^n] \left[ 1 + C \ln \frac{\dot{\varepsilon}_p}{\dot{\varepsilon}_o} \right] \left[ 1 - \left( \frac{T - T_o}{T_m - T_o} \right)^m \right] \quad (2.35)$$

non  $\varepsilon_p$  deformazio plastikoa,  $\dot{\varepsilon}_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_o$  uneko eta erreferentziatzeko deformazio-abiadurak, eta  $T$ ,  $T_o$  eta  $T_m$  uneko, giro- eta fusio-tenperaturak diren.  $A$ ,  $B$ ,  $n$ ,  $C$  eta  $m$  enpirikoki definitzen diren material konstanteak dira.

Kortxete arteko lehen adierazpenak, isurpen-tentsioa deformazioarekiko adierazten du erreferentziazko baldintzetan.  $A$  isurpen-tentsioa da;  $B$ -k eta  $n$ -k deformazio-gogortzearen efektuak biltzen dituzte. Konstante horien balioak bai trakzio-frogetatik, baita bihurtura-frogetatik ere lor daitezke. Kortxete arteko bigarren adierazpenak deformazio-abiaduraren eragina barneratzen du.  $C$  erreferentziazko tenperaturaren trakzio- edo bihurtura-frogak hainbat abiaduratan neurtuz definitzen da. Azkenik, hirugarren kortxete arteko adierazpenak tenperaturaren eragina jasotzen du.  $m$  esponentea, deformazio-abiadura konstante mantenduz, hainbat tenperaturetan egindako frogen bidez doitzen da.

JC ereduak, FEM gisako zenbakizko erremintetan erraz barneratzen da, horiek barnean  $\varepsilon_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $T$  aldagaiekin lan egiten baitute. Hainbat egilek aplikatu dute JC ereduak artezketan, piezak portaera biskoplastikoa duela; nagusiki, ale bakarraren froga zenbakizko ereduarekin simulatzean [DBW09, AWB11, RMK15, ABLW16]. Ding-ek *et al.* [DLL15] JC eta fase-transformazio ereduak batera aplikatzen dituzte maraging altzairuen artezketan modelatzen duen FEM eredu termikoan. Ohbuchik eta Obikawak [OO05] eredu eratzaila propioa garatzen dute, JC ereduaren antzekoa.

Hala ere, FEMen ez bezala, eredu mekanistiko batean alea-pieza interakzioan era analitikoan JC ereduak aplikatzea ez da hain berehalakoa. Deformazio- eta tenperatura-baldintzak aldatuz doaz kontaktu-arkuan zehar ebaketa-sakoneren funtzioan. Hurrengo Atalak ale mailan aldagai biskoplastikoen definizioaz eztabaidatzen du.


### Deformazioei eta tenperaturei buruzko eztabaida

Esan berri da,  $\varepsilon_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $T$  aurrez ezezagunak direla eredu zinematikoetan. Parametro horien hurbilpena, ikuspuntu numerikotik, analitikotik eta esperimentaletik landu daiteke. Aldi berean hainbat aleen akzioak hiru aldagaiekin duen eragina zehazteko arazoa ere gainditi behar da, tenperaturei zuzenki eragiten diona.

2.4.2. Atalak ale bakarraren froga modelatzen duten zenbakizko ereduak aipatzen ditu.  $\varepsilon_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $T$  eremuak ebaketa-baldintzen funtzioan estimatzeko gai dira. Lortzen dituzten oinarriko emaitzek parte hartzen duten aldagaien eragina eta garrantzia ebaluatzeko gaitasuna erakutsi dute. Bestalde, zaila da lortutako emaitzak esperimentalki balioztatzea. Horretaz gain, tenperatura estimatzean ez dute inguruko aleen eragina jasotzen.

Deformazioen eta tenperaturen neurketa esperimentala erronka handia da artezketan. Ebaketa ortogonalean, ebaketa bat-batean geratzeak (*quick-stop*)  $\varepsilon_p$  deformazio-plastikoen behaketa ahalbidetzen du, erreminta bat-batean askatuz eta ebaketa-eremua izoztuz. Froga ale bakarrera moldatzea konplexua izango litzateke, sorbatzen geometria irregularren eta goldaketak alboetara desplazatutako materialaren ondorioz. Bestalde,  $\phi$  ebakidura-planoaren posizio-angelua (2.30. Ir.) eta  $\dot{\varepsilon}_p$  deformazio-abiadurak ezin dira esperimentalki neurtu.

Eredu analitikoek ebakidura-eremua idealizatzen dute. Material harroketaren teoriaren oinarrietan dago txirbilaren bat-bateko sorrera ebakidura planoan. 2.30. Irudiak ebaketa-ortogonalaren aldagai geometrikoak aurkezten di-



**2.30. Irudia:** Ebaketa ortogonal eraso-angulu negatiboetan; azterketa geometrikoa ebakidura planoan [OY89]

tu. Ale urratzaileen sorbatzek  $\alpha$  jaulkitze-angulu aldakor oso negatiboa dute.  $\phi$  ebakidura-anguluak definitzen duen ebakidura-planoan gertatzen da ebaketa. Eugene Merchant-ek [Mer45] metal harroketan dauden erlazio garrantzitsuenetakoa proposatu zuen 1945. urtean. Adierazpena, ebaketa ortogonalean eragiten duten indarren analisitik ondorioztatzen du. Bere adierazpenak,  $\alpha$  eta  $\beta$  marruskadura-angelua  $\phi$ -rekin erlazionatzen ditu (2.36 Ek.),  $\phi$ -ren balioak ebakidura-energia minimizatzen duen posizioa hartzen duelarik. Adierazpenak materialaren ebakidura-erresistentzia ebakidura-planoan konstantetzat hartzen du, deformazio-abiaduren eta tenperaturen eraginik jaso gabe. Horregatik, adierazpen zehatzat baino hurbilpentzat hartzen da. Merchanten adierazpenaren hainbat moldaketa proposatu dira, hasierako hipotesiak aldatuz edo konstante empirikoekin doitzuz [Sch00]. Nolanahi ere, horien emaitzak ere hurbilpenak dira. 2.37 Ekuazioak  $\beta$  marruskadura-angelua estimatzen du,  $\mu$  indar-arrazoiaren eta  $\alpha$ -ren funtzioan.

$$\phi = 45^\circ + \frac{\alpha}{2} - \frac{\beta}{2} \quad (2.36)$$

$$\beta = \arctan(1/\mu) + \alpha \quad (2.37)$$

Ebakidura-planoko egoera ebakidura hustzat hartuz, 2.38 Ekuazioak  $\varepsilon$  deformazio unitarioa kalkulatu du. Bestalde,  $\varepsilon$  deformazio-abiaduraren definizioa ez da hain zuzena  $\Delta y$ -ren zehazgabetasunaren ondorioz (2.39 Ek., 2.30. Ir.). Oxleyk [OY89], behaketa esperimentaletan oinarrituz, 2.40 Ekuazio empirikoa aurkeztu du, non  $C_1$  materialaren konstantea den. 2.39 Ekuazioan  $v_s$  ebaketa-abiadura da eta  $h_{cu}$ , berriz, ebaki-gabeko txirbil-lodiera (edo sakonera). Deformazio-abiaduraren balioak arteketan oso altuak dira, ia talketan agertzen diren adinakoak ( $10^5 - 10^7 \text{s}^{-1}$ ) [RKM15].

$$\varepsilon = \cot \phi + \tan(\phi - \alpha) \quad (2.38)$$

$$\dot{\epsilon} = \left( \frac{\Delta s}{\Delta t} \right) \cdot \frac{1}{\Delta y} = \frac{\cos \alpha}{\cos(\phi - \alpha)} \cdot \frac{v_s}{\Delta y} \quad (2.39)$$

$$\dot{\epsilon} = C_1 \frac{v_s \cos \alpha}{\cos(\phi - \alpha)} \frac{\sin \phi}{h_{cu}} \quad (2.40)$$

Artezketaren tenperaturei dagokienez, harroketa-baldintza desegokiek piezaren gainazalean sortutako kalteak hainbat ikertzaileen interesa piztu du, eskuragarri dagoen literatura zabalak islatzen duena. Marinescu-k *et al.* [MRDI04] tenperaturak aurreikusteko zenbakizko ereduaren eta metodo analitikoaren berrikusketaz gain, neurketa-teknikak ere biltzen dituzte. Artezketan erraz gainditzen dira harrotutako materiala urtzeko beharrezkoak diren energiak; aleak eta txirbilak ia materialaren fusio-tenperaturetara iristen dira [Mal08]. Ale bakarraren zenbakizko simulazioek aurreko baieztapena konfirmatzen dute, 1700 K tenperaturak aurreikusiz [KBH<sup>+</sup>02]. Gainontzeko energia piezan, ale urratzaileetan eta hozgarrian barreiatzen da. Tenperatura maximoak jaulkitze-aurpegiaren aurkitzen dira txirbila labaintzean sortutako marruskadura-indarren ondorioz. Ausaz abiadura bizian gertatzen diren interakzio kopuru itzelak, tenperaturen neurketa zuzena zailtzen du artezketan. Ale bakarraren frogan, hozketa biziki azkarra da: milisegundo bakarrean tenperatura maximoa laudenera erortzen da behin alea pasata [USN96]. Termopare polobakarra, erradiazio pirometroa, infragorri kamera (*infra-red*, IR) eta analisi metalografikoa dira tenperaturak atzemateko neurketa-teknika nagusiak. Egitura metalografikoan aldaketak ezik, metodo guztiek bai harri osoarekin, baita ale bakarrarekin ere neurketa ahalbidetzen dute [USN96, RKM15, ABLW16]. Biak neurtuta ere, zaila izango litzateke posizio jakin batean tenperatura zehaztea ebaketa-sakonerearen arabera, erabilitako neurketa-teknika edozein dela ere.

Termopare polobakarrak harri osoarekin egindako neurketek, elektrodoa zeharkatzen dituzten aleek sortutako tenperatura-tontorrak biltzen ditu eta, gainera, baita inguruko aleek sortutako beroaren eragina ere (hondo-tenperatura). Froga berdina ale bakarrarekin, berriz, tenperatura-tontor bakarra nabaritzen du. Lehenengoan, ale bakoitzaren ebaketa-sakonera ezezaguna da; bigarrenengoan, aldiz, ezaguna. Behatutako tenperatura, hiru ebakidura-eremuetakoaren (nagusia, bigarrena eta hirugarrena) bataz bestekoa da (2.28.(a) Ir.). Termopare finagoan ( $\leq 25\mu\text{m}$ ) tenperatura neurketa lokalizatuagoak eta erantzundebora azkarragoa dituzte. Urratzailea eroalea bada, adibidez CBN, lotura-beroa pieza eta ale bakarraren artean sortu ahal izango litzateke. Disposizio hori literaturan aurkitu da torneaketari lotua, eta erraz aplikatu ahal izango litzateke CBN ale bakarraren frogan. Pirometroak piezan ikusgai dauden gainazal-tenperatura atzematen du. Doitze konplexuak eta tenperatura neurgarri minimoak pirometroen aplikazio eremua murrizten dute. Aldiz, IR sensoreak sinpleak dira, erantzun azkarra dute tenperatura-muga minimorik gabe [ABLW16]. Tenperatura-banaketak piezaren azpi-gainazalean, sakonera gogortasun aldaketak eta mikro-egiturak aztertuz lortu daitezke. Horretarako, beharrezkoa da aurrez piezaren materialaren gogortasuna tenperaturaren arabera kalibratzea, tenperatura-tarte bakoitzarentzat laginak sortuz. Ondorioz,

azken teknika honek prestatze-lan zabala eskatzen du.

$T$  temperaturaren balioa analitikoki ere hurbildu daiteke. Ebaketan sortutako beroaren frakzio bat soilik doa piezara;  $R_w$ -ri piezaren partizio-ratio deritzo. Urratzailearen eta piezaren materialak, energia espezifikokoak, hozgarriak eta kontaktu-luzerak eragiten dute  $R_w$ -n. Carslaw-ek eta Jaeger-ek [CJ59] bero-iturri mugikorren teoriaren oinarriak finkatu zituzten. Artezketan, Besselen funtzioa betetzen duen lerro bero-iturri mugikorra, denborarekiko eta sakonera-erekiko integratzen da. Artezketan erabiltzen diren ohiko bero-iturriek banaketa uniforme edo trianguluarra dute. Ekuazio diferentzial horien emaitzak tauletatik edota matematika-software bidez lortzen dira. Integraletan muga-balioak ezarriz, temperaturak kontaktu-luzeran zehar estimatzen dira. 2.41 Ekuazioak bero-iturri trianguluarren emaitza aurkezten du zehar denboraren funtzioan,  $t = 0$  kontaktu hasieratik  $t = t_c (= l_c/v_w)$  kontaktu-arkuaren bukaera arte:

$$T = \frac{4q_o}{\beta\sqrt{\pi}} t^{1/2} \left(1 - \frac{2t}{3t_c}\right) \quad \text{non } \beta = \sqrt{(k\rho c)_w} \quad (2.41)$$

$$q_o = \frac{F_t v_s}{l_c b_w} \quad (2.42)$$

non  $l_c$  kontaktu-luzera eta  $v_w$  piezaren aitzinamendu-abiadura diren.  $q_o$  azalera unitateko bero-fluxua da (2.42 Ek.).  $\beta$ -k piezaren materialaren propietate termikoak adierazten ditu,  $k$  konduktibitatea,  $\rho$  dentsitatea eta  $c$  bero espezifikoa direlarik. Temperatura-banaketa uniformeak eta trianguluarrek antzeko  $T_{\max}$  balioak aurreikusten dituzte; bere posizioa da aldatzen dena. Esperimentalki neurtutako temperatura grafikoak interpretatuz, artezketeta-baldintzei dagokien bero-iturri banaketa egokiena hautatzen da. Bero-iturriaren banaketak kontaktu-presioa ere islatzen du. 2.43 Ekuazioak  $T_{\max}$  estimatzen du, non  $C_1$  Peclet zenbakiaren menpekota den konstantea den (2.44 Ek.).  $C_1$ -en balioa 0,76 - 1,06 artean dago. Piezaren materialaren propietate termikoek ( $k$  konduktibitate termikoa,  $\rho$  dentsitatea,  $c$  bero espezifikoa) definitzen dute  $\alpha$  difusibitatea. Deskribatu den hurbilpen analitikoak gutxi gorabeherako balioak lortzen ditu; bere fidagarritasuna  $q_o$ ,  $R_w$  eta  $l_c$  balioen zehaztasunaren baitan dago.

$$T_{\max} = C_1 \cdot R_w \cdot \frac{q_o}{\beta} \cdot \sqrt{\frac{l_c}{v_w}} \quad (2.43)$$

$$Pe = \frac{v_w l_c}{4\alpha} = \frac{v_w l_c \rho c}{4k} \quad (2.44)$$

Eredu enpirikoen bidez ere aurreikusi daitezke temperaturak. Ebaketa-baldintza iraunkorretan (i.e. torneaketa) temperaturak estimatzen dituzten ereduak, oinarrian 2.45 Ekuazioak aurkeztutako egitura partekatzen dute [WG06]. Adierazpen horretan,  $T$  piezak lortutako temperatura da,  $C_1$ ,  $C_2$  eta  $C_3$  esperimentalki zehaztutako konstanteak dira,  $v_s$  ebaketa-abiadura da eta  $a$  ebaketa-sakonera. Eredu horiek kualitatiboki zuzenak dira, eta erraz inplementatuko lirake sorbatz geometria eta sakonera ezagunak diren ereduan. Hala ere, korrelazio eskasa erakusten dute artezketaren antzerako txirbil-sorkuntza prozesu ez-jarraituetan.

$$T = C_1 v_s^{C_2} A_c^{C_3} \quad (2.45)$$

Laburbilduz,  $\varepsilon$ ,  $\dot{\varepsilon}$  eta  $T$  aldatuz doaz alearen ibilbidean zehar piezarekin kontaktuan (igurzketak, goldaketa eta ebaketa). Ideialki, desiragarria da  $\varepsilon$ ,  $\dot{\varepsilon}$  eta  $T$  alearen sakonerarekiko ezagutzea, datu horiek JC eredu eratzailan  $\sigma_y$  isurpen-tentsioa estimatzen erabiltzeko. Horrela, kontaktuan dagoen ale bakoitzak eragiten duen ebaketa-indarra estimatu ahal da. Parametro horien neurketak esperimentalak konplexuak dira. Ale bakarraren zenbakizko ereduak soilik eskaintzen dute hirurak aldi berean estimatzeko aukera, nahiz eta lortutako emaitzen balioztapena froga esperimental konplexuen esku egon. Bestalde, parametroen hurbilpen zabarra lortu daiteke analitikoki, hipotesi sinplifikagarriak onartuz. Denbora errealean sorbatzaren lan-baldintzak definitzeko eredu analitikoaren inplementazioak, harri osoa kontaktuan simulatzean ereduaren konplexutasuna eta konputazio-kostuak handituz. Gainera,  $T$  kontaktu-arkuan aleak duen posizioaren arabera aurreikusiko litzateke, ez ebaketa-sakoneraren funtzioan. Bestalde, ia ez dago ale mailan aplikatzeko egokia den eredu enpirikorik, ziur aski, duen aplikazio praktikoa ezagatik.

## 2.5. Laburpena

Atal honek, artezketari buruz argitaratu diren jakintza zientifiko garrantzitsuenak eta teknologia aurrerapenak biltzen ditu. Bildutako informazioak tesiaren helburuak aurrera eramatea ahalbidetuko dute, hau da, harriaren eta piezaren arteko kontaktuaren zenbakizko ereduaren garapena.

Berrikuspenak artezketan harria-pieza kontaktuan eragiten duten faktore nagusiak identifikatu ditu. Gaurdaino aurkeztu diren kontaktu-ereduak osatzen dituzten faktore nagusiak dira harriaren eta piezaren elastikotasuna, harriaren gainazal topografia eta lan-parametroak ( $a_e$  ebaketa-sakonera,  $F'_n$  indar normala) (2.2.1. Atala). Harriaren elastikotasuna garrantzitsua da; baina, piezaren materialaren portaera elastikotzat hartzeak, aleen goldaketa- eta harroketa-mekanismoak arbuiatzea dakar. Harriaren gainazala diamantaketa bidez prestatzen da (2.1.2. Atala), kontaktu-azterketetan arreta berezia duen faktorea. Azkenik,  $a_e$  eta  $F'_n$  artezketa-abiaduren ( $v_s$ ,  $v_w$ ), gainazal topografiaren, piezaren materialaren eta makinaren zurruntasunaren menpe daude. RQ ereduak gainontzeko kontaktu-ereduengandik nabarmentzen da (2.2.1. Atala). Kontaktuaren tratamendua bi eskaletan (alea-pieza eta harria-pieza) eta kontaktu-arkuen konposizioa, edonola ere, originalak eta inteligenteak dira. Beraz, harriaren ereduak bere zurruntasuna eta morfologia granularra modelatzeaz gain, diamantaketa-baldintzen arabera gainazal topografia sortu, eta ereduak ale-pieza arteko kontaktu-baldintzak barneratu behar ditu.

Hainbat teknika daude kontaktu-luzera esperimentalki neurtzeko: termopare polobakarra, gelditze azkarra, adabaki-artezketa eta emisio akustikoak. Termoparearen aldaera batek, APSak, teknika zehatza eta sendoa dela frogatu du (2.2.2. Atala).



Harriaren eredia sortzeko (2.3.1. Atala), FEM antzerako zenbakizko erremintek konplexutasun handiak erakusten dituzte bi materialez osatutako gorputz porotsua modelatzean. Bestalde, malguki-eredu uniformeez gorputz anisotropikoak sortzen dituzte, aleen artean biraketa erlatiboa baimenduz. Eredu zinematikoak, berriz, zurrunkak izan ohi dira, haien helburua piezaren gainazaleko zimurtasuna aurreikustea baita. Hala ere, harriaren egitura granularra eta topografia sortzeko hainbat soluzio eskaintzen dituzte. Azkenik, aurkeztu berri diren DEM ereduak harriaren morfologia eta zurruntasuna modelatzeko duten potentziala erakutsi dute. Ondorioz, azken hau aukeratu da harria-pieza kontaktua simulatzeko.

Harriaren gainazal topografia (2.1.3. eta 2.3.2. Atalak) definitzen duten aldagaiak ale-dentsitatea, ale-altuera eta sorbatzen zorrotasuna dira. Diamantaketak gainazala sortzen du eta, ondorioz, topografiak bere eragina jasotzen du (2.1.2. Atala). Nahiz eta eraginkorrenak ale-anitzeko diamantatzaile finkoak eta birakariak izan, diamante punta-bakarrak diamantaketa aldagaiek eta -mekanismoek lortutako gainazalarekin erlazionatzea errazten du. Ale eta aglomeratzaile hausturak dira diamantaketa-mekanismo nagusiak. Diamantaketa-baldintzen intentsitateak mekanismo bakoitzaren papera definitzen du, ale-dentsitatean eragitean gainazal irekiagoa edo itxiagoa sortuz. Malkinek eta Cookek proposatutako ereduak ale-askatzea aurreikusten dutenen artean nabarmentzen da, diamantaketa sortutako urratzaile partikulen neurria gainazal irekitasunarekin erlazionatuz. Bi lanek soilik barneratzen dute diamantaketa-baldintzen eragina topografia ereduetan, Chen-Rowe eta Torrance-Badger bikoteenak; eta bien artean, Chenen ereduak da diamantaketa-zinematika kontuan hartzen duen bakarra. Ebaketa-sorbatzen zorrotasuna adierazteko, jaulkitze-angelua edo malda (sorbatz piramidal eta konikoak), edo sorbatz-erradioa (sorbatz esferikoak) erabiltzen dira. Biak antzera neurtzen dira, harriaren gainazalaren edo ale bakarrak utzitako ildaskatzen 2D profilak aztertuz. 3D topografia-neurketa teknikak bi familietan sailkatzen dira: optikoak eta haztagailu bidez (2.1.3. Atala).

Harriaren egituraren eredia eraiki eta gainazal topografia sortzeaz gain, ezinbestekoa da ale-pieza interakzioa era egokian deskribatzea. Kontaktu-ereduan, alearen eta piezaren artean kontaktua detektatzean, kontaktu-baldintzen araberako erreakzio indarra aplikatu behar zaio dagokion aleari. 2.4.2. Atalak ale urratzaileen ekintza kontaktu-luzeran zehar berrikusten du eta urradurari buruz aurkeztu diren lan esperimentalen, analitikoaren eta zenbakizkoen ondorioak biltzen ditu. Artezketaen helburua material harroketa denez, portaera elastikoaren hipotesia hasieratik baztertu da. Oinarrizko eredu analitikoekin (labainketa-lerroak eta ebaketa ortogonalak) lan egitea zaila da, hainbat aldagai ezezagunak (marruskadura), zehaztugabekoak (sorbatz-geometria) edo aldiuneko material propietateak baitira. Shawen gogortasun-frogaren analogiak aldiuneko ale-indarraren kalkulua asko sinplifikatzen du, erreakzioa soilik aldiuneko sakoneraren funtzioan baitago. Eredu horrek kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat hartzen du. Bestalde, ebaketa-sorbatzak deformazio-abiadura azkar eta tenperatura altuetan zeharkatzen du piezaren gainazala. Baldintza horietan piezak portaera biskoplastikoa erakusten du (2.4.3. Atala).

Atal honetan berrikusitako kontzeptuak izan dira ondorengo atalean deskribatutako ereduaren zimenduak.

### 3. Atala

## Zenbakizko kontaktu-eredua

*Atal honek harriaren eta piezaren arteko kontaktua modelatzeko proposatu den DEM eredua aurkezten du.*

*Ereduaren eraikuntza kontaktuaren sistema tribologikoa definitzen hasten da. Sistemaren helburua eragiketan eragina duten aldagaiak sistematikoki identifikatzea da, haien arteko interakzio posibleak eta irteeran duten pisua aztertuz. Artezketan, hainbat aldagaiek ebaketa-sorbatz askotan duten interakzioek zehazten dituzte mikro-ebaketa baldintzak. Berrikuspenak kontaktuaren analisisian gainazal topografiak eta harriaren elastikotasunak duten garrantzia azpimarratu du. Aldiz, orain arteko kontaktu-ereduek ale-pieza interakzioari bizkarra eman diote.*

*Ondoren, harria-pieza kontaktua simulatzeko DEM formulazioan egin diren moldaketak azaltzen dira. Berrikusketan ikusi da DEMaren ezaugarriak ingurune granularrak deskribatzeko oso aproposak direla. Elementu diskretuen arteko interakzioak, kontaktu-detekzioa eta integrazio-algoritmoak zehazten dira. DEM programaren egitura eta kalkulu-begiztak ere aurkezten dira.*

*Atala zenbakizko DEM eredua eraikitzeke metodologia deskribatzen bukatzen du: harriaren DEM ereduaren eraikuntza, gainazal topografiaren sorkuntza eta mugalde-baldintzak. Harriaren egituraren zenbakizko ereduak, harriaren morfologia granularra deskribatzeaz gain, bere portaera mekanikoa islatzeko gai izan behar du. Harriaren gainazal topografia diamantaketaren ondorio zuzena da. Behin DEM eredua eraikita, heldu da mugalde-baldintzak zehazteko garaia. Bertan, gainazaleko aleen eta piezaren arteko kontaktu-detekzio algoritmoa eta kontaktu-legea definitzen dira. Mugalde-baldintzen bi aldaera aplikatu dira DEM ereduaren: lehenengoak RQ ereduaren kontaktu zimurraren terminoa modelatzen du; bigarrenak, berriz, zuzenean artezketa mugalde-baldintzak erreproduzitzen ditu, uneoro aleek duten ebaketa-sakoneraren arabera.*



### 3.1. Sistemen diseinua

Sistema, hainbat sarrera ( $\{X\}$  taldea) eta irteera ( $\{Y\}$  taldea) dituen kaxa beltzat har daiteke. Sistemaren transferentzia-funtzioak definitzen ditu bi taldeen arteko erlazioak (3.1 Ek.),

$$X \longrightarrow Y \quad (3.1)$$

Artezketa sistema irekia da, babestu-gabea eta iraungikorra. Sarrerak eta irteerak mugimenduetan, materialetan, indarretan eta deflexiotan bana daitezke. Gainera, eragiketean trabak agertzen dira, hala nola bibrazioak, kasu batzuetan kontrolagarri, baina ez beti saihesgarriak. Sistemaren irteera batzuk galeratzat har daitezke, besteak beste, zarata, higadura eta bero-sorkuntza.

Harria-pieza kontaktuan, ikuspuntu mekanikotik, presioa itxurazko azalera aplikatua dagoela dirudi, nahiz eta azalera erreala asko ere txikiagoa izan [MRDI04]. Indarrak piezarekin kontaktuan dauden sorbatzetan biltzen dira, presio handiko puntuak eratuz. Horren ondorioz, piezaren gainazalak deformazio elastikoak eta plastikoak jasaten ditu. Sortutako gainazal berrian, marruskadurarekin eta material harroketarekin batera, absortzio, adsortzio, kimisortzio eta korrosio prozesuak agertzen dira. Azken ondorio horiek ez dute eragin zuzenik kontaktu-luzeran, baina bai zeharka, indarretan eta tenperaturetan.


Honako faktore hauek dira kontaktu-mekanikan garrantzitsuenak:

- bi gorputzen propietate mekanikoak (isurpen-tentsioa, elastikotasun modulua eta Poissonen modulua),
- gorputzen gainazalen zimurtasuna, eta,
- parte hartzen duten indarrak.

Artezketan, harriaren eta piezaren arteko mugimendu erlatiboa gehitzen da zerrendara. Faktore bakoitza banan bana aztertu behar da. Harria bi materialez osatutako konglomeratu heterogeneo porotsua da. Bere gainazalak zimurtasun handia dauka eta diamantaketa bidez prestatzen da. Pieza berriz, solido homogeneo jarraitua da. Bere gainazala harriarenarekin konparatuz leuntzat har daiteke. Artezketa-indarrak eta bi gorputzen arteko mugimendu erlatiboa makinari esker agertzen dira. 3.1. Irudiak faktore bakoitzaren aldagaiak eta irteerak biltzen ditu.

#### 3.1.1. Harria-pieza kontaktua zenbakizko eredua

Lan honetan garatu den harriaren eta piezaren arteko zenbakizko kontaktu-ereduak, kontuan hartu ditu 3.1. Irudiko faktoreek kontaktu-luzeran eta elkarren artean dituzten eraginak. Ereduek harriaren izaera heterogeneoa erreproduzitu, gainazal topografia inplementatu eta makinaren lan parametroak mugaldebaldintzetan islatu behar ditu. Ereduek 3.2. Irudiko fluxu-diagrama jarraituko du. Errealitatean harria, propietate mekaniko jakin batzuk dituen ale urratzailez eta aglomeratzailez osatutako konglomeratua da. Harriaren gainazala



3.1. Irudia: Sarrerak eta irteerak artezketa-sisteman [Klo09]


diamantatu, lan-parametroak ezarri eta eragiketa abiatzen da. Zenbakizko ingurunean, kontaktu-ereduak fluxu-diagrama paraleloa jarraitzen du: lehendabizi harriaren eredua sortzen da bere ezaugarrien arabera, gainazal topografia aplikatzen zaio diamantaketa-baldintzen arabera, eta mugaldea eta kontaktu-baldintzak ezarri ondoren, simulazioa abian jartzen da.

Garatu den DEM ereduak, Domanek *et al.* [DWB06] deskribatutako 3D topografia-ereduen egitura orokorra jarraitzen du eredua eta gainazala eraikitzean (2.3.2. Atala). Are gehiago, DEM ereduak egitura orokorra hobetzen du, harriari elastikotasuna gehituz eta aleen arteko interakzioa kontuan hartuz. 2.20. Irudiak aurkezten duen Domanen egitura orokorra, 3.2. Irudian grisez nabarmendutako azalera barneratua dago.

Aurrerantzean tesiak ere fluxu-diagramaren egitura bera jarraituko du.

### 3.2. Elementu diskretuen metodoa

Materialen mekanikan erabiltzen diren zenbakizko metodoak bi familietan sailkatzen dira: metodo diskretuak eta metodo jarraituak. Metodo diskretuak mekanika Newtondarrean oinarritzen dira, eta elementuen arteko interakzioak formulazio esplizitu bidez adierazten dituzte. Modelatzen duen fenomeno fisiko partikula solteak edo gorputz solidoak izan daiteke. Metodo jarraituek bolumenezko domeinuak ingurune jarraitutzat hartzen dituzte, hipotesi egokia hainbat arazo mota modelatzeko, baina harria bezalako gorputz heterogeneo granularretan aplikatzeko zaila.



**3.2. Irudia:** Harria-pieza kontaktuaren fluxu-diagrama errealitatean eta zenbakizko ingurunean

Metodo diskretuak, partikula-kopuru handi baten mugimenduak konputatzen dituzten zenbakizko metodoa dira [CJR13, JDCI16]. Partikulen eskala nanometrikoa edo handiagoa izan daiteke. Metodo diskretuek, elementuen arteko interakzioak funtzio erregularren bidez (jarraituak eta aski diferentziagarriak) deskribatzen dituzte, hutsuneak, abiadura erlatiboak eta erreakzio-indarrak uztertuz. Metodo diskretuen artean, dinamika molekularra (*molecular dynamics*, MD) eta elementu diskretuen metodoa (*discrete element method*, DEM) dira ezagunenak. MDk atomoen ibilbideak simulatzen ditu, haien arteko interakzioak barne. Aplikaturako formulazio fisikoak atomoen arteko interakzio-indarrak definitzen ditu. Atomo-kopurua itzela da eta, ondorioz, beharrezkoa da kontaktu detekzio-algoritmo eraginkorra erabiltzea. Denboraren diskretizazioak zenbakizko simulazioa ahalbidetzen du: lehendabizi, atomoen arteko interakzioak identifikatzen dira elementu bakoitzean eragiten duten interakzio-indarrak kalkulatzeko; eta, azelerazioa behin lortuta, bitan integratzen da partikula bakoitzak hurrengo iterazioan izango duen abiadura eta posizioa lortzeko. Integrazio-eskema esplizitu erabilienak Verlet abiadura- eta posizio-eskemak, igel-jauzia (*leap-frog*) eta iragarle-zuzentzailea (*predictor-corrector*) dira. MD arrakastaz aplikatu da ale bakarraren frogaren modelatzean oso azaleko ebaketa-sakoneratan ( $< 4$  nm) [MRDI04, BAG<sup>+</sup>06, OC10, MSKM15]. Ondorioz, MD ez da egokia artezketan ohikoak diren eskala mikrometrikokoak simulatzeko (0 - 10  $\mu\text{m}$ ).

MDk inspiratu du DEM, baina mikro- eta meso-escalan aplikatzen da. Do-

meinuaren eskalaz gain, MDkin alderatuz, DEMak partikulen orientazioa ere kontrolatu ahal du eta, partikula esferikoez gain, poliedroak ere erabili daitezke. Cundall-ek eta Strack-ek argitaratu zuten DEMaren erreferentziatzko lana [CS79], arroka sedimentarioen azterketa geoteknikoan aplikatuz. Bere aplikazio-eremua zabalduz joan da beste arazoetara, besteak beste, higadura modelatzen [FIB07], gainazal fraktal zimurren arteko kontaktua [JM12], gorputz heterogeneoetan kalteak aztertzen, adibidez hormigoian edo arroketan [HDD04], beiraren leunketan [IBNC08], apar polimerikoetan [VBIL10], eta baita karbono-zuntzez indartutako polimeroetan ere [IGI<sup>+</sup>10]. Dagoeneko DEM harriaren egitura modelatzen ere erabili da [LYZW15a, LYZW15b]. Elementu diskretu (*discrete element*, DE) batek modelatu dezake, bai material granular baten partikula askea (hautsa, hondarra, harrixkak, artoa...), baita bolumen adierazgarri elementu (*representative volume element*, RVE) baten osagai bat ere. Azken honek gorputz baten izaera jarraitua modelatzen du fenomeno fisikoaren eskalaren arabera. DEMaren ausazko natura da bere abantaila indartsuenetakoa. Eredu granularretan sortzen diren indar-sareak DEM bidez behatu daitezke. Partikula txiki askorekin ezinezkoa da neurketa horiek esperimenteralki frogatzea. Hala ere, DEMak behar konputazional handiak ditu, bere aplikazioa simulazio denborak eta elementu kopuruak mugatzen dutelarik.


Elementuen arteko kontaktuak tratatzeko moduek bi metodo diskretu aldaera ekarri dituzte. Kontaktu-dinamika leunak, esfera zurrunen arteko interakzioak elastikotzat hartzen ditu. Hurbilpen honek integrazio-eskema esplizituak dakartza, MDn eta DEMen antzera, kasu dinamiko azkarrak aztertzeko egokiak. Bestalde, kontaktu-dinamika ez-leunak denbora integrazio-eskema implizituak dakartza, fenomeno estatikoak simulatzeko egokiagoak direnak [MP88].

Literatura berrikusketan hainbat aukera aztertu ondoren (2. Gaia) eta behin sistemen diseinuarekin aldagai nagusiak zehaztuta (3.1. Atala), DEM izan da harriaren egitura modelatzeko identifikatu den zenbakizko erreminta egokiena. Formulazioan duen malgutasunak, elementuen arteko erlazioak neurrira definitzeko aukera emanez. Horrek DEM arteketan kontaktua era naturalean simulatzea errazten du. Atal honetan, neurrira egindako harria-pieza kontaktu-eredua eraikitzeke DEM formulazioan egin diren moldaketak deskribatzen ditu.

### 3.2.1. DEMaren moldaketa artezketa kontaktu-eredura

Lehen komentatu bezala, kontaktu-ereduak aleen eta piezaren arteko interakzioa simulatzeko, harriaren morfologia granularra, portaera mekanikoa, gainazal topografia eta kontaktu-baldintzak erreproduzitu behar ditu. Harriaren morfologiak biltzen ditu ale urratzaileak, aglomeratzaile-zubiak eta biek eratzen duten egitura. Bestalde, kontaktu-baldintzen artean, harriaren barnean ale-ale interakzioak eta harria-pieza interfazeen ale-pieza interakzioak bereizten dira. Harriaren gainazal topografiak, berriz, diamantaketaren ondorioen ñabardurak jaso behar ditu. DEM formulazioaren malgutasuna da duen abantailarik nagusienetakoa, aipatu diren ezaugarriekin neurrira diseinatutako eredua eraikitzea baimentzen duena. Abiapuntua, DE batek ale urratzaile bat ordezkatzeko duela pentsatzea da. Horrela, harria makina DE-ez osatzen da. Pieza, berriz, DE





### 3.3. Irudia: Proposatutako DEM ereduaren formulazioaren egitura

errektangeluar bakarrak modelatzen du.

3.3. Irudiak neurrira diseinatutako DEM kontaktu-ereduaren egituraren fluxu-diagrama aurkezten du. Modelatu nahi den fenomeno fisikoaren arabera, DEM formulazioa material jarraitua (adibidez, hormigoia portaera mekanikoa) edo material granular soltea (adibidez, arto-toberaren hustuketa) simulatzeko moldatu daiteke. Harria, izaera solidoa izanik, material jarraitu tratamendua jasoko du. Nahiz eta material heterogeneoa izan, bere portaera jarraitua azaleratzen da, ale urratzaile-aglomeratzaile-poro nahasketak bat eginda lan egitean.

DEM formulazioak bi aldaeretan, hiru oinarri nagusi dauzka komunean: (a) DE-en arteko erlazioak, (b) kontaktu detekzio-algoritmoa eta (c) integrazio-eskema (3.3. Ir.). Aukeren arteko konbinaketak soluzio anitzak eskaintzen dienez, arlo askotako fenomeno fisikoak modelatzeko gai da.

Elementuen arteko interakzioak (a) bi talde nagusitan sailkatzen dira: kontaktu leuna eta ez-leuna. Kontakto leuna hurbilpenak DE zurrunik erabiltzen ditu, ez-leunak, berriz, DE deformagarriak. Harria osatzen duten ale urratzaileak zurruntzat har daitezke duten gogortasunagatik. Piezaren materiala, berriz, era plastikoan deformatzen da, batzuetan materiala harrotzeraino. Hala ere, DEM formulazioaren malgutasunak kontaktu-baldintzak interakzio motari moldatzea ahalbidetzen du. Horrela, nahiz eta kontaktu leunak DE zurrunik erabili, DE-en arteko interakzio-baldintzak molda daitezke, kontaktu (elastikoa, Hertziarra, adhesioa, marruskadura), lotura (malgukia, habea) edo distantziarekiko menpeko (eremu elektromagnetiko, bero kondukzioa, barne-kohesioa) tratamendua emanez. Gainera, DE zurrunen erabilerak abantailak ditu fenomeno dinamikoak modelatzean.

Artezketa kontaktu-ereduari dagokionez, DE-en artean bi interakzio-mota daude: harriaren barneko DE-en artekoa, eta harriaren gainazaleko DE-en eta piezaren artekoa. Lehenengoentzat, harria osatzen duten DE-en artean, habe elastikoak aukeratu dira. Aglomeratzaileak ale urratzaileen artean lotura fisikoak sortzen ditu, karga axialez eta ebakitzzaileez gain, makurdura- eta bihurtura-momentuak ere jasaten dituztenak. Horrela, habeek aglomeratzaile-zubien papera fidelki betetzen dute. Habeek eta aglomeratzaile-zubiek ez bezala, kontaktu-baldintzek (Hertz, adhesioa...) eta malgukiek ez dute DE-en arteko biraketa erlatiboa eragozten. Bigarrenengoentzat, gainazaleko DE-en eta piezaren arteko interakzioa, neurrira egindako kontaktu-legea garatu da bertako baldintza bereziak modelatzeko. Kontaktulegeak indar iraungikorren osagaia ere barneratzen du, simulazioa indargetzeko.

Kontaktulege-algoritmo (b) egokiaren aukeraketa garrantzitsua da, handiak baitira DEMak dituen konputazio-eskakizunak. Hainbat algoritmo proposatu dira kontaktu-analisi gordina saihesteko, hau da, DE bakoitzaren posizio erlatiboa beste DE guztiekiko aztertzea. Ezagunen artean daude Verlet-auzokoen lista, itsatsitako zelularen metodoa (*linked cell method*) eta Delaunay triangulaketa. Hala ere, haben erabilerak harria osatzen duten DE-en arteko kontaktu detekzio beharrak ezeztatzen ditu, DE-en arteko loturak finkoak eta ezagunak baitira. Hau oso onuragarria da, DE guztiak bat ezik (pieza) harriari baitagokio. Gainazaleko DE-pieza kontaktuari dagokionez, pieza ordezkatzeko DE errektangeluar bakarraren erabilerak asko murrizten du kontaktu detekzio lana. Neurrira egindako bi kontaktu detekzio-algoritmo garatu dira, 3.5. Atalean sakonki azaltzen direnak.

DEM formulazioaren hirugarren oinarria (c) integrazio-eskema da. Simulazioan, iterazio bakoitzean programak zenbakizko integrazioa burutzen du, hurrengo iterazioan DE bakoitzak izango dituen posizio eta orientazio berriak kalkulatzeko. Hainbat integrazio-eskema proposatu dira, besteak beste, abiadura-eta posizio-Verlet, igel-jauzia (*leap frog*) eta aurrikusle-zuzentzaile (*predictor-corrector*) eskemak. Verlet integrazio-eskema da erabiliena. Simulazio ia-estatikoetan konbergentzia hobetzeko, Tchamwa-Wielgosz eskemak zenbakizko moteltze-faktorea gehitzen dio ohiko Verlet hurbilpenari [MGR09].

Jarraian datozen Atalek kontzeptu hauek garatzen dituzte artezketa kontaktu-ereduaren ikuspuntutik.

### Elementu diskretua

DEMak normalki elementu esferikoak erabiltzen ditu, baina beste geometriak ere erabil ditzake: elipsoidala [MI10], esfera-anitzak eta poliedroak [HWKES11]. DE esferikoen definizioa da sinpleena, bere erabilerak ereduaren sorkuntza eta kontaktu detekzioa errazten dituelarik. Lik *et al.* [LYZW15b], ale urratzaile amorfoen geometria modelatzeko DE esfera-anitzak erabiltzea proposatzen dute, nahiz eta ideia aurrera ez eraman. Horren ordez, moztutako oktaedro elementua garatzen dute, esferoidearen eta oktaedroaren arteko intersekzio Boolearra. Aleen geometriak erlazio zuzena du trinkotzean eta, beraz, harriaren egituraren irekitasunean. Literatura-berrikuspenean (2.3.2. Atala) azaldu da alumina

urratzaileek geometria kubikoa, angeluarra eta puntaduna dutela. Geometria kubikoaren eta angeluarraren aspektu-erlazioak batetik hurbil daude; puntadunek, berriz, dimentsio bat beste biak baino luzeagoa dute. Harria osatzen duten DE-en arteko kontaktuak arbuigarriak dira, DEak lotzen dituen habesareak ematen baitio zurruntasuna harriari. Beraz, elipsoideen edo oktaedroen erabilera ez dago arrazoitua harriaren egitura modelatzeko. Harrien fabrikazioan trinkotze-prozesua simulatzeko aldiz bai, aleen geometriak garrantzia du. Geometria jakina duten urratzaileak (CBN, diamantea) tetraedro eta oktaedro nahasketekin modelatu daitezke; ale amorfo puntadunak simulatzeko, aldiz, nahikoa da DE esfera-bikoitz (edo esfera-anitz) elementuak erabiltzea. Bestalde, aluminazko harrietan diamantaketak gainazal topografia eraldatzen du, baita DEM ereduaren ere, eta, beraz, DE geometriak ez du garrantzirik harriaren gainazalean.


Elementuen geometriak soilik ereduaren sorkuntzan eragina duenez, arrazoizkoa da urratzaileak DE esferikoez modelatzea ale kubikoentzat eta angeluarrentzat. Tesi honetan, DE esferikoak aukeratu dira, froga esperimentaletan erabilitako harriak urratzaile angeluarrez osatzen baitira. Ale geometria puntaduna (luzatua) modelatzeko, eredia DE esfera-bikoitzera eguneratu beharko litzateke. DEM bidez harrien trinkotzearen simulazioa ale geometriaren eta aspektu-erlazioaren arabera tesi honek proposatzen duen etorkizuneko ikerketatildotako bat da.

DE esferikoa 3D espazioan honako aldagai hauek definitzen dute:  $d_{DE}$  diametroak,  $\rho_{DE}$  dentsitateak,  $(x, y, z)$  posizio-koordinatuak eta, modelatzen ari den fenomeno fisikoaren arabera, orientazioa ere elementuaren formulazioan gehitzen da.

Orientazioa, Euler-angeluen, biraketa-matrizeen, koaternioien edo aurrekoak konbinatuz zehazten da.  $\mathbf{q}$  koaternioi unitarioen erabilera ohikoa da DE-en orientazioa eta abiadura angeluarra definitzeko, konputazioan eskaintzen duten zehaztasunagatik eta sinpletasunagatik [ACI15]. Verlet integrazio-eskeman era errazean inplementatzen dira, koaternioien zenbakizko integrazioa ahalbidetuz. Koaternioiek lau aldagai eskalarren bidez orientazioa definitzen dute 3D espazioan. Zenbaki konplexuen beste bi dimentsio irudikarietara zabalkuntza adierazten dute, horrela, dimentsio erreal bat eta beste hiru dimentsio irudikariz osatzen dira. Koaternioien erabilera zabaldu du orientazioak zehazteko duen sinpletasunak, besteak beste, 3D ordenagailu grafikoetan edo plano kristalografikoen definizioan.

Biak konbinatuz, DE markoa osatzen da: posizio-koordinatu Cartesiarrak eta orientazio koaternioi unitarioa. Horrela, DE markoak posizioa eta orientazioa aldi berean definitzen ditu.

Piezari dagokionez, DE errektangeluar prismatiko bakarrak modelatzen du. Piezaren gainazala erreferentzia da DE-en sakonera kalkulatzeko. Iterazio bakoitzean harriaren gainazaleko elementuen eta piezaren posizioak konparatuz, kontaktua detektatzeko erabiltzen da. DE bakarra erabiltzeak kontaktu detekzioa izugarri errazten du. Ale-pieza kontaktuan, piezaren materialaren portaera biskoplastikotzat jo da, kontaktu-baldintzak moldatuz.



**3.4. Irudia:** DE-en arteko ohiko interakzio-motak: (a) kontaktu- edo potentzial-lotura ( $f(\delta)$ ), (b) malgukia eta (c) habea [ACI15]

### Elementu diskretuen arteko interakzioak

Elementuen arteko interakzioak indar, momentu eta, batzuetan, energia potentzialek gobernatzen dituzte. Horrela, interakzioak hiru taldetan sailkatzen dira: kontaktu-loturak, potentzial-loturak eta lotura kohesiboak (malgukia edo habea). 3.4. Irudiak DE-en arteko interakzio-motak aurkezten ditu.

Harriaren gainazaleko elementuen eta piezaren arteko interakzioa, ohiko kontaktu-loturekin egin daiteke, hau da mekanika Hertziarra eta Coulomben marruskadura, indar iraungikorrarekin batera. Hala ere, ale urratzaile eta piezaren arteko kontaktu-baldintza bereziak simulatzeko, neurrira egindako formulazioa garatu da, beti ere indar iraungikorra gehituz. Bi kontaktu-baldintza definitu dira, hartutako hipotesiak islatzeko. Lehenak, RQ kontaktu-luzera ereduaren kontaktu zimurraren terminoa modelatzen du [RMQZ93], baldintzak kontaktu elastikotik zurrun-plastiko-perfektura eguneratuz [Joh87]. Horrela, eredu honek harria eta plano baten arteko kontaktu estatikoa (KE) modelatzen du. Piezaren materialaren propietateak ebaketa-baldintzetara moldatu dira JC eredu eratzailera aplikatuz. Bigarren ereduak, berriz, Shawek proposatutako gogortasun-saiakuntzaren txirbil-sorkuntza analogia erabiltzen du [Sha71]. Kasu horretan, ereduak uneoro estimatzen ditu kontaktuan dauden DE-en ebaketa-sakonerak edo txirbil-lodierak, eta, datu horiek Showeren ereduari aplikatuz, DE bakoitzean ebaketa-indarrak kalkulatu dira. Bietan aplikatutako formulazioak sakonki azaltzen dira 3.5. Atalean. Era horretan, DEM kontaktu-eredua ale-pieza arteko baldintza berezietara moldatzen da.

Eredu dinamikoa denez, indar iraungikorra edo moteltze-indarra agertzen da bi DE-en arteko interakzioan. Indar iraungikorra  $\mathbf{f}_d$  ( $\mathbf{f}_{d1}$ ,  $\mathbf{f}_{d2}$ ) bi DE-en abiadura erlatiboarekiko  $\dot{x}$  proportzionala da eta kontaktu-planoarekiko perpendikularra (3.2 Ek.).  $c$  moteltze-koefizientea da, eta 3.3 Ekuazioarekin kalkulatu da.  $\alpha$  moteltze-faktorea  $[0, 1]$  da;  $\alpha_c$ , berriz, masa-malguki sistemaren moteltze kritikoa da (3.4 Ek.), beraz,  $c$ -ren balioa  $[0, \alpha_c]$  tartean dago (3.3 Ek.). 3.4 Ekuazioak  $\alpha_c$  kalkulatu du, non  $K_c$  kontaktuan dauden bi DE-en zurruntasunik handiena den eta  $M_{12}$  bi DE-en arteko masa baliokidea (3.5 Ek.).  $m_{DE1}$  eta  $m_{DE2}$  DE1 eta DE2 elementuen masak dira hurrenez hurren. 3.6 Ekuazioak  $\dot{x}$  kalkulatu du;  $\mathbf{v}_1$  eta  $\mathbf{v}_2$  bakoitzaren abiadurak dira eta  $\mathbf{n}_{21}$  kontaktu-planoarekiko normala den bektore unitarioa.  $\mathbf{f}_d$  indar iraungikorra bi DE-en erreakzio indarrei gehitzen da.

$$\mathbf{f}_d = \mathbf{f}_{d1} = -\mathbf{f}_{d2} = c \dot{x} \mathbf{n}_{21} \quad (3.2)$$

$$c = \alpha \cdot \alpha_c \quad (3.3)$$

$$\alpha_c = 2\sqrt{K_c \cdot M_{12}} \quad (3.4)$$

$$M_{12} = \frac{m_{DE1} m_{DE2}}{m_{DE1} + m_{DE2}} \quad (3.5)$$

$$\dot{x} = (\mathbf{v}_2 - \mathbf{v}_1) \cdot \mathbf{n}_{21} \quad (3.6)$$


Harria osatzen duten DE-en interakzioei dagokionez, DE bakoitzak ale urratzaile bat ordezkatzan du. Aglomeratzaileak ale urratzaileekin batera 3D egitura zurruna osatzen dute; bien konbinaketak RVE eskala gainditzean portaera jarraitua erakusten du [CJR13]. Unitate minimoa ale-neurriak eta urratzaile frakzio bolumetrikokoak definitzen dute. Interakzio horiek lotura kohesiboen bidez fidelki modelatu daitezke: malgukiak (3.4.(b) Ir.) eta habeak (3.4.(c) Ir.). Habeak, malgukiak baino egokiagoak dira, aleen arteko biraketari erresistentzia ipintzen baitiote, karga axialez gain, makurdura- eta bihurtura-momentuak baititutze. Habeen haustura-tentsioa definituz gero, pitzadura-analisia ere ahalbidetzen dute. Nahiz eta aspektu hori tesi honen helburuetan ez egon, harriaren DEM ereduari habe hauskorren implementazioa ale-askatzea aztertzeke, bai arteztean, baita diamantaketan ere, lan honek proposatzen duen etorkizuneko ikerkuntza-ildo interesgarrietako bat da.

DEMen erabiltzen diren habeak Euler-Bernoulli habe teoriaran oinarritzen dira. Hauek, Timoshenko habe teoriak ez bezala, indar ebakitzalearen efektua arbuatzen dute habearen deflexioa aztertzean [Tim53]. Sinplifikazio horren eragina are eta nabarmenagoa da habearen aspektu-erlazioa (luzera-altuera) txikietan. DEM ereduko habearen aspektu-erlazioa 3 baino handiagoa da, akatsa % 2,4 baino txikiagoa delarik. Bernoulli habeak zurrunagoak dira. Nola nahi ere, habearen propietate mekanikoak definitzean (kalibratzea) efektua barneratua dagoenez, ondorioak ezerezean geratzen dira. Konkretuki, lan honetan [CWKH08, AICN12, ACI15] garatutako habe formulazioa erabili da.

Hurrengo Atalak habearen formulazioa eta propietate mekanikoen kalibratze-prozedura azaltzen ditu.

### Habeak

Habe elastikoak bi geometria parametrok ( $L_\mu$  hasierako luzera eta  $d_{be}$  diametroa) eta bi propietate mekanikok ( $E_\mu$  elastikotasun-modulua eta  $\nu_\mu$  Poissonen modulua) definitzen dituzte. Habeek sekzio zirkularra dute; haien diametroa  $d_{be}$  habeak lotzen dituen bi elementuen diametroen ( $d_1, d_2$ ) batz bestekoari  $r_\mu$  murrizpen-faktorea biderkatuz definitzen da (3.7 Ek.). DE-en diametroen barioak aldakorrek direnez, habearen diametroa izendatzeko  $r_\mu$  murrizpen-faktorea erabiltzen da. Habeek ez dute masarik, masa elementu diskretuei dagokie.  $L_\mu$



**3.5. Irudia:** Habe elastikoa (a) atsedenean eta (b) kargatuta [AICN12, ACI15]

habeak lotzen dituen elementuen arteko hasierako distantzia da. Iterazio bakoitzean, DE-en posizio eta orientazio aldaketak hasierakoekiko kalkulatu dira. Bi elementuen arteko luzera eta orientazio aldaketa erlatiboek finkatzen dituzte haien arteko indarrak (axialak eta ebakitzailak) eta momentuak (makurdura eta bihurtura) [AICN12, ACI15].

$$d_{be} = r_{\mu} \left( \frac{d_1 + d_2}{2} \right) \quad (3.7)$$

Hasieran, habeak kargarik gabe daude (3.5.(a) Ir.) eta posizio hori hartzen da erreferentziatzat.  $F_1(O_1, \mathbf{x}_1, \mathbf{y}_1, \mathbf{z}_1)$  eta  $F_2(O_2, \mathbf{x}_2, \mathbf{y}_2, \mathbf{z}_2)$  DE koordenatu-sistemak posizionatzen dira  $\mathbf{x}_1$  eta  $\mathbf{x}_2$  habearen ardatzarekin ( $\overline{O_1O_2}$ ) lerrotatuak daude. Habearen muturrak  $O_1$  eta  $O_2$  DE zentroyei lotuak daude. Medianak ( $\overline{O_1O_2}$ ) ordezkaten du habeak. 3.5.(b) Irudiak habeak kargatuta erakusten du, bi elementuen arteko desplazamendu erlatiboaren ondorioz. Erreakzio-indarrak eta momentuak habearen koordenatu-sistema lokalarekiko  $F(0, \mathbf{x}, \mathbf{y}, \mathbf{z})$  adierazten dira. 3.8 Ekuazioak koordenatu-sistema lokalaren bektore unitarioak definitzen ditu ( $\mathbf{x}, \mathbf{y}, \mathbf{z}$ ).

$$\mathbf{x} = \frac{\overrightarrow{O_1O_2}}{|\overrightarrow{O_1O_2}|}, \quad \mathbf{y} = \mathbf{x} \times \mathbf{x}_1 \quad \text{eta} \quad \mathbf{z} = \mathbf{x} \times \mathbf{y} \quad (3.8)$$

Orientazio aldaketa angelu axialarekiko eta tangenzialekoko definitzen dira ( $\theta_1(\theta_{1x}, \theta_{1y}, \theta_{1z}), \theta_2(\theta_{2x}, \theta_{2y}, \theta_{2z})$ ) hasierako koordenatu-sistemekiko ( $F_1, F_2$ ). Ondorioz, erreakzio-indarrak ( $\mathbf{f}_{DE1}, \mathbf{f}_{DE2}$ ) eta -momentuak ( $\mathbf{m}_{DE1}, \mathbf{m}_{DE2}$ ) DE1 eta DE2 elementuetan 3.9, 3.10, 3.11 eta 3.12 Ekuazioen bidez kalkulatu dira hurrenez hurren, non  $L_{\mu}$  eta  $\Delta L_{\mu}$  hasierako habearen luzera eta luzera-aldaketa,  $S_{\mu}$  habearen zeharkako azalera,  $I_{\mu}$ ,  $I_{p\mu}$  habearen inertzia-momentua eta inertzia-momentu polarra,  $E_{\mu}$  elastikotasun modulua, eta  $G_{\mu}$  ebakidura elastikotasun modulua diren.

$$\mathbf{f}_{DE1} = E_{\mu} S_{\mu} \frac{\Delta L_{\mu}}{L_{\mu}} \mathbf{x} - \frac{6E_{\mu} I_{\mu}}{L_{\mu}^2} ((\theta_{2z} + \theta_{1z})\mathbf{y} + (\theta_{2y} + \theta_{1y})\mathbf{z}) \quad (3.9)$$

$$\mathbf{f}_{DE2} = E_{\mu} S_{\mu} \frac{\Delta L_{\mu}}{L_{\mu}} \mathbf{x} + \frac{6E_{\mu} I_{\mu}}{L_{\mu}^2} ((\theta_{2z} + \theta_{1z})\mathbf{y} - (\theta_{2y} + \theta_{1y})\mathbf{z}) \quad (3.10)$$


$$\mathbf{m}_{\text{DE1}} = \frac{G_{\mu} I_{\text{P}\mu}}{L_{\mu}} (\theta_{2x} - \theta_{1x}) \mathbf{x} - \frac{2E_{\mu} I_{\mu}}{L_{\mu}} ((\theta_{2y} + 2\theta_{1y}) \mathbf{y} - (\theta_{2z} + 2\theta_{1z}) \mathbf{z}) \quad (3.11)$$

$$\mathbf{m}_{\text{DE2}} = -\frac{G_{\mu} I_{\text{P}\mu}}{L_{\mu}} (\theta_{2x} - \theta_{1x}) \mathbf{x} - \frac{2E_{\mu} I_{\mu}}{L_{\mu}} ((2\theta_{2y} + \theta_{1y}) \mathbf{y} - (2\theta_{2z} + \theta_{1z}) \mathbf{z}) \quad (3.12)$$

Elementu finituen metodoan ez bezala, solido jarraituen mekanika legeak ezin dira DEM formulazioan zuzenean aplikatu. Urratzaileak eta aglomeratzai-leak propietate mekaniko ezberdinak dituzte eta, gainera, harriaren gorputza porotsua da. Harriaren gorputzaren propietate mekanikoak,  $E_s$  elastikotasun-modulua eta  $\nu_s$  Poissonen modulua, DEM ereduaren propietateen ondorioz eskala makroskopikoan azalartzen diren propietateak dira. Horrela, habeen propietate mekanikoek, eskala mikroskopikoan, modelizatutako materialaren portaera makro-mekanikoa definitzen dute. Fenomeno horri homogeneousazio deritzo [CJR13]. 3.3.1. Atalak azaltzen du harriaren gradu hizkiaren eta  $E_s$ -ren arteko erlazioa. Lik *et al.* [LYZW15b] ez bezala, aglomeratzaile frakzio bolumetrikokoak ez dauka zertan bat etorri beharrik habeen bolumenarekin, habeen zeregina ereduari zurruntasuna ematea baita, ez aglomeratzaile-zubien geometriaren erreproduzio fidela egitea. Horrela, soberako haberik gabe eredia sinpleagoa da eta konputazio-denbora murrizten da.

Propietate mekanikoen neurketa esperimentalak egiten den antzera, zenbakizko trakzio-frogen bidez kalibratzen dira habeen mikro-eskalako propietateak. André-k *et al.* deskribatzen dute habek kalibratzeko prozedura [AICN12]. Zenbakizko trakzio-frogetan lagin zilindrikoei mutur bat finkatu eta bestean indarra aplikatzen da. Simulazioak luzeratako eta alboko deformazioak monitorizatzen ditu, makro-eskalan DEM laginak izan duen elastikotasun modulua eta Poissonen modulua kalkulatu ahal izateko. Mikro-eskalan habearen hiru parametro dira doitu beharrekoak ( $\nu_{\mu}$ ,  $r_{\mu}$ ,  $E_{\mu}$ ) materialaren makro-eskalako bi propietateekiko ( $E_s$ ,  $\nu_s$ ). Kalibrazioan, dimentsio berdineko sei eredu tamaina erabili dira DE kopuruaren arabera (500, 1000, 2000, 5000, 10000 eta 20000 DE). DEM eredu tamaina bakoitzerako lau lagin prestatu dira. DEM ereduaren sorkuntza ausazkoa denez, lau laginak ezberdinak dira eta emaitzak lau emaitzen batz bestekoak dira. Emaitzak grafikoki aztertuz, mikro-eskalako habeen parametroak erregresio bidez doitzen dira banan bana.

Habeen propietateen kalibrazioaren fluxu-diagrama azaltzen du 3.6. Irudiak. Habearen  $E_{\mu}$ ,  $r_{\mu}$  eta  $\nu_{\mu}$  parametroak, bakoitzak bere eran eragiten dute materialaren  $E_s$  eta  $\nu_s$  makro-propietateetan. Andrék elkarreragin horiek aztertzen ditu saiakuntzen diseinua (*design of experiments*, DOE) erabiliz [AICN12]. Lagin neurri guztietarako,  $\nu_{\mu}$  Poissonen moduluak makro-propietateetan apenas eraginik duela ohartzen da. Hori kontuan hartuta, kalibrazioa bi pausutan egiteko prozedura finkatzen du. Lehenengo pausuan,  $\nu_{\mu}$  habeen Poissonen modulua  $\nu_s$  harriaren Poissonen moduluarekin finkatzen da, aldagai bat aurreztuz.  $E_{\mu}$  finko mantenduz,  $r_{\mu}$  habeen erradioa doitzen da, harriaren  $\nu_s$  Poissonen modulua lortu arte.  $r_{\mu}$  finko dela,  $E_{\mu}$  aldatzeak eragin mesprezagarria dauka  $\nu_s$ -n.



**3.6. Irudia:** Habeen propietateen kalibratzeko prozeduraren fluxu-diagrama [AICN12]

Bigarren pausuan,  $\nu_\mu$  eta  $r_\mu$  finkatuta, habearen  $E_\mu$  elastikotasun-modulua doitzen da materialaren  $E_s$  elastikotasun-modulua lortu arte. Horrela, habeai  $E_\mu$ ,  $r_\mu$  eta  $\nu_\mu$  balioak ezarri gero, materialak  $E_s$  eta  $\nu_s$  propietateak erakusten ditu makro-escalan. Mikro-escalako propietateak ereduaren dimentsioekiko edo urratzaile frakzioarekiko independenteak dira, hau da, graduaren arabera soilik aplikatzen dira. Propietate horiek DEM ereduera eraiki ondoren eta simulazioa hasi aurretik aplikatzen dira.

### Tchamwa-Wielgoz (TW) integrazio-eskema

Tchmwa-Wielgoz (TW) eskemak Verlet integrazio-eskema moldatzen du, DE bakoitzaren posizio eta orientazio berriak konputatzean zenbakizko moteltzea gehituz. TW eskema, maiztasun handien iraungipena bultzatzen duen zentrokanpoko integrazio-eskema esplizitua da. Simulazio ia-estatikoetan, sistemak emaitza estatikoaren inguruan bibratzen du. Iraungipena  $\beta$  zenbakizko moteltze-faktorearekin kontrolatzen da. Denborarekiko bigarren deribatua ukitzen denez, simulazioaren konbergentzia hobetzen da.

DE bakoitzaren posizio eta orientazio berriak kalkulatzeko, Verlet-abiadura eskemak azelerazioaren eta azelerazio angeluarraren (koaternioi bidez) zenbakizko integrazioa egiten du.  $\beta$ -ren erabilera zenbakizko moteltzea gehitzen du  $\Delta t$  denbora-gehikuntza balio kritikora hurbiltzean. Mahéo *et al.* [MGR09]  $\beta = 1, 3$  balioak emaitza estatikoen konbergentzia hobetzen duela baieztatzen dute.

$\ddot{\mathbf{x}}_{n+1}$  azelerazio berria dinamikaren oinarriko printzipioak aplikatuz kalkulatu da. DEaren grabitate-zentroan aplikatutako indarren erresultantea  $\mathbf{f}_{DE}$ , soilik kalkulatuakiko posizio berriaren  $\mathbf{x}(t)$  menpe dago. 3.13 Ekuazioak elementuaren azelerazio berriaren  $\ddot{\mathbf{x}}_{n+1}$  kalkulua aurkezten du, non  $m_{DE}$  elementuaren masa den.



$$\ddot{\mathbf{x}}_{n+1} = \frac{\mathbf{f}_{\text{DE}}}{m_{\text{DE}}} \quad (3.13)$$

( $n$ ) pausoan DE baten posizio, abiadura eta azelerazio osagaiak ( $\mathbf{x}_n, \dot{\mathbf{x}}_n, \ddot{\mathbf{x}}_n$ ) eta ( $n+1$ ) pausoan azelerazioa  $\ddot{\mathbf{x}}_{n+1}$  ezagututa, 3.14 eta 3.15 Ekuazioek ( $n+1$ ) pausoko abiadura eta posizioa kalkulatzeko dituzte. Era berean, ( $n$ ) pausoan DE baten posizio, abiadura eta azelerazio koaternioiak ( $\mathbf{q}_n, \dot{\mathbf{q}}_n, \ddot{\mathbf{q}}_n$ ) eta ( $n+1$ ) pausoan azelerazio koaternioia  $\ddot{\mathbf{q}}_{n+1}$  ezagututa, 3.16 eta 3.17 Ekuazioek ( $n+1$ ) pausoko abiadura eta posizio koaternioiak kalkulatzeko dituzte.

$$\dot{\mathbf{x}}_{n+1} = \dot{\mathbf{x}}_n + \frac{\Delta t}{2} (\ddot{\mathbf{x}}_n + \ddot{\mathbf{x}}_{n+1}) \quad (3.14)$$

$$\mathbf{x}_{n+1} = \mathbf{x}_n + \Delta t \dot{\mathbf{x}}_{n+1} + \beta \frac{\Delta t^2}{2} \ddot{\mathbf{x}}_n \quad (3.15)$$

$$\dot{\mathbf{q}}_{n+1} = \dot{\mathbf{q}}_n + \frac{\Delta t}{2} (\ddot{\mathbf{q}}_n + \ddot{\mathbf{q}}_{n+1}) \quad (3.16)$$

$$\mathbf{q}_{n+1} = \mathbf{q}_n + \Delta t \dot{\mathbf{q}}_{n+1} + \beta \frac{\Delta t^2}{2} \ddot{\mathbf{q}}_n \quad (3.17)$$

Behin posizio berriko  $\mathbf{q}$  koaternioia eta  $\dot{\mathbf{q}}$  abiadura-koaternioia lortuta, koaternioientzako Eulerren erlazioak hurrengo pausoko  $\ddot{\mathbf{q}}$  azelerazio angeluarraren koaternioia lortzen da.

### 3.2.2. DEM ereduaren sorkuntza

DEM formulazioaz gain, DEM ereduaren simulatu nahi den fenomeno fisikoarekiko eraiki behar da. Partikula solteen modelaketa DE banaketa uniformetik abiatu ohi da. Batzuetan, aurre-kokatze aldia beharrezkoa da (i.e. grabitatearen ondorioz DE-en erorketa), simulazioa DE-en ausazko banaketatik has dadin.

Gorputz jarraituak modelatzean, fenomeno fisikoaren deskribatzeko kasu batzuetan egokia da DEak uniformeki antolatzea. Hala ere, solido anisotropoak sortzen dira, eta portaera mekanikoa deskribatzeko beharrezkoa da DE-en ausazkotetasuna eta homogeneitatea portaera isotropoa deskribatu ahal izateko. Arazoa, uniformeki banatutako DEak astinduz edo zenbakizko sinterizazioa erabiliz konpontzen da. Astintze-teknikak, lehendabizi DEak era uniformearen kokatzen ditu ereduaren domeinuan. DE dentsitatea unitate-gelaxka kubiko sinpleak edo gorputzean zentratuak erabiliz doitu daitezke. Ausazkotze algoritmoak DE bakoitza birkokatzen du, haien artean elkar-sartzea saihestuz. Astintze-teknika erraz erabili da artezketan topografia-ereduetan [DWB06].

Zenbakizko sinterizazioak, aldiz, domeinu itxia DE-er ausaz beteaz sortzen du DEM ereduaren. Andrék *et al.* [AICN12, ACI15] ereduaren hiru pausutan sortzeko prozedura proposatu dute. Pareta elastikoak dituen bolumen itxiak osatzen du domeinu diskretua. Lehenengo pausuan, ereduaren geometria duen domeinu itxia DE-er betetzen da libreaki eta ausaz. Elementu diskretuek banaketa uniformearen edo normalean jarraitzen duen ausazko diametroa dute. Etapa, ausaz

elementu diskretu berri gehitzeko lekurik ez dagoenean bukatzen da. Bigarren etapa prozesu iteratiboa da, lehen pausuan ipinitako DEak birkokatzen dira, elementu berriak gehitu ahal izateko. DE-en artean elkar-sartze txiki bat baimentzen da. Lekua gutxitzen den heinean, DE-en energia zinetikoaren batura gutxituz doa. Energia zinetikoak aurrez ezarritako muga minimora iristean bukatzen da bigarren etapa. Hirugarren etapan zuzentzen dira DE-en arteko elkar-sartzeak, domeinuaren pareten zurruntasuna erlaxatuz.

Astintze-teknika sinpleagoa eta azkarragoa da zenbakizko sinterizazioa baino. Hala ere, astintze bidez sortutako ereduak banaketa uniformearen trazak erakusten ditu propietate mekanikoetan. Zenbakizko sinterizazioak ez du horrelako arazorik, eraikuntza guttiz ausazkoa baita hasieratik. Tesia idazteko garaian, zenbakizko sinterizazioa oinarritzko geometria duten eredueta soilik aplikatu ahal da, hala nola, zilindro, esfera edo kutxa. Astintze-teknika, berriz, ordenagailuz sortutako 3D geometria konplexuetan ere aplikatu ahal da.


Harriak geometria sinplea duenez, zilindroa, zenbakizko sinterizazioa aukeratu da DEM eredu eraikitze. Hala ere, harriaren dimentsioak ale urratzaileen tamaina baino askoz handiagoak dira; ereduaren neurria murrizteko, zabalera txikiko diskoa altuera batean moztu da.

### 3.2.3. DEM ereduaren egitura

DEM kontaktu-eredua *granular object oriented* (GranOO) paketearekin aurrera eramana da, Bordeleko ENSAMgo *Institut de Mécanique et d'Ingénierie* (I2M) erakundeak garatutako zenbakizko erreminta. GranOO ez da software exekutagarria, DEM simulazioak garatzeko C++ liburutegi multzoa baizik. Liburutegiak erabiliz, DEM eredu sortu eta programa konpilatu ondoren, simulazioa abiarazten da. GranOO hiru liburutegik osatzen dute: geometria erremintak (ardatz kartesiarrak, koaternioiak, bektoreak, matrizeak...), DEM objektuak (elementu diskretua, malgukia, habea, kontaktua, multzoa...) eta konputazio-arkitektura (*plugIn*, XML irakurgailua, STL liburutegia...). GranOOren formulazioa bateragarria da fisika-anitzekin (mekanika, termikoa, elektrikoa) eta FEM-DEM eredu hibridoak ere onartzen ditu.

DEM simulazioa hasi aurretik, DEM eredu eraikitzen da zenbakizko sinterizazioaren prozedura jarraituz. 3.3.2. Atalean zehazten dira DEM eredu eraikitze sarrera-datuak eta harriaren morfologia lortzeko prozeduran egin den moldaketa. Batz besteko DE diametroa eta diametroaren banaketa, ale urratzaileen batz besteko neurriarekin eta urratzaile frakzio bolumetrikorekin doitzen dira DEM eredu eraikitzean. Harriaren DEM eredu DEak habez lotuz osatzen da eta, behin sortuta, gainazal topografia moldatzen da diamantaketa-baldintzen funtzioan.

Simulazioak jarraitzen dituen pausoak XML sarrera-fitxategian zehazten dira. Fitxategi horrek banan-bana deitzen ditu *plugIn*ak, funtzio jakin bat betetzen duten C++ lengoian idatzitako programa zatiak. GranOOk erabiltzaileak idatzitako *plugIn*en konpilazioa baimentzen du, eredu fenomeno fisikoari moldatzeko gaitasuna areagotuz.



3.7. Irudia: Simulazioak jarraitzen duen fluxu-diagrama [And12]

DEM simulazioak ohiko zenbakizko erreminten egitura partekatzen du: aurre-prozesaketa, prozesaketa eta post-prozesaketa. 3.7. Irudiak simulazio baten jarraitzen duen fluxu-diagrama erakusten du. Lehendabizi, sarrera-fitxategia irakurtzen da (*.inp*): lerroak banan-bana exekutatu dira zehaztutako *plugIn*ari deituz. Aurre-prozesaketan, aurrez sortutako harriaren DEM eredia kargatu eta simulazio-baldintzak zehazten dira (hasierako abiadura, kanpo-indarrak, baimendutako desplazamenduak...). Prozesaketan, simulazioa begizta itxian sartzen da. Iterazio bakoitzean, Newtonen dinamikaren oinarriko printzipioak aplikatuz, DE bakoitzaren posizioa eta DE-en arteko interakzioak kontuan hartuz, DE bakoitzean eragiten duten kanpo-indarrak definitzen dira. Indarren oreka aztertuz, DEaren azelerazioa kalkulatu eta, integrazio bidez, hurrengo iterazioan DEak izango dituen abiadura eta posizioa kalkulatu dira. Iterazio arteko denbora-tartea, konbergentzia eta egonkortasuna bermatzen duen balio handiena izatea komeni da konputazio-denbora osoa optimizatzeko.


Simulazioa, ezarritako iterazio-kopuru maximoa iristean bukatzen da, edota eskuz geratzen da, simulazioa egonkortu dela ikustean. Azkenik, post-prozesaketan aztertutako izango diren emaitzak biltzen eta gordetzen ditu programak.

### 3.3. Harriaren zenbakizko ereduaren eraikuntza

Atal honetan, zenbakizko DEM eredia eraikitzekeo pausak banan-bana deskribatzen dira. Horretarako lehendabizi harriaren osagaien eta haien konbinaketatik eratorritako egitura deskribatzen da. Ondoren konbinaketa hori DEM bidez erreproduzitzen da bi alderdi kontuan hartuz: osagaien banaketaren deskribapena (morfologia) eta propietate mekanikoen transferentzia.

#### 3.3.1. Harriaren ezaugarriak

Harriaren fabrikazioaren (urratzaile-aglomeratzaile nahasketa, trinkotzea eta labaldia) ondorioa da harriaren egitura hauskorra. Harriaren osaketaren oinarriko ezagutza beharrezkoa da haren eredia eraikitzekeo. Nolanahi ere harriaren osaketa irekia da, harri ekoizleek izendapen berdinarekin pean bi harri aldaera izan ditzakete, osagaiak eta ezagutzak sekretuan gordeaz. Harriaren zurruntasuna zeharka graduak definitzen du eta parametro garrantzitsua da harriaren portaeran. Harriaren zenbakizko DEM ereduak guzti hau modelizatzeko gai izan behar du.



3.8. Irudia: Ohiko harrien izendapena [Mal08]

Harriaren DEM ereduren abiapuntua, harriaren dimentsioak eta izendapena dira. Harria osatzen duten ale urratzaile, aglomeratzaile eta poro proportzioak konbinaketa posible anitz eskaintzen ditu, aplikazio bakoitzaren beharretara moldatuz. Azkenik, harrien propietateak neurtzeko teknikak azaltzen dira, gehienak neurri garatuak eta etengabe hobetuak direnak.

### Harriaren izendapena

Harriaren portaera, urratzaile-aglomeratzaile ezaugarrien eta biek harrian duten itxurazko bolumenaren kontzentrazioan menpe dago. Harrien izendapena nazio eta nazioarteko erakundeek adostutako arauak erregulatzen dute, besteak beste, ISO R655:1999 araua. Izendapenak bi zati nagusi ditu: lehenik harriaren geometria eta dimentsioak definitzen dira eta, ondoren, osagaiak eta ezaugarri mekanikoak. 3.8. Irudiak harrien izendapenen adibidea dakar.

Izendapenaren lehen zatian, harriaren forma zenbakiz definitzen da; profilak, berriz, hizki larriz. Neurri nominalak hurrenkera jakin bat dute.

Izendapenaren bigarren zatian, ekoizleak erabil dezakeen hautazko zenbakia-ekin hasten da; normalki erabili den urratzaile mota adierazi ohi da. Hurrengo hizkiak material urratzaile familia adierazten du. Ohiko urratzaileak alumina edo korindioa (A), eta silizio karburoa (C) dira; super-urratzaileak berriz diamantea (D) eta boro nitruro kubikoa (B).

Hizkiaren eskuineko zenbakiak, ale neurria zehazteko erabilitako galbahearen sare-zenbakia adierazten du. ISO 8486-1:1996 arauak azaltzen du ale-neurria eta ale-neurri banaketa nola definitu. Harria, ondoz-ondo dauden ale-neurrien nahasketa da, eta nahasketaren proportzioak egitura eta gogortasun propietate zehatzak lorrarazten ditu. Alearen batz besteko neurria  $d_g$  galbahearen harrien arteko distantziarekin bat egiten du eta 3.18 Ekuazioarekin formularekin estimatu daiteke [Mal08],  $M$  galbahearen sare-zenbakia delarik. [KJL97] ale-neurriaren banaketa normaltzat jotzen dute, ondorengo egileek jarraitu duten hipotesia [HK03, Dar13, JGB<sup>+</sup>13, LWBG13, LYZW15b]. Ikuspuntu horrek, ale-

neurri bakarra hartzen du kontuan, neurri ezberdineko urratzaileen nahasketa arbuaiatuz. Hala ere, harri errealetan erabilitako ale nahasketaren ale-neurriak banaketa uniformetik hurbilago dagoela erakusten du [MC71].

DEMak bi banaketa-motak onartzen ditu, normala eta uniforme. Urratzaile neurri zenbaki jakin batek banaketa uniforme jarraitzen du, bi galbaheen artean banatutako ale urratzailez osatua baitago. Bestalde, harria osatzen duten ale urratzaileak bizpahiru ale-neurriren nahasketa da. Eta horrela bai, uniformeki banatutako populazioen nahasketak banaketa normala osatzen du. Hala ere, harri-ekoizleak ez dira ekoizpenaren datu teknologikoak zabaltzearen zale. Tesi honetan, banaketa uniforme aukeratu da harriaren eredia eraikitzeko. Nahastutako ale-neurriak bata-bestearen alboan daudenez, nahasketaren desbiderapen estandarrak gutxi gorabehera banaketa uniformearen tartearekin bat egiten dute. Beraz, lortutako DEM ereduak antzekoak izango lirakeke eta banaketa uniforme ustearen akatsa txikia da. Beti ere, ekoizleen nahasketa datu errealak izanez gero, lan honetan aurkeztutako DEM ereduaz arazorik gabe aplikatu ahal dira.

3.19 Ekuazioak ale-neurriaren  $\mu_g$  banaketaren heina kalkulatu du;  $d_g^1$  eta  $d_g^2$  erabili diren galbaheen ale-neurri maximoa eta minimoa dira.

$$d_g = \frac{15,2}{M} \quad (3.18)$$

$$\mu_g = \frac{d_g^1 - d_g^2}{2} \quad (3.19)$$

Hurrengo hizkiak harriaren gradua edo gogortasuna adierazten du. Hizki larriz A-tik eta Z-ra izendatzen da: A maila bigunenetik Z gogorrenera. Harriaren gogortasunak alea harritik askatzeko erresistentzia adierazten du, aglomeratzaile-zubien adhesioa eta erresistentzia neurtuz. Parametro horren kontrola, besteak beste porositatea kontrolatuz lortzen da [Mal08].


Egitura zenbakiak harriaren irekitasuna adierazten du. Urratzaile proportzioaren bidez definitzen da eta zenbaki batez izendatzen da: 0-tik (egitura itxia) 14-ra (egitura irekia). Malkinek [Mal08]  $S$  egitura-zenbakiaren funtzioan urratzaile frakzioa estimatzeko 3.20 Ekuazioa eskaintzen du.

$$V_g = 2(32 - S) \quad (3.20)$$

Hizki batek definitzen du aglomeratzaile mota: (V) beiratzatua, (R) erretxina eta (M) metalikoa. Azkenik, eragiketa-abiadura maximoa zenbakiz definitzen da. Datu hori koloredun banda batek ere adierazten da harriaren etiketan.

### Harrien osaketa

Osoetasunak, urratzaile, aglomeratzaile eta poro edukiak definitzen du harriaren ezaugarriak eta portaera. Aleen, aglomeratzailearen eta porositatearen arteko erlazio bolumetrikoko graduaren eta egituraren definizioan parte hartzen dute. Harrien ekoizleek osagai bakoitzaren bolumen frakzioaren ( $V_g$  ale urratzaile,  $V_b$  aglomeratzaile eta  $V_p$  poro frakzioak) eta pisuaren kontrol zorrotza eramatzen




**3.9. Irudia:** Urratzaile, aglomeratzaile eta poro proportzio bolumetrikoen eragina harrien egituran [Klo09]

dute. Hiru frakzioen batura bat da. 3.9. Irudiak urratzaile, aglomeratzaile eta porositatearen proportzio bolumetrikoen aldaketek sortutako egituretan duten eragina erakusten du [Klo09].

Osagaien arteko proportzioek muga teknologikoak dituzte, bai ekoizpenean, baita erresistentzian ere. 3.10. Irudiak  $V_g$ ,  $V_b$  eta  $V_p$  proportzio bolumetrikoen grafiko trigonala erakusten du [Klo09]. Grisez nabarmendutako eremuak ohiko harrien osaketa erakusten du. 3.10. Irudiko diagrama trigonalak informazio interesgarria eskaintzen du, batez ere proportzio berdineko lerroetan aldaketak aztertzean. Poroen neurria eta forma, ale urratzaileen neurriaren eta formaren funtzioan daude. Ale urratzaile proportzioa handitu daiteke (>% 60) ale-neurri txikiagoarekin nahastuz. Alderantziz, ale bolumen proportzioa txikitu daiteke (<% 30), aleen forma kontrolatuz. Trinkotze minimoa ale arteko kontaktu minimoak zehazten du. Ale urratzaileen pilaketa osoa ez bada, aleen arteko tartekak handitu, eta ale artean aglomeratzaile zubiak luzatzen dira egitura ahulduz. Behin urratzaile bolumena definituta, gainontzeko bolumena aglomeratzailearen eta porositatearen artean banatzen da. Porositate altuak hozgarriari sarrera eman eta txirbilari irteera errazten dio artezketa burutzean. Aglomeratzailekopurua gehituz lotura-zubiak indartzen dira, harriaren gogortasuna handituz eta, era berean, porositatea murriztuz.

Beira-aglomeratzaileak, ale urratzaileekin batera tenperatura altuetan hautsen nahasketa (beira, karea, flux kimikoak) sinterizatuz lortzen dira. Hautsak eta urratzaileak, urarekin edo destrinarekin nahasten dira. Masa horrek berdean forma mantendu ahal izateko erresistentzia nahikoa dauka. Aurreformari su ematen zaio labeko ingurune kontrolatuan. Tenperatura altuek, ale urratzaile eta aglomeratzailearen arteko oxidoen difusioa errazten dute, lotura kimikoa eta fisikoa lortuz. Beirak lotura-zubiak sortzen ditu, kareak aurreformari berdean erresistentzia ematen dio manipulatu ahal izateko, eta fluxek aglomeratzaileak urratzailea bustitzea edo estaltzea errazten du, gainazal-tentsio egokia sortuz. 3.11. Irudiak aglomeratzailearen tantaren frogaren laginak erakusten ditu.



**3.10. Irudia:** Harrien osaketa bolumentrikoaren diagrama trigonala; eremu grisak muga teknologikoak zehazten ditu [Klo09]



**3.11. Irudia:** Aglomeratzailearen tantaren froga: malda jakin bateko gainazalean aglomeratzailearen jariakortasuna neurtzen da (iturria: Unesa)

### Propietate mekanikoen egiaztapena

Harri-ekoizleek harri guztiak frogatzen dituzte gain-abiaduran (1,2 – 1,5 aldiz lan-abiadura) dagokien arauaren arabera. Indar zentrifugoak harrian gaintentsioak sortzen ditu, alde batetik, dilatatzeko eta zurruntasuna handituz, eta bestetik, ebaketa-abiadura handitzean aglomeratzailearen erresistentzia ere handitzen da [Smi86]. Ekoizpenean eragindako pitzadura posibleak aurrez antzematea da gain-abiadura frogaren helburua. Zurruntasun gehikuntzak kontaktu-luzeran ere eragiten du. Efektua nabarmenagoa da erretxina aglomeratzailea darabilten harrietan eta abiadura handiko artezketan. Harria  $d_s$  diametroko diskotzat hartuz,  $d$  barne diametroa eta  $v_s$  abiadura periferikoa bada, 3.21 Ekuazioak biraketak zuloan sortzen duen tentsio maximoa adierazten du;  $\rho$  dentsitatea da eta  $\nu$ , berriz, Poissonen modulua. Tentsioa, abiadura periferikoarekiko oso sentikorra da karratura baitago.

$$\sigma_{\max} = \rho \left( \frac{3 + \nu}{4} \right) \left[ 1 + \left( \frac{1 - \nu}{3 + \nu} \right) \left( \frac{d}{d_s} \right)^2 \right] v_s^2 \quad (3.21)$$

Propietate mekanikoak ere neurtzen dira: ale urratzaileak eta harriak hainbat egiaztatze-froga gaintitu behar dituzte. Harrien materiala harrotzeko gaitasuna ale urratzaileen esku dago. Harriaren gorputzak biraketa transmititzeaz gain, aleak eusteko eta artezketaren indarrak jasateko gaitasunak behar ditu. Horietaz gain porositate kontrolatua dute hozgarria xurgatu ahal izateko. Ezauzgarri horiek neurtzeko berariazko frogak garatu dira. Harriak berak, diseinuzko material artifizial gisa, urratzaile eta aglomeratzaile konbinaketak ematen dioten zurruntasuna, porositatea eta ebaketa-propietateak dauzka.

Gogortasun- (Knoop eta Vickers) eta birrinkortasun-frogak dira urratzaileei egiten zaizkien saiakuntza nagusiak. Harriaren graduari edo gogortasunari dagokionez, lehen definizioaren arabera ebaluatzen zen, harriak ale bat askatzeko erakusten duen erresistentzia ebaluatuz. Decneut-ek *et al.* [DPS70] gogortasuna neurtzeko hogeita hiru metodo baino gehiago zenbatu zituzten, besteak beste, urradura-froga, zulaketa konikoa, makurdura-froga edo hondar-granailaketa. Gaur egun, orokorki onartzen da gogortasuna harriaren  $E_s$  elastikotasun moduluaz definitzea [KF87]: gradua alea askatzeko erresistentziarekin erlazionatua badago, orduan gogortasuna ere elastikotasunarekin erlazioa dauka. Harriaren elastikotasunak, graduaren definizioaz gain, kontaktuan ere parte-hartze zuzena dauka.

Oro har, elastikotasuna trazio- edo konpresio-frogetan neurtzen da. Baina harria material hauskor heterogeneoa izaki, bere portaera abiadurarekiko oso menpekoa da. Erresonantzia eta ultrasoinu frogak,  $E_s$  neurtzen duten teknika azkarrak eta ez suntsikorrak dira. Erresonantzia-analisiak, piezaren maiztasun naturala neurtzen du; ultrasoinuek, aldiz, soinuak gorputza zeharkatzean duen barreiatze-abiadura neurtzen dute. Nahiz eta bien emaitzak bata bestearen alderantzikoak izan, erresonantzia-analisia gailendu da. Ultrasoinuen neurketak beharrezkoa duen murgildutako ingurunea da arrazoia [Smi86]. 3.22 Ekuazioak  $E_s$  kalkulatzeko duen harriaren oinarriko bi-nodal makurdura-moduarekin erla-



zionatuz. Ekuazioak, maiztasun naturala ( $f$ ), harriaren dimentsioak ( $d_s$  kanpo-eta  $d$  barne- diametroak,  $b_s$  zabalera), propietate mekanikoak ( $\nu_s$  Poissonen modulua) eta dentsitatea ( $\rho$ ) erlazionatzen ditu.  $\nu_s$  ere erresonantzia-analisi bidez zehazten da, trakzio eta bihurtura bibrazio-moduak aztertuz.  $\nu_s$  konstantetzat har daiteke harri mota jakin batentzat tarte zabal batean [DPS70].


$$E_s = 1,074 \frac{(1 - \nu_s^2) f^2 d_s^4 \rho}{(1 - (d/d_s)^2)^2 b_s^2} \cdot 10^{-9} \quad (3.22)$$

### 3.3.2. Harriaren zenbakizko eredia DEM bidez


3.12. Irudiak aurkezten du lan honetan garatu den harriaren eta piezaren DEM eredia, eta bietan aplikatutako mugalde-baldintzak. Harria osatzen duten DEak habe sare batez lotuak daude, aglomeratzaile-zubien papera dutenak.

Orain erronka, ezaugarrietatik abiatuz, harriaren egituraren deskripzio morfologikoa eta mekanikoa lortzea da. 3.13. Irudiak harriaren zenbakizko DEM eredia eraikitzeke eman beharreko pausoak aurkezten dira. 3.2.3. Atalean DEM eredia eraikitzeke azaldu den zenbakizko sinterizazio prozedura, harriaren ezaugarri bereziak islatu ahal izateko moldatu da. Behin harriaren eredia sortuta, kalibrazio bidez doitutako propietate mekanikoak habeei transferitzen zaizkie. Azkenik, piezaren DE errektangeluarra multzoari gehitzen zaio .

Harriaren ezaugarriak 3.3.1. Atalean izendatzen dira. Harriaren DEM eredia eraikitzeke beharrezkoak diren parametroak, geometrikoak (harriaren morfologia granularra deskribatzeko) eta propietate mekanikoak (elastikotasuna) dira. Parametro geometrikoak  $d_g$  batz besteko ale-neurria eta egitura zenbakia ( $V_g$  urratzaile frakzio bolumetrikoa) dira, eta propietate mekanikoak graduak adierazten ditu,  $E_s$  elastikotasun eta  $\nu_s$  Poissonen moduluekin dituen erlazioarekin.



3.12. Irudia: Harriaren eta piezaren DEM eredia (eskalaz kanpo)



**3.13. Irudia:** Harriaren zenbakizko DEM eredia eraikitzeke fluxu-diagrama


Izendapenak zehazten ditu datu horiek. Urratzaile eta aglomeratzaile motaren eraginak graduak jasotzen ditu, beraz, ez dira sarrera-datuak DEM eredian. Era berean, Lik *et al.* ez bezala, aglomeratzaile eta porositate frakzio bolumetrikoak ez daude esplizituki modelatuak DEM eredian. Helburua ez da urratzaile-aglomeratzaile-poro konbinaketaren morfologia modelatzea, harriaren egitura granularren portaera mekanikoa baizik, DE-habe sarea baliatuz. Azkenik, harriaren geometria ezagutzea ere beharrezkoa da DEM ereduaren erakuntzan; artezketa lauan bereziki harriaren  $d_s$  kanpo-diametroa da funtsezko dimentsioa.

Horietatik, honako hauek dira zenbakizko sinterizazio bidez harriaren DEM eredia sortzeko sarrera-datuak: (a) ereduaren dimentsioak, (b) DE bataz besteko diametroa eta (c) urratzaile frakzio bolumetrikoa.

Ereduaren dimentsioak (a) harriaren geometriaren menpe daude. Artezketa lauan, harriak zilindrikoak dira, eta  $d_s$  kanpo diametroarekin eta  $b_s$  zabalarekin definitzen da haien geometria. Konputazio-kostuak ereduaren DE kopuruarekiko erlazio karratua dauka. Kostua murrizteko, harri osoa ez, ale batzuen zabalera duen xafra-disko bat modelizatzen da. Ereduak aspektu-erlazio handia dauka, zabalera estua duelako. Horren ondorioz norabide axialean isotropo izateari utziko dio, beste bi norabideetan aldiz isotropia mantentzen du. Efektua RVEaren homogeneousazioa guztiz lortzen ez duelako gertatzen da, eta habeen propietateen kalibrazioa eredu neurri ezberdinekin egitean islatzen da. Horrek tentsioetan eta deformazioetan ez du eraginik izango, baina bai norabide axialeko deformazioari, hau da, Poissonen moduluari. Ereduaren helburuari, kontaktu-luzeraren kalkuluari, eragiten ez dionez, ereduak zabalera estua izatea onargarria da.

Bestalde, gainazal ez-konformearen arteko kontaktuan, tentsioak kontaktu-eremuan kontzentratzen dira eta, beraz, baita deformazioak ere [Her1882]. Harriaren gorputza ez da deformatzen eta, ondorioz, nahikoa da gainazalarekin kontaktuan dagoen diskoaren zatia modelizatzea. Hau da, diskoa  $h_s$  distantziara batetara moztuko da, kontaktu-baldintzetan ia eraginik sortu gabe.  $h_s$  mozte altuera egokia, harri osoaren deformazioan eragiten ez duen distantziarik txikiena da.  $h_s$  distantzia FEM bidez estimatu da, distantzia horren gainetik tentsioak balio maximoaren bat ehunen baldintza ezarriz. Horrela, DEM ereduaren dimentsioak  $d_s$ ,  $b_s$  eta  $h_s$  dira (3.12. Ir.).

DEM eredian,  $d_g$  bataz besteko ale-neurriak  $d_{DE}$  elementu diskretuen bataz



3.14. Irudia: Harriaren DEM eredia eraikitzeke fluxu-diagrama

besteko diametroarekin bat egiten du. Horrela, 3.18 eta 3.19 Ekuazioek,  $d_{DE}$  DE erreferentziako diametroa eta  $\mu_g$  DE-en diametro dispersioa kalkulaten dituzte  $M$  galbahe zenbakian oinarrituz. DEM ereduaren DE dentsitateak, harriaren  $V_g$  urratzaile frakzio bolumetrikorekin ere bat egin behar du.  $S$  egitura zenbakiak adierazten du urratzaile frakzioa eta 3.20 Ekuazioarekin estimatzen da  $V_g$ .

Harriaren DEM eredia eraikitzeke fluxu-diagrama erakusten du 3.14. Irudiak. Lehendabizi, (1) ereduaren dimentsioak ( $d_s, b_s, h_s$ ) definitzen dira (3.12. Ir.). Ereduren dimentsioekin, DEM domeinuaren bolumena  $V_{DE}$  kalkulaten da. Biak,  $d_g$  batuz besteko ale-neurria eta  $V_g$  urratzaile frakzio bolumetrikoa aldi berean doitu behar dira. Horretarako, DEM domeinua betetzeko  $N_{DE}$  DE kopurua hartzen da erreferentziatuz. (2)  $V_{DE}$  ereduaren bolumena,  $V_g$  urratzaile frakzioa eta  $v_g$  ale urratzaile baten batuz besteko bolumena erlazionatuz, 3.23 Ekuazioak DEM ereduak harriaren urratzaile frakzioaren baldintza betetzeko  $N_{DE}$  elementu kopurua definitzen du. 3.24 Ekuazioarekin lortzen da  $\theta$  arkuaren angelu-erdia (rad) (3.12. Ir.). (3) Orain DEM eredia eraiki daiteke domeinuaren dimentsioekin eta  $N_{DE}$  DE kopurua kontsignatuz hartuta. Beharrezko  $N_{DE}$  lortu dela ziurtatu ondoren, (4) habeak sortzen dira kontaktuan dauden DE-en artean. Habei kalibrazio prozesuan lortutako propietate mekanikoak ezartzen zaizkie. Zenbakizko sinterizazioak DEM domeinua DE-az asetzen du, lortzen den  $d_{DE}$  DE batuz besteko diametroa desiratutako  $d_g$  baino handiagoa delarik. (5) Efektu hori, DE bakoitzaren diametroa  $r$  murrizpen-faktoreaz biderkatuz konpontzen da. 3.25 Ekuazioak  $r$  murrizpen-faktorea definitzen du,  $d_g$ -ren balioa  $d_{DE}$ -rekin alderatuz. Hauaxe da DEM ereduak harriaren egitura fidela deskribatzeko gakoa,  $d_g$  eta  $V_g$  aldi berean doitzea lortzen duena.

$$N_{DE} = V_{DE} V_g \frac{1}{v_g} = \left[ \frac{d_s^2 b_s}{4} \left( \frac{\pi \theta}{360} - \frac{\sin \theta}{2} \right) \right] V_g \left( \frac{6}{\pi d_g^3} \right) \quad (3.23)$$

$$\theta = 2 \arccos \left( 1 - \frac{h_s}{d_s} \right) \quad (3.24)$$

$$r = \frac{d_g}{d_{DE}} \quad (3.25)$$

Azkenik, pieza gehitzen da DEM ereduan. 3.2.1. Atalean azaldu da, pieza DE errektangeluar bakarrarekin modelatzen dela (3.12. Ir.). Elementu berezi honek gainazal laua simulatzen du. Piezaren mugimenduak desplazamendu bertikale-ra mugatzen dira ( $y$  ardatza), harriarekiko norabide erradialean. Biraketak ere galaraziak ditu. Ohiko DEak bezala, DE errektangeluarra ere zurruna da, baina kontaktu-legearen arabera penetrazioa baimentzen du. Gainazaleko DE baten eta piezaren artean elkar-sartzea detektatuz gero, penetrazioaren arabera erreakzio-indarra aplikatzen da bai piezan, baita alean ere (3.5. Atala).


### 3.4. Zenbakizko diamantaketa

Harriaren gainazalaren topografia diamantaketaren ondorio zuzena da. Atal honetan diamantaketak sortutako gainazal topografia aplikatuko zaio 3.3. Atalean eraiki den harriaren DEM ereduari.

Topografia-ereduen berrikuspenean (2.3.2. Atala), topografia definitzen duten ezaugarri nagusiak identifikatu dira. Horien artean ale-neurria, ale-dentsitatea, tontor-altuera eta zorrotasuna daude. Ezaugarri horiek komunak dira diamantaketa finko eta birakarirako. Hala ere, 2.1.2. Atalean azaldu da diamante punta-bakar finkoen erabilerak, parametro zinematikoak eta ezaugarri geometrikoak lortutako topografiarekin erlazioatzea ahalbidetzen duela. Horregatik, tesi honen hedadura diamante punta-bakar finkoen erabilerara mugatu da. Ereduaren hedapena diamante punta-anitzetara eta birakarietara zabaltzea, tesi honek egiteke uzten duen atazetako bat da. Hedapena, aurrez aipatutako diamantaketa-ezaugarriak (ale-dentsitatea, tontor altuera eta sorbatzen zorrotasuna) gainazaleko aleetan ausaz aplikatuz lortuko da.

Diamanteak gainazala torneatzean harriaren gainazal topografia sortzen du. DEM eredura topografia transferitzeko diamantaketak lana nola egiten duen jakin behar da. Berrikuspenean aleen eta lotura-zubien hausturak diamantaketa-mekanismo nagusiak direla ikusi da. Nahiz eta *a priori* ausazko gainazala dirudien, diamantaketak tontor-patroi jakin bat sortzen du. Diamantearen profilak gainazalean bere ibilbidearen aztarna helikoidala uzten du. Urratzailearen haustura hauskorrak bihurtzen du harriaren gainazala ausazkoa. Bestalde, industria-inguruetan onartua dago diamantaketa larrian harriaren gainazala irekiagoa eta bigunagoa lortzen dela, aldiz diamantaketa-baldintza finek gainazal itxiak eta gogorrak sortzen dituzte. Soilik ale irtenenek egingo dute kontaktu piezarekin, gainazala goldatuz eta, baldintzak betez gero, materiala ere harrotuz. Ale berdineko ebaketa-sorbatzek ez dute materiala harrotzeko behar besteko leku fisikorik. Ebaketa-sorbatzen zorrotasuna sorbatz-erradioaren edo -angeluen bidez adierazi daiteke. Horrek sorbatz-geometria baldintzatzen du: esfera, konoa edo piramidea.

Kontzeptu horietan oinarrituz, topografia lau pausotan aplikatzen da harriaren DEM ereduan: (1)  $d_s$  diametroan gainazala moztu, (2) diamantaketan as-



### 3.15. Irudia: Harriaren DEM ereduari gainazal topografia aplikatzeko pausoak


katutako ale frakzioa ezabatu, (3) ebaketa-sorbatzen sakonera posizioa definitu, eta (4) sorbatz-geometria aplikatu. 3.15. Irudiak harriaren gainazal topografia aplikatzeko fluxu-diagrama aurkezten du.

Lehen pausoak, gainazala  $d_s$  harriaren diametro nominalera uzten du, DE geruza fin bat ezabatuz. Aleak harrian ausaz kokatuak egoteak, ale kontzentrazioa sakoneran linealki handitzea dakar [McA64]. DEM eredu sortzean, nahiz eta zenbakizko sinterizazio prozedurak domeinuan DE-en banaketa homogenea eta ausazkoa ziurtatu, domeinuko pareta elastikoen inguruan DEak pilatzen dira, lokalki elementu dentsitatea handituz. 3.16. Irudiak azaltzen du elementuen pilaketa efektua, sakonerarekiko DE dentsitate metatuan pilaketa mailakatuak agertuz. Pilaketa efektua, DEM ereduaren gainazaletik hiru aldiz DE diametro sakoneran duen DE geruza kenduz konpontzen da. Horrek DEM eredu eraikitzean sarrera-datueta, harriaren diametroa zerbait handiagoa erabiltzea ( $d_s \pm 3d_g$ ) dakar.

Lehen pausua aplikatzean, DEM ereduaren eraikuntzan ale-pilaketa konpontzen da eta gainazala diametro nominalean topografia aplikatzeko prest uzten da: gainazaleko DEaren zentroa  $d_s$  erreferentziazko diametrotik kanpo geratuz gero, elementua ezabatu egiten da.

Bigarren pausuan, harriaren gainazaletik diamantaketaren ondorioz askatutako aleak ezabatzen dira. Kontuan hartzen da ale irtenenak direla askatzeko probabilitate gehien dutenak. Horretarako 2.1.2. Atalean azaldu den Malkinen diamantaketan askatutako partikulen eredu erabiliko da [MC71, Mal08]. Bertan, aleak askatzean duten batz besteko diametroa  $d_b$  harriaren gainazalaren irekitasunarekin erlazionatzen du. Gainazaleko  $G_{dyn}$  ale-dentsitate dinamiko eta  $G_o$  ale-dentsitate teorikoa erlazionatuz,  $d_b$  estimatzen da 2.11, 2.12 eta 2.13 Ekuazioekin. DEM ereduaren,  $d_s$  diametroan mozten duten gainazaleko DE-en neurria  $d_b$  baino txikiagoa bada, ezabatua da.

Orain DEM ereduaren gainazala lantzeko prest dago. Lehendabizi, gainazaleko DE bakoitzaren  $y_p$  tontorraren sakonera definitzen da eta, ondoren, sorbatz-zorroztasuna aplikatzen da tontor bakoitzean. Verkerken arabera, gainazaleko



**3.16. Irudia:** Ale-dentsitate metatua sakonera erradialean: DE-en pilaketa DEM ereduaren paretetan eta  $d_s$  harriaren erreferentziako diametroaren definizioa


ale bakoitzak sorbatz erabilgarri bakarria dauka [Ver77]. DEM erudian, Chenen funtzio sinusoidala [CR96] era diskretuan aplikatzen da DE-en zentroetan  $y_p$  tontorren sakonera erradialak definitzeko (3.17.(a) Ir.). Tontorrek DE-en zentroekin lerrokatuak daudela jotzen da. Chenen diamantaketa eta Malkinen ale-askatze ereduaren konbinaketak, diamante punta-bakar finkoen diamantaketa-mekanismoak biltzen ditu: helize helikoidal harikorra, ausazko ale-haustura eta ale-askatzea.

$y_p$  tontor sakonera kalkulatzeko erabiliko den 3.26 Ekuazioak, 2.27 Ekuazioa gogorarazten du, honek ere  $y_d$  helizearen osagai harikorraren eta  $y_f$  haustura hauskorraren efektuak konbinatzen baititu.  $y_d$  osagai harikorra (3.27 Ek.),  $f_d$  diamantaketa-aitzinamenduarekin jauzi diskretuetan mugitzen den zirkunferentzia-funtzioak zehazten du. 3.27 Ekuazioan,  $\rho_d$  diamantearen erradiora,  $x_c$  eta  $y_c$  diamantearen aldiuneko posizioa,  $x$  tontorraren (edo DE zentroaren) posizioa norabide axialean, eta  $a_d$  diamantaketa-sakonera da.  $x_c$ ,  $f_d$  aitzinamenduarekiko proportzionala den zenbaki diskretua da, eta bere balioa DEaren zentroaren posizioarekiko gertuen dagoen balioa da. Eta 3.28 Ekuazioak  $y_f$  osagaia definitzen du  $h_f$ -ko anplitudea duen hausturaren  $s_n$  ausazko frakzioa izanik.  $h_f$  haustura anplitudea 2.28 Ekuazioak kalkulatzeko da. Honela, Chen-Malkin ereduaren konbinaketak, ale-dentsitatea azalarazten da sakonera barneratzean.

$$y_p(x) = y_d(x) + y_f \quad (3.26)$$

$$y_d(x) = \sqrt{\rho_d^2 - (x - x_c)^2} - y_c \text{ non } x_c = \mathbb{Z} \left( \frac{x}{f_d} \right) \text{ eta } y_c = a_d - \rho_d \quad (3.27)$$

$$y_f = s_n h_f \quad (3.28)$$



**3.17. Irudia:** (a) Tontorra harriaren  $d_s$  kanpo-diametroarekiko  $y_p$  sakoneran kokatzen da, bertikalean DEaren zentroarekin lerrotatuta;  $y_p$  diamantearen ebaketa harikorraren  $y_d$  eta haustura hauskorraren  $y_f$  osagaien batura da [CR96]; (b) diamantaketa haustitako ale urratzailea sorbatz-erradioaren definizioarekin [Mas52, Klo09]

Bukatzeko, tontorraren edo sorbatzaren geometria definitzea falta da. Sorbatzaren geometriak alearen zorroztasun egoera islatu behar du. Berrikuspenean ikusi da ohiko urratzaileen topografia-eruedetan  $\rho_s$  sorbatz-erradioa (esfera) eta sorbatzaren malda (konoa edo piramidea) nagusitu direla zorroztasuna adierazteko (2.3.2. Atala). Biak antzera neurtzen dira eta biak DEM eruedaren topografian erraz implementatu ahal dira. Sorbatzen maldak sakonerarekin aldatuta handiak dituzenez [TB00], esfera aukeratu da, erradioa  $\rho_s$ -rekin berdinduz (3.17.(b) Ir.).  $\rho_s$ -k higaduragatik zorroztasun aldaketak ere islatu ahal ditu. Harriaren higaduraren modelaketa, sorbatz-zorroztasuna eta ale-askatzea erlazioztatuz, tesi honek proposatzen duen etorkizuneko ikerketa-ildoetako bat da.

$\rho_s$  neurtzeko Königek eta Lortzek erabilitako prozedura [KL75] eguneratu da, gaur egungo 3D topografia neurketen abantailez baliatzeko. 3D topografia neurketetan tontor irtenenak identifikatu eta haien 2D profilak lortu dira ebaketa-norabidean software bidez. Ale-pieza kontaktua azalekoa denez, mikra gutxi batzuetako sakoneran ( $5 \mu\text{m}$ ) hurbildutako zirkunferentziaren erradioa da  $\rho_s$ . Prozedura honek 2D profilak beti aleen tontorretan aztertzea ahalbidetzen du.

Laburbilduz, atal honetan deskribatu diren pausuak jarraituz DEM eruedaren gainazalak diamantaketaren ondorioak islatzeko gai da, artezketaren ausazko natura mantenduz. Erreferentziatzko gainazal batetik abiatuz, lehenik askatu diren aleak ezabatzen dira. Ondoren geratzen diren aleen tontor-sakonera definitzen da erreferentziatzko gainazalarekiko. Ale bakoitzak ebaketa-sorbatz bakarra dauka. Ebaketa-sorbatzak geometria esferikoa du,  $\rho_s$  sorbatz-erradioak zorroztasuna adierazten duelarik. Era honetan, ale-dentsitatea sakonerarekiko azaleratzen da, harrietan gertatzen den antzera.

### 3.5. Mugalde-baldintzak

Behin harriaren DEM eredua eraiki eta diamantaketak sortutako topografia sortu ondoren, heldu da mugalde-baldintzak gehitu eta simulazioa martxan jartzeko ordua. Tartean, artezketa lan-baldintzak ezarri, ale-pieza kontaktua detektatu eta bien interakzioan dauden baldintzak erreproduzitu behar dira.

Atal hau ereduaren mugalde-baldintzak eta kargak aurkezten hasten da. 3.12. Irudiak ereduaren aplikatutako kanpo-indarrak eta mugimendu-murrizpenak erakusten ditu: piezan esperimentalki neurtutako indar normala aplikatzen da, harriaren ebaketa-planoa berriz finko dago. Harriaren ereduaren alboko partetik batek ere, harriaren ardatzarekiko norabidean desplazamendua galarazia dauka, gilbordura eragozteko. Iterazio bakoitzean, harriaren gainazaleko DE-en eta piezaren posizioak alderatzen dira, erreakzio-indarra aplikatuz elkar-sartzea detektatuz gero. Simulazioan zehar, sartze sakonera maximoa, kontaktu-indar erresultantea eta kontaktu-luzera monitorizatzen dira. Sistema dinamiko modeldua denez, iterazioak (edo denbora) aurrerantz doazen heinean piezaren posizioak emaitzarantz jotzen du, orekara iristean aleetako erreakzio-indar guztien baturak eta piezan aplikatutako indar normalak bat egiten dutelarik. Egonkortasun dinamikoa bermatzeko, indar normala zerotik linealki handitzen da, indar normal nominalera iristean konstante bihurtuz.

Sarreran komentatu da, artezketa-kontaktua bi baldintzetan modelatuko dela, hau da, bi mugalde-baldintza multzo aplikatzen dira DEM eredu berdinari: kontaktu estatikoa (KE) eta ebaki-gabeko txirbil-lodiera (ETL) mugalde-baldintzak. Bakoitzak bere kontaktu-detekzio algoritmoa eta kontaktu-legea dauka. Bietan simulazioa kontaktu-gabe-ia-ukitzen (harria-pieza distantzia  $< 10^{-16}$  m) posizioan hasten da, konputazio-denbora ahalik eta gehien optimizatzeko eta hasierako kolpeak edo urruntzeak saihesteko. Harriak ez du biratzen. Hala ere, indar zentrifugoa harriaren ale bakoitzean aplikatu da norabide erradialean kanporantz. Indar zentrifugoaren eragina bi mugalde-baldintza multzoetan (KE eta ETL) barneratu da (3.5.3. Atala).

KE ereduak harriaren eta planoaren (pieza) arteko kontaktu estatikoa modelatzen du. Kontaku estatikoaren emaitzak, RQ ereduaren  $l_f$  kontaktu-luzera zimurra terminoari dagokion (2.2.1. Atala) eta, horrela,  $R_r$  zimurtasun-parametroa estimatu daiteke. Bestalde, ETL ereduak ale-pieza arteko ebaketa-indarra kalkulatu du,  $a_e$  ebaketa-sakonera kontaktu-detekzio algoritmoan barneratuz. Shawen txirbil-sorkuntzaren gogortasun eredu (2.4.2. Atala) aukeratu da ale mailako ebaketa-indarrak estimatzeko.

KE eta ETL ereduetan, kontaktu-baldintzak zurrun-plastiko-perfektuak direla jotzen da, eta piezaren materialak portaera biskoplastikoa erakusten du. Kontaku-presioek erraz gainditzen dute eremu elastikoa eta, beraz, kontaktua zurrun-plastiko-perfektutat har daiteke (2.4.1. Atala). Tentsio ebakitzailen labaindura-lerroetatik ondorioztatua eta behaketa esperimentalek berretsia, gainazaleko bataz besteko kontaktu-presioa eremu plastikoan materialaren isurpen-tentsioaren hirukoitza da gutxi gorabehera ( $\approx 3\sigma_y$ ).

Hala ere, deformazio plastiko eta deformazio-abiadura handiek materialaren erresistentzia igotzen dute, eta eragindako tenperatura altuek, aldiz, bigundu.




Biskoplastikotasunak materialen portaera inelastikoa deskribatzen du deforma-zioen eta tenperaturen funtzioan. Besteak beste, Johnson-Cook (JC) eredu eratzailleak  $\sigma_y$  isurpen-tentsio erabilgarria estimatzen du [JC83], aurrez azaldu diren adierazpen zurrun-plastiko-perfektuetan aplikatzen dena. 2.35 Ekuazioak  $\sigma_y$  estimatzen du  $\varepsilon_p$  deformazio plastikoaren,  $\dot{\varepsilon}_p$  deformazio-abiaduraren eta  $T$  tenperaturaren funtzioan. Hiru parametro horiek alearen ibilbidean zehar aldatuz doaz, urradura-mekanismoen aldaketarekin batera (igurzketa, goldaketa eta ebaketa). 2.4.3. Atalean eztabaidatu da,  $\phi$  ebakidura-planoaren angelua,  $\varepsilon_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $T$  xehetasunez soilik zenbakizko simulazio bidez estimatu daitezkeela. Parametro horien ebaketa-sakonerarekiko balioztapen esperimentalak konplexua da. Hurbilpen analitikoak, berriz, tenperaturaren estimazio zabarra eskaintzen du kontaktu-luzeran posizioarekiko, ez ebaketa-sakonerarekiko. KE ereduaren kontaktu-luzera zimurra (harria-planoa kontaktua) artezketa kontaktu-luzerarekin zerikusirik ez duenez, hurbilpen analitikoak ez luke zentzurik izango. Hurbilpen analitikoa ETL ereduaren inplementatzeak, berriz, konputazio eskakizunak handituko lituzke, iterazio bakoitzean ale bakoitzarentzat  $\sigma_y$ -ren balioa estimatzeko beharrak bultzatuta. Tesi honetan garatutako ereduak  $\varepsilon_p$ ,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $T$  konstantetzat jotzen ditu kontaktu-luzeran zehar bi mugalde-baldintza aldaeretan. Hurbilketa zabar horrek sortutako akatsa txikiagoa da piezaren materialaren portaera biskoplastikoa arbuiazeak ekarriko lukeenak baino.

Ondorengo Atalek, KE eta ETL ereduaren mugalde- eta kontaktu-baldintzak deskribatzen dituzte. Kontaktu-detekzio algoritmoa eta kontaktu-legeak (kontaktua identifikatuz gero erreakzio-indarraren definizioa) dira bi hurbilpenen arteko ezberdintasun nagusiak. Kontaktu-detekzio algoritmoa prozesagailuan barneratzen da: iterazio bakoitzean hartzen du parte, gainazal elementuen posizioa piezarenarekiko aztertuz. Kontaktu-legeak, kontaktua detektatzen den bakoitzean kalkulatu du erreakzioa, indarra DEaren eta piezaren indar-orekara gehituz.

### 3.5.1. Kontaktu estatikoaren (KE) eredia

2.2.1. Atalean Rowek eta Qik [RMQZ93] garatutako eredia aurkeztu da. Haien arabera,  $l_c$  kontaktu-luzera bi osagaien batura koadratikoa da:  $l_g$  kontaktu-luzera geometrikoa, harria-pieza gainazal leun zurruntzat hartuz, eta,  $l_f$  kontaktu-luzera zimurra, harriaren eta gainazal lauaren artean (ikusi 2.25 Ek.).  $l_g$  osagaia geometria aztertuz kalkulatu da,  $a_e$  ebaketa-sakonera kontuan hartuta.  $l_f$  osagaiak aldiz, harria eta plano baten kontaktu estatikoaren emaitza izanik, ez du harria-pieza kontaktua zuzenean aztertzen. KE ereduaren helburua, beraz, harriaren DEM eredia  $l_f$  harriaren eta piezaren kontaktu estatiko zimurra simulatzeko erabiltzea da, ez artezketa kontaktu-luzera. RQ eredia, besteak beste,  $R_f$  zimurtasun faktore empirikoaren funtzioan dago, faktore askoren eraginak biltzen dituena. KE eredia ere baliagarria da  $R_f$  estimatzeko. KE eredia berez, bere horretan, gainazal zimurren arteko kontaktua modelatzeko hurbilpen berritzaile eta malgua da, materialari portaera elastikoa, elastoplastikoa edo zurrun-plastiko-perfektua egotziz.



**3.18. Irudia:** Kontaktu-detekzioa: elkar-sartzea harriaren gainazaleko elementu baten eta piezaren gainazalaren artean

### Kontaktu-detekzioa

Iterazio bakoitzean, gainazaleko DE bakoitzaren tontorraren posizioa, piezaren gainazalarenarekin alderatzen da. KE eredian, gainazaleko DE baten eta piezaren arteko kontaktua antzematen da, baldin eta  $\delta_i$  elkar-sartzea baieztatzen bada bien posizioak alderatzean. Prozedura gainazaleko ale bakoitzarentzat iterazio bakoitzean errepikatzen du detekzio algoritmoak. Harria geldirik dago, beraz alearen eta piezaren elkarguneak moztutako esferaren geometria dauka.

3.18. Irudiak KE eredian kontaktuak nola antzematen diren azaltzen du. 3.29 Ekuazioak kontaktu-detekzioaren adierazpena aurkezten du.  $\delta_i$  DE-pieza arteko elkar-sartzea,  $(y_i + r_p^i)$  tontorraren eta  $(y_w - h_w/2)$  piezaren gainazalaren posizio bertikalen arteko diferentzia da.  $r_p^i$  tontorraren eta DE zentroaren arteko distantzia da,  $(x_i, y_i, z_i)$  eta  $(x_w, y_w, z_w)$  elementuaren eta piezaren zentroen posizio koordenatuak dira hurrenez hurren, eta  $h_w$  piezaren altuera da. Elkar-sartze positiboak ( $\delta_i > 0$ ) kontaktua baieztatzen du.  $r_p^i$  distantzia eredia eraikitzean finkatzen da, topografia aplikatzean, gainazaleko ale bakoitzari  $y_p^i$  tontor-sakonera ezarriz  $d_s$  harriaren diametroarekiko.

$$\delta_i = (y_i + r_p^i) - \left( y_w - \frac{h_w}{2} \right) \quad (3.29)$$

### Kontaktu-legea

Behin kontaktua baieztatuta, aurkako noranzkoa duten kontaktu-indar normal  $f_n^i$  bera aplikatzen zaie piezari eta elementu diskretuari. Kontaktu-indarra, inguruko elementuen interakzio indarrekin batera, hurrengo iterazioan elementuak izango dituen posizio, abiadura eta azelerazioa kalkulatzeko erabiltzen da. Kontaktu-indar normala,  $\delta_i$  elkar-sartzearen eta bien arteko abiadura erlatiboaren funtzioan dago. Indarren norabideak ardatz bertikalarekin bat egiten du. 3.30 Ekuazioak definitzen ditu norbanako ale baten kontaktu-indarraren osagaiak.

$$\mathbf{f}_n^i = \mathbf{f}_c + \mathbf{f}_d \quad (3.30)$$

Lehenengo osagaia,  $\mathbf{f}_c$ , erreakzio kontaktu-indarrari dagokio. Kasu honetan, aleen tontorren geometria esfera da. 3.31 Ekuazioak  $\mathbf{f}_c$  kontaktu erreakzioa sorbatz esferikoaren eta gainazal lauarentzat moldatzen du.  $\mathbf{f}_c$  eta  $\mathbf{n}$  bektore unitario bertikala lerrotatuta daude, eta  $\delta_i$  elementua eta piezaren arteko elkar-sartzea da. Nahiz eta DEak  $d_g$  diametroko esferak izan,  $\rho_s$  erradioko esferak modelatzen ditu sorbatzak (3.17. Ir.). Harria geldi dago, ondorioz, sorbatzek piezan utzitako aztarnek horien alderantzizko geometria dute.

$$\mathbf{f}_c = 3\sigma_y\pi \left[ \rho_s \sin \left( \arccos \left( \frac{\rho_s - \delta_i}{\rho_s} \right) \right) \right]^2 \cdot \mathbf{n} \quad (3.31)$$


3.31 Ekuazioak kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat jotzen duenez, batz besteko kontaktu-presioa  $\sigma_y$  isurpen-tentsioaren hirukoitza da (2.4.1. Atala). Ereduak kontaktu estatikoa simulatu arren, materialaren portaera biskoplastikoa modelatzeko ere balio du adierazpenak: nahikoa da  $\sigma_y$  materialaren isurpen-tentsioa JC ereduak tentsio baliokideagatik ordezkatzera (2.35 Ek.).

3.30 Ekuazioaren bigarren osagaiak,  $\mathbf{f}_d$ , sartze-abiadura erlatiboarekin erlacionatuta dagoen indar iraungitzailea islatzen du. Moteltze-indarra 3.2 Ekuazioa jarraituz kalkulatzen da (3.2.1. Atala), non  $M_{iw}$  masa baliokidea 3.5 Ekuazioarekin kalkulatzen den.

### 3.5.2. Ebaki-gabeko txirbil-lodieraren (ETL) eredua

Izena, ebaki-gabeko txirbil-lodiera (ETL), ereduaren lan egiteko eragatik dator: ebaki-gabeko txirbil-lodieraren funtzioan kalkulatzen da ale bakoitzak jasaten duen indarra. Horrela, harria materiala harrotzen dagoen istant bat simulatzen da. KE eta ETL ereduak, DEM eredu eta hasierako mugalde-baldintza (3.12. Ir.) berdinak partekatzen dituzte. Baina ETL erudian, harriari artezketa-indar normala eta tangenziala, biak aplikatzen zaizkio. Ereduaren mugalde-baldintzek,  $a_e$  ebaketa-sakonera ere kontuan hartzen dutenez, lortzen den emaitza zuzenean  $l_c$  kontaktu-luzera da. Horrela, elementu bakoitzaren txirbil-lodiera posizioaren araberkoa izatea lortzen da. Harriak ez du biratzen: aleetan eragindako ebaketa-indarren erresultanteak piezan aplikatutako indarrekin bat egiten du. Shawen txirbil-sorkuntzaren gogortasun-analogian erabiltzen da alean erreakzio-indarra estimatzeko [Sha71, Sha96], piezaren materialaren portaera biskoplastikotzat hartuz.

3.19. Irudiak ereduaren funtsa azaltzen du. 3.19.(a) Irudian,  $A$ - $B$  arkuak  $l_g$  kontaktu-luzera geometrikoa grafikoki definitzen du, harria eta pieza gorputz zurruntzat hartuz. Kontaktuaren hasierak,  $A$  puntuak, harriaren azpiko koadrantearekin bat egiten du.  $h_{cu}$  ebaki-gabeko txirbil-lodiera bata bestearen segidan dauden bi aleen ibilbideek definitzen dute, eta  $h_{cu}$  linealki handituz doa kontaktu-luzeran zehar. Aldiz, harriaren deformazioaren ondorioz, 3.19.(b) Irudian kontaktua  $A'$  punturaino luzatzen da. Deformazioaren ondorioz, harriapieza arteko kontaktu-kurba erreala ezezaguna da.




**3.19. Irudia:** ETL ereduaren oinarriak: (a) Kontaktu-luzera geometrikoa eta ebaki-gabeko txirbil-lodiera; (b) deformazio plastikoaren eta ebaki-gabeko txirbil-lodieraren konbinazioa ( $\delta_{max} + h_{cu}^i$ )

ETL ereduak barneratzen du, alde batean ( $A-A'$ ), aleak piezaren gainazala era plastikoan goldatzen duela; eta bestean ( $A-B$ ), aurrez aleak eragindako deformazio plastikoaren ondorioz lortutako sakonerari, posizio-arkuan dagokion ebaki-gabeko txirbil-lodiera gehitzen zaiola. Horrela, bi aldeetan alearen sakonekarak benetako  $h_{cu}$ -rekin bat egiten du, erreakzio-indarra estimatzeko erabiltzen dena. Deformazio elastikoen eragina arbuigarria da deformazio plastikoekin parekatuz. Aurreko aleek utzitako ildaskak eta gandorrek arbuia egin dira elkar-sartzearen definizioan. Aurreko aleen efektua barneratzea, tesiak egiteke utzi duen atazetako bat da.

### Kontaktu-detekzioa

Aurreko hariari jarraituz, bi kontaktu-eremu izateak kontaktuak detektatzeko bi algoritmoen beharra dakar. 3.20. Irudiko  $A'-A$  segmentuan, KE ereduko  $\delta_1$  elkar-sartzea bezala kalkulatzen da (3.18. Ir., 3.29 Ek.).  $A-B$  segmentuan berriz (3.20. Ir.), parte hartzen duten elementuak, piezaren gainazaletik  $a_e$  distantziara aurkitzen dira. Harria-pieza bikotearen kontaktuaren kurbatura ezezaguna denez,  $A-B$  segmentuan  $y_p$  tontor-sakonera hartzen da erreferentzia flotatzailatzat. 3.32 Ekuazioak erakusten du  $A-B$  segmentuan dauden aleen  $\delta_k$  elkar-sartzea,  $A'-A$  segmentuko  $\delta_{max}$  elkar-sartze maximoa eta dagokion  $h_{cu}^k$  ebaki-gabeko txirbil-lodieraren arteko batura dela.  $\delta_k$  positiboak kontaktua konfirmatzen du.  $h_{cu}$  kontaktu-arkuan zehar linealki aldatzen denez, bere balioa  $h_{cu,max}$  ebaki-gabeko txirbil-lodiera maximoaren (2.5 Ek.),  $z_k$  elementuaren posizioaren eta antzemandako  $z_{max}$  urrunen dagoen kontaktuaren posizioaren funtzioan dago (3.33 Ek.). Horrela,  $A'-A-B$  kontaktu-arku osoa aztertuz, kontaktu-indarrak profil trianguluar irregularrak hartzen du, errealitatean gertatzen den antzera.



**3.20. Irudia:** Kontaktu-detekzioa  $A'-A$  eta  $A-B$  eremuetan; zirkuluek sorbatzak adierazten dituzte

$$\delta_k = \left( \left( \delta_{\max}^{A'-A} + y_{\max}^p \right) - y_p^k \right) + h_{cu}^k \quad (3.32)$$

$$h_{cu}^k = h_{cu,\max} \frac{z_k}{z_{\max}} \quad (3.33)$$

### Kontaktu-legea

$\mathbf{f}_n^i$  kontaktu-indar normala bi eruedetan, KE eta ETL,  $\mathbf{f}_c^i$  erreakzio- eta  $\mathbf{f}_d^i$  moteltze-indarren batura da (3.30 Ek.), biek  $\mathbf{f}_d$  osagai iraungikorra partekatzen dutelarik (3.2 Ek.). Literatura-berrikusketan 2.4.2. Atalean aurkeztu den Shawen txirbil-sorkuntzaren gogortasun eredua aukeratu da aleko erreakzioa estimatzeko [Sha71, Sha96]. Gogortasun-froga izaki, Shawek erreakzioaren adierazpena kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat hartuz ondorioztatzen du (2.29. Ir.). Hala ere, deformazio-baldintzek eta tenperaturek materialaren propietate mekanikoak aldatzen dituzte, materialak portaera biskoplastikoa erakusten duelarik. Shawek garatutako 2.31 Ekuazioa moldatu da  $\mathbf{f}_c$  kontaktu-indar normala estimatzeko, gogortasuna erabili beharrean, JC eredu eratzaillearekin estimatutako  $\sigma_y$  isurpen-tentsio eraginkorragatik ordezkatur. 3.34 Ekuazioak  $\mathbf{f}_c$  kontaktu-indar normala kalkulatzeko kontaktu-detekzio algoritmoarekin kalkulaturako  $\delta_i$  edo  $\delta_k$  elkar-sartzearen (3.29 Ek., 3.32 Ek.),  $\mu$  indar-arrazioren eta JC ereduarekin lortutako  $\sigma_y$  isurpen-tentsio eraginkorraren funtzioan. Era honetan, 3.34 Ekuazioak,  $\mathbf{f}_d$  indar iraungikorrarekin batera (3.2 Ek.),  $\mathbf{f}_n^i$  kontaktu-indar normala (3.30 Ek.) kalkulatzeko dute; eta, azkenik, 3.35 Ekuazioarekin,  $\mathbf{f}_t^i$  kontaktu-indar tangentziala  $\mu$ -ren funtzioan.

$$\mathbf{f}_c = 3\sigma_y \pi \left[ \rho_s \sin \left( \arccos \left( \frac{\rho_s - \delta_i}{\rho_s} \right) \right) \right]^2 \cdot \sin(\arctan \mu) \cdot \mathbf{n} \quad (3.34)$$

$$\mathbf{f}_t^i = \mu \cdot \mathbf{f}_n^i \quad (3.35)$$

### 3.5.3. Indar zentrifugoa

Indar zentrifugoa, gorputz birakarietan agertzen den itxurazko indarra da. Newtonen zehaztu zuen 3.36 Ekuazioa, partikula batean eragiten duen  $\mathbf{f}_z^i$  indar zentrifugoa kalkulatzeko.  $\mathbf{f}_z^i$ -n eragiten dute,  $m_i$  partikularen masak,  $\omega$  abiadura anguluarrak eta  $r$  biraketa-zentroarekiko distantziak.  $\omega$  eta  $\mathbf{r}$  bektoreak dira. 3.37 Ekuazioak indar zentrifugoaren  $f_z$  modulua kalkulatu du. Adierazpenak biraketa-abiaduraren garrantzia azpimarratzen du. Indar zentrifugoak harria erradialki zabaltzen du, zurruntasuna handituz.

$$\mathbf{f}_z^i = m_i \omega \times (\omega \times \mathbf{r}) \quad (3.36)$$

$$f_z^i = m_i \cdot \omega^2 \cdot r \quad (3.37)$$

$\mathbf{f}_z$  indar zentrifugoa ereduko DE bakoitzean norabide erradialean aplikatzen da, bere  $m_i$  masaren,  $N_s$  biraketa-abiaduraren eta ardatzera distantziarekiko; azken hori elementuaren  $y_i$ ,  $z_i$  posizio koordenatuekin kalkulatu.  $f_z^i$  indar zentrifugoaren modulua 3.38 Ekuazioarekin zehazten da. Indar zentrifugoaren eragina bietan, KE eta ETL ereduetan, aplikatzen da.

$$f_z^i = m_i \left( \frac{\pi N_s}{30} \right)^2 \sqrt{y_i^2 + z_i^2} \quad (3.38)$$

## 3.6. Laburpena

Elementu diskretuen metodoa (DEM) aukeratu da harriaren morfologia eta egitura modelatzeko. DEM formulazioa fenomeno fisikora moldatzeko gaitasuna dauka. Helburua, harriaren gainazal topografia islatzeko gai den harriaren zenbakizko eredua sortzea da. Eredua artezketa lauan harriaren eta piezaren arteko kontaktua simulatzeko erabili da.

Lehendabizi, kontaktuaren sistema tribologikoa zehaztu da artezketaren ikuspuntutik, literatura-berrikuspenean agertu diren faktoreen eta aldagaien arabera. Harriaren morfologia eta zurruntasuna, gainazal topografia eta ale-pieza kontaktu-baldintzak dira kontaktu-ereduak landu beharko dituen aspektu nagusiak.

Ondoren, fenomeno fisikora moldatzeko DEM formulazioan egin diren aukerak deskribatu dira. Ale urratzaile bakoitza DE batekin eta aglomeratzaile-zubi bakoitza habe batekin ordezkatzuz modelatu da harriaren gorputz heterogeneoa. Horrela, DEM ereduak harriaren gorputz heterogeneo granular porotsua era naturalean islatzen du. Bestalde, pieza DE errektangeluar bakar batek modelatzen du. DEM formulazioak hiru oinarri ditu: kontaktu-detekzio algoritmoa, DE-en arteko interakzioak eta integrazio-eskema. Harria osatzen duten DEak habez lotuak daudenez, kontaktu-detekzio algoritmoaren beharrik ez dago. Aldiz, pieza DE bakarrak ordezkatzeko, harriaren gainazaleko DE-en eta piezaren gainazalaren arteko kontaktu-detekzioa errazten du. Beraz, neurri egindako

kontakto-detekzio algoritmo gordina garatu da, gainazal topografiaren ezau-garrieti eta kontakto-baldintzei egokituta. Habeek gobernatzen dituzte harriko DE-en arteko interakzioak, haien arteko desplazamenduen eta biraketa erlatibo-en menpe daudenak. Habeen propietate mekanikoak kalibratzen dira harriaren propietateekiko. Gainazaleko DE-en eta piezaren arteko interakzioa, berriz, deskribatu nahi den fenomeno fisikoari moldatutako kontakto-legearen baitan dago. Bi kontakto-baldintza modelatu dira harriaren DEM eredu berdinarantzatzat. Lehenak, RQ ereduko kontakto-luzera zimurraren baldintzak modelatzen ditu, harriaren eta planoaren kontakto estatikoa simulatuz. Kontakto-baldintza elastikoak eguneratu dira gainera: kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat hartu da eta materialaren portaera biskoplastikotzat jo da. Bigarren hurbilpenak, berriz, artezketaren istant bat modelatzen du, ebaketa-sakonera kontuan hartzen du eta ale-pieza ebaketa-indarra txirbil-sorkuntzaren gogortasun analogia erabiltzen du. Tchamwa-Wielgoz da aukeratutako integrazio-eskema, Verlet eske-mari egonkortasuna mantentzen laguntzen duen zenbakizko moteltzea gehitzen diona.

Artezketaren DEM kontakto-ereduaren eraikuntzak hiru pauso nagusi ditu: harriaren DEM ereduaren sorkuntza, gainazal topografia aplikatzea eta mugalde-baldintzen definizioa.

Harriaren DEM ereduaren zenbakizko sinterizazio prozedura jarraituz eraikitzen da. DE neurria eta DE frakzio bolumetrikoa, biak aldi berean doitu behar dira. Ereduaren neurria murrizteko, disko zati fin batek modelatzen du harri zilindrikoa. Tentsioak eta deformazioak kontakto-eremuan kokatzen direnez, diskoa altuera seguru batean mozten da, ereduaren neurria are gehiago murrizteko. Habeek ematen diote zurruntasuna harriaren gorputzari. Habeen propietate mekanikoek kalibratze beharra dute, denek batera lan egitean harriaren propietateak lortzeko.

Diamantaketak prestatzen du harriaren gainazala, era hauskorrean aleak hautsiz eta askatuz. Sortu berri den topografiak diamantaketa-baldintzen eragina jasotzen du. Zenbakizko gainazala lau pausotan sortzen da. Lehendabizi, gainazaleko DE geruza harriaren diametroan mozten da, eredu sortzean agertzen den DE pilaketa efektua ezabatuz. Ondoren, Malkinen ale-askatze eredu aplikatzen da askatu aurreko ale-neurriaren arabera. Verkerken arabera, gainazaleko ale urratzaileek sorbatz eraginkor bakarra dute. Chenen eredu era diskretuan aplikatzen da sorbatzen posizioa zehazteko. Azkenik, sorbatzen zorroztasuna esfera bidez modelatzen da.

Mugalde-baldintzak aurre-prozesaketan aplikatzen dira; besteak beste, harriaren DEM ereduaren kargatu, topografia aplikatu, harriaren ebaketa-planoa finkatu eta artezketaren indar normala piezari ezarri. Simulazio-begiztan sartzean, iterazio bakoitzean kontakto-detekzio eta erreakzio-indar algoritmoek gainazaleko DE-en eta piezaren posizio erlatiboak aldatuz, kontaktua dagoen erabaki, eta baldintzen arabera erreakzio-indarra ezartzen dute. Simulazioa amaitzen da, DEtako erreakzio-indarren erresultanteak eta piezaren aplikatutako indarrak bat egiten dutenean. Lehen aipatutako bi aldaerak garatu dira: Rowe-Qi kontakto-ereduaren kontakto-luzera zimurra harriaren eta planoaren artean; eta ebaki-gabeko txirbil-lodiera modelatzen duena ebaketa-sakonera kontuan

hartuz. Biek kontaktua zurrun-plastiko-perfektutzat eta materialaren portaera biskoplastikotzat jotzen dute.



## 4. Atala

# Kontaktuaren simulazioa artezketan

*Gai honetan, 3. Gaiaren aurkeztutako zenbakizko ereduak erabiltzen da harriaren portaera kontaktuan aztertzeko. Hainbat froga esperimental egin dira zenbakizko simulazioen baldintzetan. Lan esperimentalak, simulazioetako beharrezko sarrera-datuak lortzeaz gain, simulazioen helburu diren kontaktu-luzerak ere neurtu ditu. Zenbakizko ereduak aurreikusitako eta emaitza esperimentalen alderaketak hainbat ondorio eskaini ditu.*

*Simulazioak martxan jarri aurretik, habeen propietate mekanikoak kalibratzen dira harriaren propietateekiko doituz. DEM ereduaren ausazko natura saihesteko, baldintza berdinetan lau eredu sortu dira frogatutako harri mota bakoitzeko. Haien gainazalari zenbakizko diamantaketa aplikatu ondoren, ereduak prest dira simulazioetarako. Aurre-prozesaketan, esperimentalki neurtutako indarrak eta dagozkien murrizketak aplikatzen zaizkio ereduari. Prozesaketan, iterazio bakoitzean DE bakoitzaren posizio berria kalkulatu da kontaktu-baldintzen eta inguruko DE-en eragina aztertuz. Azkenik, behin simulazioa amaituta, monitorizatutako datuak aztertzen dira. Bi ereduak estimatzen dute kontaktu-luzera; KE ereduak, gainera,  $R_x$  zimurtasun-faktorea; eta, ETL ereduak ale-dentsitatea, aleen desplazamendua eta aleko indarrak. ETL ereduaren emaitzak KE ereduarekin lortutakoak baino gehiago hurbiltzen dira neurketetan lortutakoengana.*

*Atalak esperimentuen diseinu faktoriala ere badakar, sarrera-parametroek ereduaren irteeren aldatetetan duten pisua aztertzen duena. Bi mailako taula ortogonal erabili da saiakuntzen diseinua (design of experiments, DOE) aurrera eramateko. Saiakuntza horiek faktore bakoitzaren eragina sistemaren erantzunean ebaluatzen dute, haien arteko interakzio posibleak barne. Zurruntasun eta topografia parametroen aldatetako harriaren portaeran eragin nabarmena dutela erakutsi dute.*



## 4.1. Lan esperimentalak

Atal honetan lan baldintzak deskribatu eta emaitza esperimentalak aurkezten dira. Beiratzatutako aluminazko bi harri (A46I8V eta A60K7V) erabili dira neurketa esperimentaletan, hiru diamantaketa-baldintzapean (fina (*fine*, F), ertaina (*medium*, M) eta larria (*coarse*, C)), eta bi *a* ezarritako ebaketa-sakonera (10  $\mu\text{m}$  eta 20  $\mu\text{m}$ ). Saiakuntza guztiak hozgarri gabe egin dira 'GER SC 60/40' gainazal lauak artezteko makinan.


Hiru saiakuntza-mota erabili dira kontaktu-ereduaren sarrera-datuak zehazteko: (a) artezketa-endarren neurketak (indarrak eta ebaketa-sakonera), (b) topografia neurketak (sorbatz-erradioa), eta (c) aplikatutako potentzial-iturria, APS (ale-dentsitatea eta ale arteko batatz besteko distantzia). APSk kontaktu-luzerak ere neurtzen ditu, zenbakizko emaitzekin alderatzen direnak. 4.1. Taulak biltzen ditu saiakuntza-baldintzak eta erabili diren baliabideak.

4.1. Taula: Saiakuntza-baldintzak eta baliabideak

<b>Harriak</b>			
Neurriak 300x76,2x30 mm	A46I8V	A60K7V	
Urratzaile frakzio bolumetrikoa, $V_g$	48 %	50 %	
Bataz besteko ale-neurria, $d_g$ (mm)	0,330	0,253	
Youngen modulua, $E_s$ (GPa)	32	43	
Poissonen modulua, $\nu_s$	0,2	0,2	
Dentsitatea ( $\text{kg/m}^3$ )	1854	2096	
<b>Diamantaketa-baldintzak</b>			
Larria (C)	$a_d = 20 \mu\text{m}$	$f_d = 0,8 \text{ mm/rev}$	$u_d = 1$
Ertaina (M)	$a_d = 20 \mu\text{m}$	$f_d = 0,4 \text{ mm/rev}$	$u_d = 2$
Fina (F)	$a_d = 20 \mu\text{m}$	$f_d = 0,2 \text{ mm/rev}$	$u_d = 4$
Orratz erako diamantea		$b_d = 0,8 \text{ mm}$	$\rho_d = 4,06 \text{ mm}$
<b>(a) Indar-neurketak</b>			
Dinamometroa: Kistler 9257B		500 Hz, indar-tartea $\pm 1000 \text{ N}$	
Lau neurketa baldintzako	$a = 10 - 20 \mu\text{m}$	$v_s = 24 \text{ m/s}$	$v_w = 0,5 \text{ m/s}$
<b>(b) Topografia</b>			
	Mikroskopia fokukidea		Leica DCM3D
<b>(c) Ale-dentsitatea, ale arteko distantzia eta kontaktu-luzera</b>			
Applied power source (APS)	Osziloskopia, Lecroy waveRunner 104Xi		
12 neurketa baldintzako	Mika lodiera, $s = 40 \mu\text{m}$		
Ebaketa-sakonera, $a = 5-10-20 \mu\text{m}$	Tentsioa 10 V		
Neurketa-zabalera, $b = 120 - 500 \mu\text{m}$	Maiztasuna, 250 MHz		

Erabili den artezketa-makinak biraketa-abiadura konstantean egiten du lan ( $N_s = 1500 \text{ rpm}$ ). Zenbakizko kontrolak gidatzen ditu makinaren mugimenduak. Ardatz nagusiak biraketa-abiadura konstantean biratzen du eta orga nagusia eragingailu hidraulikoz mugitzen da. Saiakuntza guztietan ebaketa- eta aitzinamendu-abiadurak ( $v_s$ ,  $v_w$ ) konstanteak dira, 24 m/s eta 0,5 m/s hurrenez hurren.

Beiratzatutako aluminazko bi harri, A46I8V eta A60K7V, erabili dira saiakuntzetan. Lehena, alumina zurizkoa da; bigarrena, berriz, alumina arrosazkoa. Harri bikote honek ale neurriaren eta harriaren gogortasunaren eraginen azterketa ahalbidetzen du. Pieza 34CrMo4 erreminta-altzairuzko bloke errektange-




**4.1. Irudia:** (a) Diamantearen profilaren zeharkako neurketa; (b) mikroskopio fokukidearekin lortutako eremu-irudia, eta, (b) diamantearen goitik argazkia


luarra da, 55 HRC gogortasuna du, eta, tenplatua eta irautua izan da.

Hiru diamantaketa-baldintzapean prestatu dira harriak. Diamante-hornitzailearen (*Winter*) gomendioak jarraitu dira diamantaketa-baldintzak aukeratzean:  $f_d$  diamantaketa-aitzinamenduarekin jokatu,  $a_d$  diamantaketa-sakonera mantendu da konstante ( $20 \mu\text{m}$ ). Aukeratutako diamantea, orratz erako diamante punta-bakar sintetiko kristal-anitza da. Diamante honen abantaila nagusia, behin egoera iraunkorrera iristean lan-bizitzan zehar profila mantentzen duela da. Hau da, higadurak apenas aldatzen du bere geometria. Kontra du, berriz, bere profil ia laua. Diamantearen profila lau aldiz neurtu da saiakuntzetan. Diamantearen puntaren batz besteko erradioa  $\rho_d = 4,06 \text{ mm}$  izan da,  $a_d$  baino bi maila handiagoa. Diamantearen zabalera  $b_d = 0,83 \text{ mm}$ -takoa da. 4.1.(a) Irudiak diamantearen profilaren neurketa erakusten du; 4.1.(b) Irudiak 3D mikroskopio fokukidearen behaketa, eta, 4.1.(c) Irudiak goitik hartutako diamantearen argazkia.

Artezketa-ingar experimentalak sarrera-datuak dira kontaktu-ereduan. Simulazioetan, indarra da erreferentzia balioa, ale-pieza interakzioen erresultanteak piezan aplikatutako indarrarekin bat egitean.  $a_e$  ebaketa-sakonera eraginkorra  $k_m$  makina-erreminta-pieza sistemaren zurruntasunarekin estimatu da (2.1 Ek.) [MRDI04]. Hainbat neurketa esperimentalek,  $k_m = 0,24 \text{ N}/\mu\text{m}$  batz besteko balioa eman dute frogatutako baldintzetan (ebaketa-zabalera  $b_w = 10 \text{ mm}$ ). Nahiz eta DEM ereduak zabalera ezberdina izan, indarrak neurtu diren baldintzetan aplikatu da  $a_e$  simulazioetan koherentzia mantentzeko.  $a_e$  sarrera-datua da ETL eredu; KE ereduak ez du erabiltzen, bai ordea RQ eredu kontaktuzko geometrikoa estimatzean. Artezketa-ingarrik bi  $a$  ezarritako ebaketa-sakonerekin neurtu dira ( $a = 10 - 20 \mu\text{m}$ ). Dagokion baldintzetan diamantatu ondoren, lau artezketa-iraganaldi eman dira, harriaren gainazalaren hasierako egoera iragankorra saihesteko. Indar-neurketa bakoitzaren ondoren, beste sei iraganaldi eman dira txinparta-itxaltzea gauzatzeko eta hurrengo indar-neurketa posizio fidagarri batetik abiatzeko. Guztira, lau indar-neurketa egin dira harri-motako eta diamantaketa-baldintzako. 4.2. Irudiak




4.2. Irudia: Artezketa-indarren neurketa-katea

4.3. Irudia: Neurritan egindako ordezeko harria edo *dummy wheel* eta harriaren lagina bertan lotuta

indarren neurketa-katea erakusten du.

Harriaren gainazal topografia ere, mikroskopia optiko fokukidearekin neurtu da. Horretarako, 2.1.3. Atalean ikusitako ordezeko harria (*dummy wheel*) erabili da (ikus 2.11. Ir.), neurri txikiko diamantatutako harri laginak lortzeko. 20x20x30 mm duten harri-laginak 4.1. Taulan zehaztutako baldintzetan diamantatzen dira (4.3. Ir.). Gainazal topografiaren neurketa zuzenek, errepiken beharrik gabe, lortutako emaitzen fidagarritasuna ziurtatzen du. Hala ere, lehen artezketa-iraganaldietan gainazalak duen egoera iragankorra ez da eragozten, segurtasun arazoak direla eta, laginak ez batira artezten ipini.


4.4.(a) Irudiak harriaren gainazalaren 3D topografia neurketa erakusten du. Tontorrak altuera berdineko planoan pilatuta daude 30  $\mu\text{m}$  tartean, diamantearen mozketa ekintza frogatzen duena. Diamanteak bidean topatzen duen urratzailea harrotzen du, eta aleak era hauskorrean hausten dira, batzuk askatu ere egiten direlarik. Hutsune urdinak, askatutako aleek utzitako lekuei dagokie. Ale-dentsitatea, ale urratzaileen hausturaren eta askatzearen konbinaketatik azaleratzen da. Ondorio horiek DEM ereduaren zehazkizko diamantaketa bidez modelatzen dira, Malkin-Chen ereduak konbinatuz ale-askatze, diamante-



**4.4. Irudia:** (a) Harriaren gainazal topografiaren 3D neurketa mikroskopio fokukidea erabiliz; (b) harriaren gainazaleko zeharkako bistaren SEM irudia (A60K8V, diamantaketa larria (C))

tearen ebaketa harikor helikoidala eta ale-haustura hauskorak konbinatuz (Section 3.4.). Diamanteak utzitako helizea ezin da antzeman 3D topografia neurketetan. 4.4.(b) Irudian, SEM bidez lortutako argazki ikusgarriak harriaren gainazala zeharka erakusten du. Irudian gainazala, literalki, moztuta agertzen da.

DEM erudian,  $\rho_s$  sorbatz-erradioak karakterizatzen du ale urratzaileen zorrotasuna. Brenerrek eta Torrancek [BT93] definitutako prozedura moldatuz egin dira  $\rho_s$ -ren neurketak. 3D topografia neurketak erabili dira aleen zorrotasuna zehazteko (4.4.(a) Ir.). 3D topografia neurketek, alde batetik, tontor irtenak identifikatzen ditu, eta beste aldetik, 2D profila edozein ebaketa-planotan eskuragarri ipintzen du. Horrela, 3D neurketetan ebaketa-planoa tontorren parean kokatuz, sorbatzaren 2D profilak ebaketaren zentzuan lortu dira, eta ez ausazko sekzioetan 2D neurketetan bezala. Sorbatz-erradioa definitzeko erreferentziako sakoneraren aukeraketa lausoa da literaturan: grafikoki sakoneraren funtzioan adierazten da, edota ez da zehazten. Aleek oso azalean egiten dute lan, horregatik tontorrekiko 5  $\mu\text{m}$  sakonera hartu da erreferentziatzat zirkunferentzia eraikitzeke. 4.4.(a) Irudiko 3D gainazaletik abiatuz, sorbatzen parean 2D profilak lortzen dira (4.5.(a) Ir.), eta horien eskala handituz,  $\rho_s$  zehazten da tontorretik 5  $\mu\text{m}$  sakoneran (4.5.(b) Ir.). Gutxienez 12 tontor aztertu dira diamantaketa-baldintzako eta harri mota<sup>o</sup>ko.  $\rho_s$  antzeko balioak lortu dira diamantaketa-baldintza eta harriarekiko loturarik gabe (29  $\mu\text{m}$  A46I8V harrian eta 27  $\mu\text{m}$  A60K7V harrian). Diamantaketa-baldintzek eragiketaren intentsitatea baldintzatzen dute, ale-askatzearekin lotuta duena. Ale-hausturak, berriz, diamante kamutsarekin azaleko sakoneretan antzeko baldintzetan gertatzen dira. Azkenak sortzen ditu sorbatzak eta, beraz, diamantaketa-baldintzak direnak direla, zentzuzkoa da antzeko zorrotasunak lortzea. Balio horiek bat egiten dute [KL75, BT93] lortutakoekin (16 - 35  $\mu\text{m}$ ), antzeko eran 2D profilak neurtzen lortuak izan direnak. [LS75], berriz,  $\rho_s = 75 - 500 \mu\text{m}$  arteko balioak lortzen ditu, baina piezan ale bakarraren frogek utzitako aztarnak neurtuz.



**4.5. Irudia:**  $\rho_s$  sorbatz-erradioaren neurketa 2D profila aztertuz: (a) tontorra zeharkatzen duen 2 mm luzerako 2D profila ebaketaren norabidean; (b) tontor baten zooma eta  $\rho_s$ -ren definizioa

Aplikaturako potentzial-iturria edo APS teknika  $G_{\text{dyn}}$  ale-dentsitatea,  $L_{\text{dyn}}$  ale arteko batz besteko distantzia eta  $l_c$  kontaktu-luzera neurtzeko erabili da, bere sinpletasunagatik eta zehaztasunagatik (ikus 2.2.2. Atala). 4.6. Irudiak erakusten du saiakuntzaren prestaketa. Mika-orri batez banatutako pieza zatituaren APS aldaera aukeratu da (2.15.(c) Ir.). Bi pieza lotzen dira orga nagusian. Lehenengoa, diamantaketaren efektu iragankorrak saihesteko, harriari sei artezketa-iraganaldi emateko erabiltzen da. Ondoren, harria prest dago saiakuntzetarako. Bigarren pieza, mika-orriak isolatutako bi zatitan banatuta dago; zati bakoitza elektrodo bati konektatua dago. Zhouen [ZFG85] teknika moldatu da, piezari  $b$  zabalera duen luzeratako irtengunea prestatuz. Irtengunea profil-proiektorean neurtzen da makinan bermatu aurretik. Ale bat irtengunearen gaitetik pasatzean, mikak banatutako bi pieza zatiak instant batez konektatu, zirkuitua itxi, eta osziloskopioan tentsio-pultsu bat sumatzen da. Ale guztiek osatutako seinalea aztertuz,  $t_c$  kontaktuaren iraupena zehazten da. 2.26 Ekua-zioarekin  $l_c$  kontaktu-luzera estimatzen da. Era berean,  $G_{\text{dyn}}$  ale-dentsitatea lortzen da,  $N_c$  tentsio-pultsu (edo kontaktu) kopurua kontaktu-azalera zehar (2.18 Ek.). Aldiz,  $L_{\text{dyn}}$  ale arteko distantzia kalkulatzeko,  $N_c$  kontaktu-azaleraekin erlazionatu beharrez, kontaktu-luzerarekin erlazionatzen du (2.17 Ek.), bizarxaffaren metodoa moldatuz [BS74].

Besteak beste, APS metodoa  $b$  neurketa-zabaleraren,  $s$  isolatzaile-lodieraren eta  $V$  tentsioaren menpe dago.  $b$ -k kontaktuaren eskuragarritasunean eragiten du,  $s$ -k kontaktuak intentsitatearen arabera diskriminatzen ditu, eta  $V$ -k seinalearen intentsitatea definitzen du. 2.2. Taulak biltzen ditu argitaratutako saiakuntzen datuak. CCS metodoak isolatzaile lodiera maximoa doitzen du [GW88] kontaktuak diskriminatu eta neurketaren egonkortasuna bermatzeko. Bestalde, potentzial iturria kenduta dagoenean, isolatutako piezaren bi zatiak arteztu ondoren polimetroarekin erresistentzia neurtzean, zirkuitua itxia dagoela antzemana da. Baldintza berdinetan potentzial-iturria aplikatuta arteztu ondoren berri, zirkuitua irekia dago. Horrek tentsioak aleek sortutako mikro-kontaktuetan barrena pasatzean erresistentziak sortutako beroak loturak deuseztatzen dituela adierazten du. Beraz, isolatzaile lodia ( $s = 40 \mu\text{m}$ ) eta tentsio handia ( $V = 10 \text{ V}$ ) konbinatuz lortu dira seinale argienak.  $b > 0,6 \text{ mm}$  denean, kontaktu-kopuru




4.6. Irudia: APS saiakuntza prestaketa

handiak seinale jarraitua lortzen du, ezegonkortzera ere iristen delarik zirkuitua itxita geratuz. Teknikak azterketa sakonagoa behar du, bai aldagaiek seinalean duten eragina zehazteko, eta baita beste teknika batekin emaitzak alderatzeko ere.

APS neurketak bi irtengune-zabalerekin egin dira, kontaktu-luzera maximoak eta batz bestekoak lortuz (2.16.(a) Ir.). 4.7. Irudiak baldintza berdinetan neurtutako tentsio-denbora (V-ms) APS seinaleen bi adibide aurkezten ditu. DEM ereduaren emaitzak, batz besteko kontaktu-luzerarekin bat egiten dute, ereduaren zabalera estuagatik eta, batez ere, simulazioak kontaktuaren istant bat jasotzen duelako, ez APSk bezala, kontaktua  $t_c$  denbora tartean. Horregatik, zabalera estuko irtengunearekin ( $b = 0,12$  mm) egindako APS  $l_c$  neurketak kontaktu-eredua balioztatzeko erabili dira (4.7.(a) Ir.). Seinale berdina erabili da  $L_{dyn}$  ale arteko batz besteko distantzia estimatzeko. Breckerrek eta Shawek [BS74]  $L_{dyn}$  esperimentalki neurtzean, bizar-xaflaren zabalera neurketan duen eraginaz eztabaidatzen dute: zabalera (kasu honetan  $b$ ) sorbatzak sortutako urradurarena baino zabalagoa izan behar duela ondorioztatzen dute. Ale-neurria irtengunearen zabalera baino bi edo hiru aldiz handiagoa denez, ez dago teilakatze arazorik. Bestalde, irtengune zabala duen piezak ( $b = 0,5$  mm) azalera handiagoa estaltzen du, ale-dentsitatea definitzeko egokiagoa dena (4.7.(b) Ir.). 12 neurketa egin dira froga baldintzako. APS neurketak hiru ezarritako ebaketa-sakoneretan ( $a = 5 - 10 - 20$   $\mu\text{m}$ ) egin dira, eta lortutako datuekin  $l_c - a$  eta  $G_{dyn} - a$  erregresio-kurbak lortu dira. Makinaren ardatzaren deflexioa arbuia da, ebakera-zabalera hain estuetan sortzen diren indarrak eskasak baitira.






**4.7. Irudia:** APS seinale adibideak irtengunearen zabaleraren arabera: (a)  $b = 0,12$  mm eta (b)  $b = 0,5$  mm (A46I8V harria,  $a = 5 \mu\text{m}$ , diamantaketa fina (F))

## 4.2. DEM ereduaren prestaketa

Simulazioak abian jarri aurretik, haben propietate mekanikoak kalibratzen dira, ereduaren zurruntasuna harriarenari doitzeko. Froga-baldintza bakoitzerako, simulazioak lau DEM ereduakin errepikatzen dira. Ereduen eraikuntza eta gainazal topografia ausazkoak direnez, kasu bakoitzaren emaitza lau simulazioen batuz bestekoa da, errealitatean artezketa aztertzean bezala. Horrela, sarrera-datu berdinekin lau DEM eredu sortu dira harri-diamantaketa-baldintza konbinazio bakoitzarentzat 3.3. eta 3.4. Ataletan deskribatutako prozedurak jarraituz. Harriaren izendapena eta dimentsioak dira harrien DEM ereduak eraikitze-ko abiapuntua. Ondoren, gainazal topografia aplikatzen da ereduaren gainazalean diamantaketa-baldintzen, ale-dentsitatearen eta sorbatz-erradioaren arabera. Mugalde-baldintzak (3.5. Atala) simulazioa hasi aurretik ezartzen dira, bai KE, baita ETL aldaeretan. Hasieran, esperimentalki neurtutako indar normala piezan arrapala eran aplikatzen da, bere malda indar nominalaren 1/1000 delarik. Behin indar nominalera iritsita, indarra konstante mantentzen da. Arrapalak egonkortasuna bermatzen du simulazioaren hasieran, harriak eta piezak kontaktu hartzean. Simulazioan zehar, aldagai nagusiak monitorizatzen eta gordetzen dira, ondoren ereduaren portaera aztertu ahal izateko.

### 4.2.1. Haben propietateen kalibrazioa

Haben propietate mekanikoen kalibrazioa, harrien gradu guztientzat egin da 3.2.1. Atalean deskribatutako prozedura jarraituz. Kalibrazioaren emaitzak baliagarriak dira ale-neurri eta egitura zenbakientzat, erabilitako prozedurak propietateak homogeneizatzen baititu. Haben Poissonen modula  $\nu_\mu = 0,2$  finkatuz (harriarena),  $r_\mu = 0,538$  diametroaren murrizpen-faktorea lortu da harriaren  $\nu_s = 0,2$  doitzeko [KF87]. Kalibrazioaren bigarren pausua hainbat harri



**4.8. Irudia:** Habeen propietate mekanikoen kalibrazioa:  $E_s$  harriaren eta  $E_\mu$  habeen elastikotasun moduluaren, eta graduaren arteko erlazioa ( $\nu_\mu = 0,2$ ,  $r_\mu = 0,538$ )

gradutan aplikatuz, 4.8. Irudiak erregresio-kurba lortu da, makro- eta mikro-eskalako elastikotasun moduluak ( $E_s$ ,  $E_\mu$ ) erlazionatzen dituenak. Lortutako kurbak zuzenaren funtzioarekin bat egiten 0,9995  $R^2$ -arekin, beraz,  $E_s$ - $E_\mu$  erlazioa linealtzat har daiteke. Gradua eta elastikotasun moduluaren arteko korrelazioa Hernaniko Unesa harri-ekoizleari sor zaio.

Saiakuntzetan erabilitako harrien kalibrazio-parametroei dagokienez, biek dituzte Poissonen modulu ( $\nu_\mu = 0,2$ ) eta murrizpen-faktore ( $r_\mu = 0,538$ ) komunak. A46I8V harria 34 GPa-tako  $E_s$ -ari, habeetan  $E_\mu = 185,5$  GPa dagokio. A60K7V harriak, berriz,  $E_s = 43$  GPa elastikotasunari habeetan  $E_\mu = 234,3$  GPa dagokio.


#### 4.2.2. Sarrera-datuak

4.2. Taulak biltzen ditu harriaren DEM ereduaren erakitze beharrezkoak diren sarrera-datuak eta simulazio-parametroak. Haien balioak lan esperimental bidez (artezketa-indarrak, ale-dentsitatea), simulazio bidez (habeen propietateen kalibrazioa) eta adierazpen analitikoekin (ebaki-gabeko txirbil-lodiera) lortu dira.

Harriaren DEM ereduaren erakitze dimentsioak, morfologia granularra eta propietate mekanikoak ezagutu behar dira.  $d_s$  diametroa,  $b_s$  zabalera eta  $h_s$  altuera dira DEM ereduaren neurriak (3.12. Ir.).  $d_s$ -k harriaren diametroarekin bat egiten du. Hala ere, ereduaren sortzean zenbakizko sinterizazioaren ondorioz pareta elastikoetan DEak pilatzen direnez (3.16. Ir.), ereduaren erakitzean diametroa zerbait handiagotzen da, hiru aldiz ale-neurria ( $d_s + 3d_g$ ).  $d_s$  izendatua topografia aplikatzean lortzen da.

4.2. Taula: DEM ereduaren sarrera-datuak

<b>Harriak</b>	A46I8V		A60K7V			
Ereduaren neurriak, $d_s, b_s, h_s$ (mm)	300 x 2,24 x 5,1		300 x 1,7 x 5,1			
Urratzaile frakzio bolumetrikoa, $V_g$	48%		50%			
DE diametroa, $d_{DE}$ (mm)	0,330		0,253			
DE murrizpen-faktorea, $r$	0,921		0,944			
Poissonen modulua, $\nu_s$	0,2		0,2			
Habe murrizpen-faktorea, $r_\mu$	0,538		0,538			
Habe elastikotasun modulua, $E_\mu$ (GPa)	185,5		234,3			
Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> )	1854		2096			
DE kopurua	11000		19100			
<b>Diamantaketa-baldintzak</b>	$a_d = 20 \mu\text{m}$	$b_d = 0,8 \text{ mm}$	$\rho_d = 4,06 \text{ mm}$			
Larria (C)	$h_f = 20 \mu\text{m}$	$f_d = 0,8 \frac{\text{mm}}{\text{rev}}$	$u_d = 1$			
Ertaina (M)	$h_f = 10 \mu\text{m}$	$f_d = 0,4 \frac{\text{mm}}{\text{rev}}$	$u_d = 2$			
Fina (F)	$h_f = 5 \mu\text{m}$	$f_d = 0,2 \frac{\text{mm}}{\text{rev}}$	$u_d = 4$			
<b>Sorbatz zorroztasuna</b>	A46I8V		A60K7V			
Sorbatz-erradioa, $\rho_s$ ( $\mu\text{m}$ )	29		27			
Desbiderapen estandarra, $\sigma_p$ ( $\mu\text{m}$ )	4,6		3,8			
	<b>F</b>	<b>M</b>	<b>C</b>	<b>F</b>	<b>M</b>	<b>C</b>
Ale askatze neurria, $d_b$ ( $\mu\text{m}$ )	233	243	259	178	188	199
<b>Txirbil-lodiera max.</b> , $h_{cu,max}$ ( $\mu\text{m}$ )						
$a = 10 \mu\text{m}$	0,34	0,39	0,51	0,31	0,34	0,4
$a = 20 \mu\text{m}$	0,52	0,58	0,7	0,48	0,48	0,54
<b>Indarrak</b>	$a = 10 \mu\text{m}$					
Indar-arrazoia, $\mu$	0,53	0,55	0,49	0,49	0,5	0,49
Indar normal espezifikoa, $F'_n$ (N/mm)	11,2	9,3	4,2	19,3	16,4	10,5
	$a = 20 \mu\text{m}$					
Indar-arrazoia, $\mu$	0,49	0,45	0,44	0,49	0,45	0,47
Indar normal espezifikoa, $F'_n$ (N/mm)	7,8	6,9	5,0	15,8	14,4	13,3
<b>Piezaren propietate biskoplastikoak</b>						
34CrMo4 erreminta-altzairua	Gogortasuna 55 HRc		$\sigma_y = 1815 \text{ MPa}$			
	$E_w = 210 \text{ GPa}$		$\nu_w = 0,3$			
JC koefizienteak [JC83]	$A = 1815 \text{ MPa}$	$B = 477 \text{ MPa}$	$C = 0,012$			
	$n = 0,18$		$m = 1,0$			
Deformazio eta tenperatura parametroak	$\varepsilon = 3,1$		$\dot{\varepsilon} = 3,6 \cdot 10^6 \text{ s}^{-1}$			
	$T_o = 300 \text{ K}$	$T_m = 1764 \text{ K}$	$T = 950 \text{ K}$			



**4.9. Irudia:** Ereduaren  $h_s$  altuera zehazteko harriaren eta piezaren arteko kontaktuaren azterketa FEM bidez

Ereduaren  $b_s$  zabalerari dagokionez, harriaren tamainaren eta kontaktuan eskuragarri dauden DE kopuruaren arteko konpromisoa da. Gutxienez lau ale ilara modelatzen dira. Baina ale arteko distantzia  $d_g$  ale-neurria baino handiagoa denez,  $b_s$  zabalera 6 - 7 aldiz  $d_g$  izatea erabaki da. 4.2. Taulak erakusten du  $b_s$  2,24 mm dela A46I8V harriarentzat eta 1,7 mm A60K7V-rentzat. Biek mantentzen dute 6,8 zabalera/DE diametro erlazioa ( $b_s/d_g$ ). Ereduaren DE kopuru onargarri maximoak baldintzatu du erlazioa: erlazio txikiagoak, eredu tamaina txikiagotzen du eta, beraz, konputazioa azkartu; bestalde, erlazio handiagoak azalera gehiago estaltzen du eta hobeto jasotzen ditu topografiaren nabardurak. Ale-neurriak eta -dentsitateak bi ereduaren zabalera ezberdintzen du, baina ( $b_s/d_g$ ) erlazio berdina erabiltzeak bien arteko emaitzak erkigarriak egiten ditu.

Azkenik,  $h_s$  ereduaren altuera FEM bidez definitzen da (3.3.2. Atala). Esperimentalki behatu den indar maximoa aplikatu zaio  $d_s$  harriaren diametroa duen zilindrori, Von Mises tentsioa maximoarekiko 1/100 da  $h_s = 5,1$  mm distantziaz aurrera. 4.9. Irudiak  $h_s$  definitzeko FEM simulazio-emaitzak aurkezten ditu. Kolore-eskala moldatu da tentsio-eremuak nabarmentzeko. FEM ereduak kontaktu Hertziarra simulatzen duenez (elastikoa eta leuna), kontaktu-azalera txikia da eta, ondorioz, kontaktu-eremuan tentsio-kontzentrazioa handia da. Efektu horrek  $h_s$ -n zehaztapenean segurtasun-tartea handitzen du.

DEM ereduaren morfologia granularra  $d_{DE}$  ( $= d_g$ ) batz besteko DE diametroak eta  $V_g$  urratzaile frakzio bolumetrikoak definitzen dute. 3.18, 3.20 eta 3.23 Ekuazioek  $d_g$ ,  $V_g$  eta ereduak izan behar duen  $N_{DE}$  DE kopuruak zehazten dituzte hurrenez hurren (4.2. Taula). Horrela, ereduaren dimentsioekin eta parametro morfologikoekin DEM ereduera eraikitzen da.

Ondoren, habeak sortu eta dagokien propietate mekanikoak aplikatzen zaizkie ( $E_\mu, \nu_\mu, r_\mu$ ). Habea sortzen da kontaktuan dauden DE-en artean, DE diame-

troa murriztu aurretik. Behar baino habe diametro handiagoa uzten da ( $r_\mu/r$ ), ondoren DE diametro murrizpenak konpentsatzeko. Harri gradu guztientzako kalibrazio-parametroak 4.2.1. Atalean aurkeztu dira.


Behin DEM ereduera eraikita, zenbakizko diamantaketa aplikatzeko prest dago. Gainazal topografia aurre-prozesaketan aplikatzen da, 3.4. Atalean deskribatutako prozedura jarraituz. Diamantearen ebaketa harikorra (helizea)  $f_d$  diamantaketa-aitzinamenduaren eta  $\rho_d$  diamantearen erradioaren menpe dago. Diamantaketa-sakonera berdina da hiru diamantaketa-baldintzetan ( $a_d = 20 \mu\text{m}$ ).  $d_b$  askatutako partikulen batz besteko neurria, esperimentalki neurtutako ale-dentsitatea  $a = 20 \mu\text{m}$  sakoneran (4.2. Taula, 2.12 eta 2.13 Ek.).  $h_f$  haustura osagaiaren anplitudea 2.28 Ekuazioarekin definitzen da. Behin sorbatzen sakonera ausaz definituta,  $\rho_s$  sorbatz-erradioa ere aplikatzen zaio bakoitzari.  $\rho_s$ -k  $\sigma_\rho$  desbiderapen estandarra duen banaketa normala jarraitzen du.

$h_{\text{cu,max}}$  ebaki-gabeko txirbil-lodiera maximoa 2.5 Ekuazioarekin kalkulaten da. 2.17 Ekuazioak, berriz, aurreko ekuazioan sarrera-datu den  $L_{\text{dyn}}$  segidako bi aleen arteko batz besteko distantzia estimatzen du APS neurketak aztertuz.  $h_{\text{cu}}$  estimatzean  $L_{\text{dyn}}$ -en oinarritutako adierazpena  $G_{\text{dyn}}$ -etan oinarritutako ordez erabiltzeak,  $h_{\text{cu,max}}$  balio txikiak estimatzen ditu.

4.2. Taulak esperimentalki neurtutako luzera unitateko  $F'_n$  indar normalen batz besteko balioak eta  $\mu$  indar-arrazoiak biltzen ditu. 4.10. Irudiak, berriz,  $F'_n$ -k aurkezten ditu diamantaketa-aitzinamenduaren eta ebaketa-sakonerearen funtzioan. Grafikoak, diamantaketa finak (F) indar handiagoak sortzen dituela erakusten du. Efektu hori gainazal topografia itxiagoa duelako gertatzen da. Bestalde, diamantaketa finak zimurtasun balio hobeak lortzen ditu.  $\mu$ -ri dagokionez, balioak zerbait handiagoak dira A46I8V harriarentzat (0,49 - 0,55), A60K7V harriarentzat baino (0,44 - 0,5). DEM ereduaren, esperimentalki neurtutako  $F_n$  piezan aplikatzen da, eta simulazioaren konbergentzia maila aztertzeke erreferentzia balioa da. Indar zentrifugoa  $f_z^i$  DE bakoitzean aplikatzen da posizio erradialaren eta biraketa-abiaduraren  $N_s$  funtzioan (3.38 Ek.). Kanpoaldeko DE batentzat  $v_s = 24 \text{ m/s}$  abiaduran,  $f_z$  0,0021 N dira 46 ale-neurriarekin, eta 0,0011 N 60 neurriarekin. Ale-kopuru andanatan eragindako  $\Sigma f_z$  indarren erresultanteak  $f_z$ -ren efektua azaleratzen du.  $v_s$  bikoiztuz gero,  $f_z$  laukoizten da.

Piezaren propietate mekanikoak zehaztean, KE eta ETL ereduak materialaren portaera biskoplastikotzat jotzen dute (2.4.3. Atala). 3.5. Atalean azaldu da, beraien balioa konstantetzat hartuko dela kontaktu-arkuan zehar.  $\sigma_y$  isurpententsio eraginkorraren hurbilpen zabarra egin da JC eredu eratzaillearekin (2.35 Ek.). Pieza 34CrMo4 erreminta-altzairuzkoa da, tenplatua eta irautua. JC ereduak  $\sigma_y$  estimatzen du  $\varepsilon_p$  deformazio plastikoaren,  $\dot{\varepsilon}_p$  eta  $\dot{\varepsilon}_o$  uneko eta erreferentziako deformazio-abiaduraren, eta,  $T$ ,  $T_o$  eta  $T_m$  uneko, giro eta fusio tenperaturen funtzioan. Johnsonek eta Cookek [JC83] ereduaren aurkeztean hainbat materialen konstanteak eskaintzen dituzte. Horien artean S5 erreminta-altzairua dago, 34CrMo4-ren antzeko konposizio eta ezaugarriak dituena. S5 altzairuaren material-konstanteak erabili dira 34CrMo4-ren portaera deskribatzeko.

Material harroketa teoriaren berrikusketak, besteak beste deformazio eta deformazio-abiadura baldintzak deskribatzen ditu ebaketan (2.4.3. Atala). Ale




**4.10. Irudia:** Artezketan indar normal espezifikoak harri mota, ebaketa-sakonera eta diamantaketa-aitzinamenduarekiko; (F), (M) eta (C) diamantaketa-baldintzei dagokie

urratzaile baten sorbatzak  $h_{cu} = 4 \mu\text{m}$  ebaketa-sakonera [KL75]  $v_s = 24 \text{ m/s}$  ebaketa-abiaduran,  $\mu = 0,5$  indar-arrazoiarekin eta  $\alpha = -60^\circ$  jaulkitze-angulu negatiboarekin [Sha96], Ernsts-Merchant adierazpenak (2.36 Ek.)  $\theta = 13,3^\circ$  ebakidura-angelua estimatzen du.  $C_1 = 10,6$  bada [OY89], eta, 2.38 eta 2.39 Ekuazioak aplikatuz,  $\varepsilon_p = 3,1$  deformazio plastikoa eta  $\dot{\varepsilon}_p = 3,6 \cdot 10^6 \text{ s}^{-1}$  deformazio-abiadura lortzen dira. Balio hauek baldintza ia-balistikoei dagokie.

34CrMo4 altzairuaren fusio-tenperatura  $T_m = 1764 \text{ K}$  da eta  $T_o = 300 \text{ K}$  hartu da giro-tenperaturatzat. Ebaketa-eremuan  $T = 950 \text{ K}$  tenperatura konstantea aukeratu da. Zenbakizko simulazioek 800 K eta 900 K arteko tenperaturak estimatzen dituzte ebakidura-planoan [OO05], eta, altzairuen fase-aldaketa puntuan erresistentzia erorketa dago [TFX<sup>+</sup>15]. Tenperatura tartea literaturan argitaratutako termopare polobakarrarekin egindako neurketa esperimentalen emaitzek baieztatzen dute [LVLL06, DKD<sup>+</sup>10, PSO<sup>+</sup>12, RKM15]. 2.43, 2.44 eta 2.42 Ekuazioek kontaktu-azalera analitikoki estimatzen dute tenperatura maximoa, bero-iturri mugikorra triangeluartzat hartuz. Honako aldagaiak erabiliz ( $q_o = 90 \cdot 10^6 \text{ W/m}^2$ ,  $R_w = 0,9$  (hozgarrigabe),  $k = 23,5 \text{ W/m K}$ ,  $\rho = 7860 \text{ kg/m}^3$ ,  $c = 515 \text{ J/kg K}$ ,  $C_1 = 1,06$ ,  $l_c = 0,004 \text{ m}$ ), 2.43 Ekuazioak 1060 K tenperatura maximoa estimatzen du, 950 K tenperatura konstantearen gainetik.

Azkenik, material-konstanteak, deformazio-baldintzak eta tenperaturak JC ereduan ordezkatuz (2.35 Ek.),  $\sigma_y = 810 \text{ MPa}$  isurpen-tentsio eraginkorra lortzen da.  $\sigma_y$  balio horrek bat egiten du [OO05] argitaratutako balioekin. FEM eredu horrek 1000 MPa  $\sigma_y$  lortzen du  $a_e = 1 \mu\text{m}$  ebaketa-sakonera, 700 - 900 MPa  $a_e = 4,6 \mu\text{m}$  sakonera eta 450 - 1000 MPa  $a_e = 100 \mu\text{m}$  sakonera ( $\alpha = -45^\circ$ ,  $v_s = 30 \text{ m/s}$ ).  $\sigma_y$  konstantetzat jotzeak, azaleko sakoneretan indar txikiagoak sortzen ditu. Edozein kasutan, eremu horretan indarrak txikiagoak direnez, oro har eragindako akatsa onargarria da.



**4.11. Irudia:** Bermazal-kurba esperimentalak eta DEM eredian sortutakoak, harriaren (A46I8V, A60K7V) eta diamantaketa-baldintzen arabera (F, M, C)

### 4.3. Simulazioak eta saiakuntzak

Atal honek lan esperimentaleko eta simulazioetako emaitzak biltzen eta alderatzen ditu.

Sortutako topografiaren hurbilpen egokia beharrezkoa da artezketan kontaktua simulatzean. DEM ereduaren gainazal topografia aurre-prozesaketan sortzen da. 4.11. Irudiak esperimentalki behatutako bermazal-kurbak (lerro jarraituak), DEM eredian sortutako bermazal-kurbekin alderatzen ditu (lerro ez-jarraituak). Bigarrenak, DEM ereduak sortutako bermazal-kurbak gainazal sorbatzak soilik hartzen ditu kontuan. Bi kurben gainjarpenak nahiko ongi bat egiten dute 10 μm sakonera arte; hortik aurrera, behatutako bermazal-ratioa nabarmenki igotzen da. Efektu hori, Chenen eredia era diskretuan aplikatzearen ondorioa da, aleko sorbatz bakarrean aplikatzen baita. Hala ere, sorbatzen sarketa maximoa piezan 10 μm inguruan dabilenez, kontaktua modelatzeko Chenen ereduaren aplikazioa era diskretuan hurbilpen zuzena da. Diamantaketa larriak (C) bermazal-ratio txikiagoak lortzen ditu finak (F) baino, artezketaren intentsitatean eta banaketan eragina duenak.

Simulazio batek bi eta sei egun artean irauten du ereduaren tamainaren arabera Intel Xeon E5-2680 @2,80GHz prozesagailuan. Iterazio bakoitzean, testu fitxategian gordetzen dira  $N_c$  kontaktuan dauden gainazaleko DE kopurua,  $\delta_{max}$  sarketa maximoa,  $l_c$  kontaktu-luzera eta piezak jasotzen duen indar normalaren erresultantea. Simulazioan zehar, grafikoak sarri marrazten dira konbergentzia maila aztertzeko. Egoera egonkorrera iritsi bada, simulazioa gerarazten da. Indar normal erresultantea erreferentziatuz hartuz, emaitzaren iterazio zehatza

aurkitzen da, eta bertako ezaugarrien balioak izango dira simulazioaren emaitzak.

4.12. Irudiak simulazioetan sentsoreak lortzen dituen grafikoan adibide bana erakusten du; (a) KE eredia eta (b) ETL eredia. Goiko-ezkerreko grafikoak  $N_c$ -ri dagokie; ETL ereduak ale-dentsitatea estimatzeko erabiltzen du (2.18 Ek.). Goiko-eskuineko grafikoek  $\delta_{\max}$ -n garapena erakusten du. Gainazalean eskuragarri dauden sorbatzekin batera,  $\delta_{\max}$ -k kontaktuaren intentsitatearen ideia ematen du. Beheko-ezkerreko grafikoek  $l_c$  adierazten dute: lerroek ereduaren alde bakoitzean kontaktuan dagoen DE-en posizioa adierazten dute eta, beraz, kontaktu-luzera bien arteko distantzia da (ikus baita ere 4.14. Ir.). KE eredian, distantzia hori simetrikoa da harriaren ardatz bertikalarekiko (4.12.(a) Ir.), eta asimetrikoa, berriz, ETL eredian (4.12.(b) Ir.). ETL ereduak  $a_e$  ebaketa-sakonera kontuan hartzen duenez, materiala dagoen aldean kontaktua luzeagoa da laua dagoen aldean baino. Azkenik, beheko-eskuineko grafikoek kontaktuan dauden aleen  $\Sigma f_n$  indar normalaren erresultantea monitorizatzen dute. Erresultantearen balioak iterazioz iterazio piezatan aplikatua dagoen indarraren balio nominalerantz jotzen du, harriaren portaera egonkortuz. Horregatik,  $F_n$  da erreferentzia balioa simulazioan. Oro har, KE ereduak azkarrago lortzen du konbergentzia ETL ereduak baino. ETL eredian  $A-B$  zatian (ikus 3.20. Ir.) DE bat kontaktuan sartzean, zero baino handiagoa den txirbil-lodierarekin hasten baita kontaktua.


4.13. Irudiak lortutako kontaktu-luzeren saiakuntzetako (grisean) eta simulazioetako (puntuak) desbiderapen estandarrak era grafikoan aurkezten ditu, harri eta diamantaketa-baldintza bakoitzarentzat. Lehenik eta behin, aipagarria da bietan agertzen den dispersioa, bai emaitza esperimentaletan, baita simulazioetan ere. DEM ereduak artezketaren ausazko natura urratu du eta, ondorioz, emaitza guztiak batz besteko balioaren eta desbiderapen estandarraren bidez adierazten dira. Oro har, simulazioetan dispersioa estuagoa da saiakuntzetan behatutakoa baino. A60K7V harriak dispersio txikiago erakusten du, ziur aski ale-neurria txikiagoa delako.

Kontaktu-luzera esperimental-geometrikoa arrazoia ( $l_c/l_g$ ) 1,85 eta 2,52 artekoa da A46I8V harrian, eta, 1,92 eta 2,2 artekoa A60K7V harrian; balio hauek bat datoz literaturan argitaratutakoekin [MRDI04]. 4.3. Taulak,  $l_c$  emaitza berdinak biltzeaz gain,  $\delta_{\max}$  sarketa maximoak,  $R_r$  zimurtasun-faktoreak (KE), eta  $G_{\text{dyn}}$  ale-dentsitateak (ETL) ere biltzen ditu.


